# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDE ARTEKO III PLANA

## 2011-2015

EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

# Aurkibidea

**1 Sarrera ........................................................................................ 3**

**2 Familia politikaren testuingurua EAEn ............................................ 14**

2.1 Familia ikuspegia ........................................................................ 14

2.2 Familiak eta politika publikoak EAEn ............................................ 15

2.3 Europar Batasuna: joerak eta eremu arauemailea ............................. 20

2.4 Begirada bat Europar batasuneko herri multzoari ............................. 23

2.5 Egoerak mugatutako begirada. ......................................................... 25

**3 Familien errealitatea EAEn: egoeraren diagnosia.................................. 26**

3.1 EAEko familien errealitate demografikoa ........................................ 27

3.2 EAEko familien errealitate sozio-ekonomikoa.................................... 35

3.3 Familia sistemak EAEn..................................................................... 47

3.4 Familien funtzio nagusiak................................................................. 55

**4 Famliei laguntzeko erakunde arteko II Planean ikasitakoak: emaitzak eta hobekuntza esparruak................................................................ 71**

4.1 Lortutako aurrerapen nagusiak ........................................................ 72

4.2 Balorazioak ..................................................................................... 85

4.3 Lortutako emaitzak.......................................................................... 86

4.4 Oinarrizko ondorioak ....................................................................... 88

4.5 Gomendio eraginkorrak. ........ 88

4.6 Gomendio estrategikoak. ........ 90

**5 EAEn Familiei laguntzeko erakunde arteko III Plana ........ 91**

5.1 Planaren justifikazioa ........ 91

5.2 Misioa, ikuspegia eta printzipioak ........ 94

5.3 Ildo estrategikoak ........ 97

5.4 Helburu estrategikoak eta neurriak ........ 103

5.5 Planaren betearazpenaren jarraipen sistema. ........ 192

**ERANSKINA ........ 197**

# 1 Sarrera

Dokumentu honetan 2011 – 2015 eperako Euskadiko elkarte autonomoko familiei laguntzeko erakunde arteko III Plana aurkezten da. IX Legealdiko Plan eta jarduera esanguratsuen parte bezala , mugarri esangurasu bat da Gobernu programan jasotako konpromezuen artean, baita ere Familiei laguntzeko Abenduaren 12ko 13/2008 legearen garapenean, honen bitartez Gobernuaren ikuspegi estrategikoa lagunduz. Zuzenean erlazionatzen da lehentasun politikoekin eta hiritarren kezkekin eta "Gobernuaren plan eta jarduera esanguratsuen elaborazioa, tramitazioa, onarpena eta jarraipena egiteko prozedura" dokumentuaren arabera egin da. Modu sintetikoan plan honen xedea hauxe da: "zuzenbide subjetiboaren ikuspuntutik abiatuta, familiak bere bizitzaren ziklo osoan laguntzen, sustatzen eta osatzen dituen familia politika bat bultzatzea."

Elaborazio prozesuari dagokionez eta 13/2008 famillei laguntzeko Legearen helburuaren arabera, "EAEn, familia politikaren finkapena orientatzen duen, bere eraginkortasuna hobetzen duen, zein bere eragina gizartean maximizatzen duen tresna bat (Erakunde arteko plan estrategiko bat) izatea" bilatu da. Zehazki, hurrengo aspektuak bultzatu nahi dira:

- Garrantzitsua da garapen sozialaren eta esparru politiko zein sozialaren arabera "erakunde eta eragile ezberdinen artean akordatutako familia politikak bere identitatea berrikustea eta adostea" bere balore eta printzipio gidarietatik abiatuz.

- Beharrezkoa da "EAEn familia politikaren inguruko ildoak kudeaketa eta esku-hartze estrategiak zabaltzea" 2011 – 2015 denboraldian;

- "familien beharrei erantzuten dizkieten jarduerak identifikatzea, bultzatzea eta garatzea";

- aliatu estrategikoekin ematen den kooperazioa eta kolaborazioa berriskustea eta bultzatzea: administrazio publikoekin, eragile sozialekin,

babesgabetasunean dagoen haurtzaro eta familia erakundeekin, heziketa erakundeekin eta abarrekin";

- "bere misioaren eta helburuen betetzeari begira jarraipen sistemak diseinatzea"

Horretarako lan metodo irekia eta parte-hartzailea inplementatu da, bertan inplikatu delarik eragile sozial eta instituzional kopuru garrantzitsua. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritzak talde motore bat izan du aholkulari talde baten laguntzarekin batera. Talde honek lan prozesua zuzendu du eta Planaren dokumentua landu du. Bestetik, euskal familia politikarekin zuzenean inplikatutako eragile instituzionalak zein sozialak presente egon dira; kasu batzuetan jarduera neurriren baten arduraduna izateagatik edo beste kasu batzuetan planarentzat ikuspegi esanguratsua aurkezteagatik (familia politikaren eragina eta ondorioak zuzenean jasotzeagatik), eta bestelako kasuetan familiekin lan egiten dutelako edota familiei laguntzeko politiken orientazio globalean ikuspegi garrantzitsuak barneratzen dituztelako.

## FASE METODOLOGIKOEN LABURPENA



Familiei laguntzeko III Planean erabilitako metodologia kualitatiboa eta parte – hartzailea izan da batez ere. Baita ere metodologia kuantitaiboa erabili da bere eraketan.

Batetik, EAEko familien gaur egungo egoeraren inguruko datuak jasotzeko, lehen mailako zein bigarren mailako iturrietako ikerketak eta datuak erabili dira, horrela lortu da familien egoeraren eta bere inguruko aldagaien gaineko argazki osoa lortzea.

Behin familien egoeraren argazkia lortuta, iturri ezberdinetatik datorren informazioa jaso, aztertu eta kontrastatu da. Iturri horiek administrazioa, ehun soziala eta bestelako eragile batzuk (adituak, unibertsitateak, pertsona anonimoak…) izan dira hain zuzen ere.

Hartara, topatzen dugu sail arteko mailan (Eusko Jaurlaritzako sailak), erakunde arteko mailan eta maila sozialean hiru ekintza mota egin direla:

- Familiei laguntzeko III Planaren eraketaren aurkezpena (plana egin baino lehen).
- Familiei laguntzeko III Planaren parte diren zuzendaritzetako arduradunei elkarrizketak (edo beraiek izendatutakoei).
- Informazioa jasotzea bide telematikoen bitartez.

Familia politikan adituak direnekin, telefono bidezko kontaktua egon da eta baita ere informazioa bide telematikoen bitartez jaso da.

Baita ere hurrengoen inguruko dokumetu ugariak kontsultatu dira: familia politika, jaiotze-tasa, zerbitzu sozialak, lege testuak, ildoak, administrazio publikoaren planifikazioak…

Ekintza guzti hauen zehaztapenak, honetarako espresuki egin den landa lana koaderno batean zehazten dira.

Jarraian zehazten dira ekintza metodologikoak eragilearen eta ekintza motaren arabera.

| EKINTZA METODOLOGIKOA | ERAGILEAK ETA ERAKUNDEAK | | | |
|---|---|---|---|---|
| | SAIL ARTEKOA | ERAKUNDE ARTEKOA | ERAGILE ETA ERAKUNDE SOZIALAK | ADITUAK ETA BESTELAKOAK |
| Aurkezpena | Gizarte Zerbitzuen zuzendaritza, Lanbideko Enplegu eta Prestakuntzako zuzendaritza, Lanbideko Lana Aktibatzeko Zuzendaritza, Droga Gaietako Zuzendaritza, Immigrazio eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza, Landa eta Itsasertzeko Garapeneko Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritza, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, Genero | Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia. | Familiako Batzorde Iraunkorreko kide diren erakunde eta eragile sozialak.<br><br>Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala, sindikatuak, enpresa erakundeak, profesionalen elkargoak, elkarteak eta federazioak. | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Osasun Publikoko Zuzendaritza, Turismoko Zuzendaritza, Zerga Administrazioko Zuzendaritza, Emakunde, Etxebizitza, Herri lan eta garraio saileko aholkularitza. | | | |
| Elkarrizketa pertsonala | Gizarte Zerbitzuen zuzendaritza, Lanbideko Enplegu eta Prestakuntzako zuzendaritza, Lanbideko Lana Aktibatzeko Zuzendaritza, Immigrazio eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzako | Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia.<br><br>Bilboko Udaleko Gizartekintza saila, , Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Saila, Gasteizko udaleko Gizartegintza Saila eta EUDEL. | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Zuzendaritza, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, Genero indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Osasun Publikoko Zuzendaritza, Turismoko Zuzendaritza, Zerga Administrazioko Zuzendaritza, Emakunde, Etxebizitza, Herri lan eta garraio saileko aholkularitza. | | | |
| Informazioa telematika bidez jasotzea<br><br>(aurretiaz ezarritako gidoi baten bitartez). | Gizarte Zerbitzuen zuzendaritza, Lanbideko Enplegu eta Prestakuntzako zuzendaritza, Lanbideko Lana Aktibatzeko Zuzendaritza, Droga Gaietako Zuzendaritza, Inmigrazio Zuzendaritza, | Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia.<br><br>Bilboko Udaleko Gizartekintza saila, Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Saila, Gasteizko udaleko | Familiako Batzorde Iraunkorreko kide diren erakunde eta eragile sozialak.<br><br>Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren | EHUko adituak |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza, Landa eta Itsasertzeko Garapeneko Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritza, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, Genero indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Osasun Publikoko Zuzendaritza, Turismoko Zuzendaritza, Zerga Administrazioko Zuzendaritza, Emakunde, Herri lan eta garraio saileko aholkularitza. | Gizartegintza Saila eta EUDEL. | Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala, sindikatuak, enpresa erakundeak, profesionalen elkargoak, elkarteak eta federazioak. | |
| Talde bilerak | | Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru | Familiako Batzorde Iraunkorreko kide diren | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Aldundia eta EUDEL. | erakunde eta eragile sozialak.<br><br>Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala, sindikatuak, enpresa erakundeak, profesionalen elkargoak, elkarteak eta federazioak. | |
| Irekia atariaren bidez egindako ekarpenak | | | | Irekia atarian jasotako 10 ekarpen. |
| Dokumentazio kontsulta | Familia politikaren inguruko dokumentu ugari kontsultatu dira: lege testuak, jaiotze - tasak, inmigrazioa, zerbitzu sozialak, gogoeta teorikoak, gazteria, enplegua, etxebizitza, plan sektorialak, planifikazio estrategikoak… | | | |
| Diagnosiaren eraketa | Diagnosiaren eraketarako | | | |

** Informazio zehatzagoa lortzeko, honetarako egin den landa lana koadernoa kontsultatu daiteke. Bertan, datak, interlokutoreak eta ekintza zehatzak agertzen dira.*

Metodo honen bitartez, batetik III Planaren erakunde artekotasunaren zehaztapena eman da, inplikatutako administrazio guztiak barneratu direlako eta erakunde koordinazio praktikoa aplikatu delako. Bestalde, sail artekotasuna eman da Enplegu eta gizarte gaietako Familia eta komunitate politikako zuzendaritzak bere gain hartu duelako bultzatzailearen rola Eusko Jaurlaritzako beste sail eta zuzendaritza batzuk inplikatzerako orduan.

Garatu diren lan faseak honakoak izan dira:

| | |
|---|---|
| **Lehenengo fasea** | Planaren objektura lotutako informazio gaurkotua eta nabarmena duten dokumentuen sintesi lan batean errotua. ("Familien egoeraren diagnosia EAEn", "Familiei buruzko inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte gaietako Saila: 2010ko eguneratzea", "Euskadiko haur eta gazteen premiei eta beharrei buruzko azterlana: 2010", "Familiei laguntzeko erakunde arteko II Planaren tarteko ebaluazioa 2006-2008", "Familiei laguntzeko erakunde arteko II Planaren ebaluazioa 2009" ) |
| **Bigarren fasea** | Oinarrizko ildo estrategikoen eta ekonomikoen elaborazioan errotua. Hauek kontutan izan dituzte: eskari soziala, legealdiaren helburu estrategikoen uztarketa, haien lotura eskumenen esparruarekin, koordinazioaren beharra eta orientabide ekonomikoak. Lehen aipatu den bezala, fase hau EAEn taxututako familia politika batean inplikatutako eragile ezberdinen parte hartzearen eta ekarpenen bitartez burutu da, sistemaren identitatearen eraikuntzatik, bere egoeraren analisitik (ibilbidea, proiekzioak, e.a) eta helburuen definiziotik (etorkizuneko orientabide estrategikoen eraikuntza) abiatuz. Jasotako ekarpenak kontrastatzeko bilera kolektiboak eta kontraste indibidualak egin dira. Prozeduraren arabera, ildo estrategikoak Komunikaziorako Idazkaritza Nagusira igorri ziren Gobernuaren planifikazio orokorraren uztarketaren eta beronen eskumenen ahokadura juridikoaren txostena egiteko. |

| | |
|---|---|
| | Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzaren txostena eskatu zen. |
| **Hirugarren fasea** | Helburuen zehaztapenean errotua. Neurriak, jarduera ezberdinak, baliabideak eta berauen betearazpenaren arduradunak ezartzen dira elkarrizketa eta galdetegien bidez. Baita ere egiten dira beharrezkoak diren kontrasteak dagokien eragileekin, Planaren dokumentu final osoa osatzera ailegatu arte. |
| **Laugarren fasea** | Zerga koordinaziorako organoan entregatu beharreko txostenak egitera zuzentzen da. |
| **Bosgarren fasea** | Onespen akordioa Gobernu Kontseiluaren aldetik eta Parlamentura igortzea. |

Dokumentuaren estrukturazioari dagokionez, 2. atalean EAEn familiei laguntzeko politiken testuingurua aurkezten da. 3. atalean EAEn familien egoeraren diagnosiaren laburpen bat islatzen da. 4. atalak so egiten die Familiei laguntzeko II. Planaren ebaluaketetatik ateratzen diren alderdi nabarmenei. Eta bosgarren atalak batzen ditu III Planaren alderdi estrategikoak eta hedatzekoak (justifikazioa, identitatea, misioa, ikuspegia, baloreak, ildo estrategikoak, helburuak, neurriak, jabeak, aurrekontuko partidak).

Baita ere genero ikuspegia barneratzen da prozesuaren punturik zentralenetatik. Bertan barneratzen da adoptatutako politika familiarraren neurriak eta hizkuntza ez-diskriminatzailearen erabilerak gizonengan eta emakumeengan dituen eragin eta efektu ezberdinak aztertzen eta baloratzen dituen begirada.

# 2 Familia politikaren testuingurua EAEn

## 2.1 Familia ikuspegia

Familiei laguntzeko Abenduaren 12ko 13/2008 legearen arabera, "familia da bi pertsona edo gehiagok osaturiko bizikidetza-taldea, pertsona horiek ezkontzaz edo horren antzeko harreman batez loturik daudenean, edo elkarren artean guraso eta seme-alaba direnean edo beste edozein ahaidetasuna dutenean "[1]. Plan honek alor honi erantzuten dio eta familia politika zuzentzen du EAEn.

Familia modu jarraian bilakatzen den erakunde natural bat da. Errealitate kulturalek gizarteak aldatzen dituzte eta beraiekin bat, familien formak eta funtzioak. Horregatik, antolaketa sozialerako forma ugariek familien aniztasunarekin erlazioa daukate. Familia motak anitzak dira, baina guztiek dute helburu pertsonen arteko harreman primarioak laguntzea, errealizazio pertsonalak ahalbidetzea, bere kideak sozializatzea, dimentsio afektiboaren eta emozionalaren euskarri izatea, gizartean txertatzeko prestatzea eta portaera jarraibideak eta tradizioak transmititzea (beti ere pertsonen oinarrizko eskubideen aurka ez doazen neurrian). Familia eredu ezberdinek proiektu pertsonalak zein familia proiektuak garatu ditzakete, beti ere haien kideek proiektu hauek errespetutik eta onarpenetik abiatzen dituztela.

Haien funtzioen artean, hazkuntza, hezkuntza eta erlazio dimentsioa, euskarri ekonomikoa, soziala eta osasunerakoa aurkitzen dira. Hau dela eta, konexio zuzena dauka babes sozialeko sistemekin eta baliabide publikoekin, zerbitzu eta prestazioen sarbidearen bitartez. Zerbitzu hauek familiak edukiz hustu ez ezik, familiak laguntzen dituzte hauek egunero bere gain hartzen dituzten ardurekin.

Gaur egun familien funtzioak garatu ez ezik, baita ere garatu dira organizazio formak eta bere kideak: familia zabaletik pasatu da familia nuklearrera; ezkontideen arteko erlazioa sarriago ematen den ahaidetasun erlazioa da, haien protagonisten orientazio sexuala alde batera utzita; ondorengotza hautatzen da eta hautatu daiteke esperientzia

[1] Familiei Laguntzeko, abenduaren 12ko 13/2008 legea. 2. Artikulua.

hau ez bizitzea; sexuen araberako funtzioak aldatzen doaz, nahiz eta erantzunkidetasuna lortzeko oraindik ere bide luzea geratzen den; jatorri etniko eta kultural ezberdinetako familiak erlazionatzen dira, jatorri ezberdinetako pertsonez osatutako familiak eratzeaz gain; guraso bakarreko familia unitateak eratzen dira; proiektu pertsonalak sortzeko ahalmena eta protagonismoa pertsona helduen eta haurren eskuetan dago. Guztiak dira tratamendu bera jaso behar duten familiak, denetan kide guztienganako barne errespetua eta autonomia bilatu behar da eta gizartearen partetik kanpo errespetua zor zaie.

## 2.2 Familiak eta politika publikoak EAEn

Aurreko mendeko azken hamarkadetan emandako hainbat aldaketa sozialek (emakumearen emantzipazioa, bere laneratzea, erlazio afektibo-sexualen askapena, gutxiengoen eskubide zibilen zabalketa, …) eta bizitza sozialaren konplexutasunak ondorio batzuk eragin dituzte gaur nagusitzen den familia ereduan. Hartara, gaurko gizartearen puzzle konplexua osatzen duten familia eredu anitzak (nuklearra, guraso bakarrekoa, pertsona bakarrekoa, berriz eratutako kultura artekoak, homoparentalak, e.a) eman dira. Modu paraleloan, sozialki ezarritako funtzioak era autonomoan aurrera eramateko familiaren ahalmenaren garaia bukatu da. Gero eta gehiago existitzen dira sustapena eta laguntza behar dituzten familia sistemak.

Familia ereduak ugaritzeaz gain, aipatutako aldaketek jaiotze tasa baxuak bezalako ondorioak eragin dituzte mendebaldeko gizarteetan. Hauen artean Euskadiren kasua nabarmena da Europako azkeneko postuetan. Egoera honek gizartearen zahartzea eragin du.

Aspektu hauek eta beste askok erakunde publikoak behartzen dituzte familiei zuzendutako esku - hartzea berriro planteatzera. Eredu liberalean, estatuak esku – hartzen zuen krisialdi eta babes- ezeko egoeretan babesle bezala eta orain pasatu behar da eskubide subjektiboetako eredura. Honetan, administrazioek helburutzat dute ez bakarrik laguntza eta zerbitzu bitarteko laguntza, baizik eta familien sustapena, osaketa eta laguntza haien bizitzaren ziklo osoan zehar. Hauek guztiak, hezkuntza ekintzen bitartez, eta ez soilki arriskuan dagoen populazioari zuzendutako lehen mailako prebentzio ekintzen bitartez burutzen dituzte. Guzti honek bilatzen du,

populazioaren gaztetzea, familiak bere funtzioak betetzen jarraitzea, familia balore etiko eta demokratikoen transmisioaren giltzarria izatea gure gizartean eta familia indartzea bere funtzioetan eta baliabideetan.

Beraz, familia politika beste sistema sektorialak eta politika publikoak bustitzen dituen zeharkako politika bezala ulertzeak, ondorengo irizpideak dakartza:

- Familia mota ezberdinen bestelako erlazio formen onarpen soziala edo legitimazioa laguntzea hauen tratamendu berdina bermatuz.

- Bereziki gurasoen erlazio modutik eratortzen den eta umeak erasotu ditzaketen diskriminazio modu guztien aurka borrokatzea, haurtzaroaren eta gazteriaren babesa bermatuz familietan.

- Pertsonek haien familia proiektua hasteko eta nahi beste seme-alaba izateko dituzten zailtasunak gutxiestea edo mailaz maila deuseztea.

- Senitartekoen arteko errespetua, berdintasuna eta autonomia ezinbesteko baldintzatzat dituen familia eredua finkatzeko baldintzak sortzea, hauek errealizazio pertsonalerako eta profesionalerako aukera berdinak elkarbanatzen dituztelarik.

- Familia, lana eta norberaren arduren arteko uztarketa erraztea gizarteko eragileak erantzunkidetasun prozesu parte hartzaile batetan tartean sartuz.

- Familiaren esparruan, emakume eta gizonen arteko erantzunkidetasuna finkatzea, bereziki adin txikiko seme-alaben zaintzan eta hezkuntzan eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzan.

- Familien eta bere kideen bazterketa soziala prebenitzea orokorrean eta modu berezian arrisku handiagoa izan dezaketeen bizikide unitateen kasuan. Honako kasuetan bereziki zehazten dira: uztarketarako zailtasunak dituztenak, harrera gizartearekin ezberdintasun erlijiosoak eta kulturalak dituztenak, pertsonen oinarrizko eskubideekiko errespeturik ez daukaten sinesmen edo ohiturak, sozial sarerik edo familia sarerik ez daukatenak, drogen kontsumoa darabiltenak,

gaixotasun mentalak dituztenak edota bere kideentzat estres berezia suposatzen duten egoerak. Hau guzti hau epe luzera eman daitezkeen arazoak ekiditzeko inbertsio sozial bat bezala landu nahi da.

- Gizartea sentsibilizatzea familiaren rolaren inguruan eta bere babesa, sustapena eta laguntza bermatzearen beharraz.

Helburu hauek lortzeko, Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 legeak bere II titulua osatzen duten bost kapituluetan aurreratzen ditu jarduera eremuaren arabera, familiak laguntzeko taxutu beharreko neurriak eta laguntza zerbitzuak: seme-alabak ardurapean dituzten familientzako laguntzak; norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko laguntza ekonomikoak; familiei zuzendutako laguntzak eremu administratibo ezberdinetan; zerga neurriak eta sentsibilizazio sozialerako neurriak.

III tituluak eskumenen banaketa ezartzen du. Eusko Jaurlaritzari euskal familia politikaren eskumenen parte bat egokitzen zaio. Hartara, Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, legegintza-ekimenean jarduteko eta araudiak egiteko ahala du, baina, horretaz gainera, berari dagozkio ere planifikazioa, koordinazioa, familia arazoen arrazoien ikerketa eta ekintza zuzenekotzat jotzen diren zerbitzuen kudeaketa. Era berean dagozkio, seme-alabak ardurapean dituzten familiak laguntzeko laguntza ekonomikoen arautzea eta kudeaketa eta norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko neurriak.

Martxoaren 22ko 42/2011 dekretuaren arabera, Enplegu eta Gizarte gaietako sailaren[2] estruktura organikoa eta funtzionala ezartzen da eta bere barnean Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate zuzendaritzak bere egiten ditu eta erantzuna ematen die funtzio hauei nahiz eta bestelako sailei ere politika publikoen eraketa dagokien euskal familien behar eta egoerari buruz ari garenean, familiei laguntzeko 13/2008 legeak ezartzen duenaren arabera. Beste batzuen artean aipatu behar dira honako dokumentuetan agertzen diren zehaztapenak: Osasun eta kontsumo sailak 2010eko uztailean burututako "Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko

[2] 4/2009 DEKRETUA, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

estrategiak",“Genero Indarkeriaren Kontrako Lehen Jarduera Plana – Jarduera ildo estrategikoak", 2010eko urriko “Etxebizitzaren aldeko itun soziala", “Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea 2010-2013- oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak" eta Emakunderen 2010eko “Jarraibideak IX. Legegintzaldia. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako V. Plana". Baita ere aipatu behar dira Kultura Saileko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa zuzendaritzak eta Etxebizitza, Herri lan eta garraioetako Saila beste batzuen artean. Edozein kasutan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko eraketa politiko administratibo berezia dela eta, familia politikaren neurri esanguratsuen parte handi baten eskuduntzak udalei eta foru aldundiei dagozkie. Esandakoaren erakusle argiak dira neurri fiskalak, foru ogasunen eskuduntza eta gizarte zerbitzuen kudeaketa, udalen zein foru aldundien eskuetan. Guzti honi erantzuten dio legearen III Tituluak.

Azkenik, IV Tituluak erakunde antolaketa garatzen du, Familien euskal Kontseilua aurkezten du administrazio publikoen eta eragile sozialen arteko kontsultarako eta kolaboraziorako organo bezala. Baita ere Familien behatokia aurkezten du, familia mota ezberdinen errealitatea eta legearen arabera garatzen diren politiken eragina aztertzeko tresna bezala.

Nahiz eta euskal familia politikaren gaur egungo erreferentea aipatutako legea izan, puntu honetara ailegatuta, aipatu behar da euskal familiak laguntzeko, babesteko eta sustatzeko hainbat neurri garatzen zirela era ordenatuan eta planifikatuan legea izan baino lehen. 2001. urtean Gobernu Kontseiluak seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko I.go plana onartu zuen “lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko politikei ekiteko premiari —geroz eta premia larriagori— aurre egiteko". Hau amaitzen denean 2005ean, 2010erarte indarrean dagoen Familiei laguntzeko Erakunde arteko II Plana eratzen da eta honek suposatzen du; I.go Planean zehaztutako ildoen finkapena, bertan barneratutako neurrien zabalkuntza eta zenbait neurri berrien barneraketa. Urteetan zehar baita ere laguntzen politikan aurrerapenak egitea baimendu duen arau bidezko garapena eraman da aurrera: 109/2006 dekretua, maiatzaren 30ekoa, lehen seme edo alaba jaiotzeagatiko edo adoptatzeagatiko diru-laguntza arautzen duena; 255/2006 dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena; 118/2007 dekretua, uztailaren 17koa

eta 177/2010 dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoak.; 309/2010 dekretua, azaroaren 23koa, Familien Euskal Behatokia sortu eta arautzen duena. Hauei gehitzen zaizkie beste zerbitzu batzuen arautzea; familia elkarguneak eta bitartekotza zentroak beste batzuen artean. Hauek nahiz eta Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritzaren ardurapean ez egon, familiei laguntzeko politikaren ekarpen esanguratsuak dira Gizarte –zerbitzuen euskal sistema eta bere zerbitzu mapa eta zorroa finkatzerako orduan.

Gainera, orain arte esandakoarekin bat datozen eta indarrean dauden beste legezko xedapen batzuei erreferentzia egin behar zaie. Estatuaren eremuan, Autonomia pertsonalaren sustapenerako eta menpeko pertsonei zuzenduriko arretarako 37/2006 legea. Euskal autonomia erkidegoan Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko, otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, balore bezala ulertzen du familia dela pertsona, bizitza sozialerako eta komunitariorako prestatzeko eta txertatzeko espazio pribilegiatua eta baita ere garrantzitsua dela pertsonalitatearen garapenerako. Baita ere ulertzen du familiaren esparruan garatzen direla pertsonaren oinarrizko erlazioak. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legeak azpimarratzen ditu modu nabarian eta baloratzen ditu maila berdinean, gizarte erantzunkide bat eraikitzeko “lan” produktiboak eta etxeko lanak, ezinbestekoak direlako kolektibo bezala bizirik irauteko. Lege honen bilakaera bezala, lehenago aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako V. Planak garatzen dituen hiru ildoetako bat antolaketa sozial erantzunkidera dedikatuta dago eta bertan txertatzen dira familiei laguntzeko planetik hurbilen dauden helburuak, ildoak, programak eta neurriak (berdinak direlako, osagarriak direlako edota potentzialak direlako). Ahaztu gabe halabeharrezko erreferentziak otsailaren 8ko Familia Bitartekaritzako 1/2008 legeari eta Gizarte Zerbitzuei buruzko, abenduaren 5eko legeari.

Azkenik, baina garrantzi berdinarekin, euskal gizarteak hurrengo urteetan aurrean dituen erronken eremuan eta “EcoEuskadi 2020, Euskadiko Garapen Jasangarriko estrategia”-n deskribatzen den bezala, ikuspuntu holistikotik abiatuta, jasangarritasun sozialaren esparruan erronka garrantzitsua existitzen da politika publikoetan: aldaketa demografikoa. Aldaketa honek suposatzen du azken batean, jaiotze tasen beherapen nabaria eta era berean, berarekin dakarren biztanleriaren zahartzea eta menpekotasun

egoeren hazkundea, biztanleria aktiboaren portzentaia jeisten delako eta inmigrazioak ez diolako aurre egiten bere kopuruekin.

Etika sozialetik hareago joanda, bateratze zenbakien hazkundeak beste neurri batzuekin batera, lagunduko lukete gaur egun ordezkatze indizeetatik hain urrun dauden jaiotze tasak hobetzera. Jaiotze tasen jeistea, gizartearen zahartzearekin batera, gaur egun daukagun ongizatearen estatuan eragin handia suposatzen dute. Azkeneko boladan bizi dugun krisiak hau guztia larriagotzen du.

Zentzu honetan, Familia Planak eta bere ikuspegiak bat egin nahi dute jasangarritasun sozialaren estrategiarekin.

## 2.3 Europar Batasuna: joerak eta eremu arauemailea.

Erronka demografikoetara dedikatutako 2005eko martxoaren Liburu Berdearekin, Europar Batzordeak belaunaldien artean elkartasuna indartzeko premiaren inguruko eztabaida ireki zuen. 2006ko urriaren 12ko Europaren etorkizun demografikoaren inguruko Komunikazioan, Batzordeak adierazi zuen Europar Batasuneko kideek berriztapen demografikoa lagundu behar zutela. Bere ekintzak berriztutako Lisboako Estrategian barneratu behar zituztela, hazkundearen eta enpleguaren eta emakume eta gizonen arteko berdintasun politikaren jarraipena egiteko. Familia bizitzako baldintzak hobetu ezkero norberaren bizitza eta bizitza profesionalaren uztarketaren bitartez, estatu kideak, europar hiritarrak lagundu zitzaketen seme – alabak izateko desioan. Europar araudiaren barnean garrantzitsua da hurrengo gomendioak azpimarratzea: Guraso izatearen ariketa positiboaren inguruko 2006ko Europar Kontseiluaren gomendioa, Europako Kontseiluaren ministroen batzordeak estatu kideei egiten dien guraso izatearen ariketa positiboaren laguntzarako politiken inguruko gomendioa (Rec 2006 19) eta 2006ko abenduaren 13ko Ministro batzordeak hartutako Gomendioa ministroen ordezkarien 983. bileran.

Europar behaketarako tresnek batutako informazioaren inguruan, aipatu behar da Europar Batasuneko herrialdeetako familiei laguntzeko politika ezberdinek, gaur egun 3 dimentsio nagusi barneratzen dituztela:

- familiarekin erlazionatutako kostu zuzenen zein zeharkakoen ordaina (umeen edo mendeko pertsonen ardura izateagatik abantaila fiskalak edo prestazioak);
- gurasoak laguntzeko zerbitzuak ume txikiak hezteko eta zaintzeko, lehenengo haurtzaroaren ondorengo haurtzaindegientzako laguntzak eta gero eta gehiago, zahartze prozesuan dagoen gizarte batean, mendeko pertsonentzako zerbitzuak;
- lanaren eta enpleguaren arteko egokitzapena eta tokiko zerbitzuen sarbiderako antolaketa.

Hiru dimentsio horiek modu oso desberdinean garatzen dira estatu kideen arabera. Hala eta guztiz ere, garapen maila bete-betean dagoen testuinguru soziala eta kulturala kontutan hartuta, esan genezake estatu kideek haien familia politiken moldaketa hasi dutela hiru norabideetan:

- Gaur egun, familia politikak familiaren egoeraren osotasunean eragina duten jarduera publikoen multzoan barneratzen dira; hau egia da batez ere honakoetan: hezkuntza politiketan, gazteen txertaketa sozialean eta profesionalean, enpleguan, etxebizitzan, garraioetan, osasunean eta noski baita ere senitartekoen arteko bete beharrak arautzen dituen eta indarrean dagoen zuzenbide zibilari dagokienean.
- Esku – hartze modalitateak zentzu hauetan bilakatzen ari dira: jardueren aplikazioaren deszentralizazioa, eskubideen eta prestazioen indibidualizazioa eta gastuen bizkortze lana are gehiago sustatzeko eta pobrezia egoeretatik irteera iraunkor bat bermatzeko. Bilakaera hau, batez ere egoera familiarretik eratortzen diren eskubideak zalantzan jartzerakoan eta babes sozialeko sistemetan eskubide indibidualak sustatzerakoan zehazten da. Azken hauek aldi berean egokitzen dira emakumeak ez zigortzeko, bere ekintza profesionaleko indizea baxua izaten baitzen eta horrela ere adineko emakumeek jasaten duten pobrezia egoeren areagotzea ekiditzeko.
- Azkenik, familia politikek gero eta gehiago hartzen dituzte kontutan gizartean emakumeen eta gizonen funtzioak afektatzen dituzten praktiken eta asmoen garapena. Zentzu honetan, emakume eta gizonen arteko berdintasuna

emakumeen autonomia ekonomikoak lagunduko luke, hau da: emakumearen parte – hartze handiagoa enpleguan eta gizonaren parte – hartze geroz eta handiagoa familia eta etxe arduretan.

Familia politikak estatu kideen eskuduntza esklusiboaren menpe daude. Dena dela, Europar Batasuna bereziki arduratuta agertu da bere politiken ondorioez bai familia loturetan zein senitartekoen bizitza kalitatean. Denbora asko da Zuzenbide komunitarioak kontutan dituela familia bizitzaren betebeharrak eta bere eskubideak. Pertsonen (langile edo ez) joan-etorri askearen aplikazioan Europan, Zuzenbide komunitarioak sortu ditu batetik, segurtasun sozialeko araudien[3] (familia prestazioak barneratzen dituztenak) koordinazioa eta bestetik, Europar Batasunaren barnean lan egiten duten pertsonen familia berrelkartzea, hirugarren herrialdeetako etorkinak barne, bere ezkontide eta seme alabentzat ere eskubideak barneratuz[4].

Enplegurako sarbidean aukera berdintasuna bermatzeko helburuarekin, familia bizitza, norberaren bizitza eta bizitza profesionalaren arteko uztarketa, europar enplegu politiken oinarrizko ardatza bihurtu da.  Ondare komunitarioa 1992etik aurrera aberastu zen haurdun emakumea babesteko eta amatasun baja ezartzeko lege esparruarekin[5]. Era berean, europar elkarrizketa sozialaren emaitza goiztiarrenetarikoa guraso baimenaren ingurukoa[6] izan da. Emakumearen independentzia ekonomikorako eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako ezinbesteko uztarketa honen

[3] Europako Batzordearen komunikazioa «Langileen zirkulazio askea" – Bere abantailen eta aukeren egikaritze osoa, COM(2002) 694.

[4] Familia berrelkartzeko eskubidearen inguruko Batzordearen 2003/86/CE zuzentaraua.  Europar Batasuneko hiritarrak zein haien senitartekoak, kide Estatuen lurraldean modu askean zirkulatzeko eta bizitzeko eskubidearen inguruko Batzordearen 2004/38/CE zuzentaraua.

[5] Haurdun dagoen, erditu duen edo edoskitze sasoian dagoen langilearen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko neurrien aplikazioaren inguruko 1992ko urriaren 19ko Batzordearen 92/85/CEE zuzentaraua (89/391/CEE zuzentarauaren lehenengo kapituluaren 16. artikuluari dagokion hamargarren zuzentarau espezifikoa).

[6] USINESSEUROPE-k, UEAPME-k, CEEP-ek eta CES-ek guraso baimenaren inguruan burututako esparru akordio berrikusiari aplikatzen zaio 2010eko matxoaren 8ko Batzordearen 2010/18/UE zuzentaraua eta indargabetzen da 96/34/CE[6] zuzentaraua ( Testu egokia EEE-aren helburuetarako).

garrantzia gaur, Komisioaren Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren 2006 – 2010 lan Planean zein 2006ko Genero berdintasunaren Europar Paktuan gauzatzen da.

## 2.4 Begirada bat Europar batasuneko herri multzoari.

Erakundeen esparruari dagokionez, familia ministeritza kopuru handiago baten sorketa zein familia ugariei zuzendutako laguntzen handitzea dira oinarrizko bi gaiak. Baita ere ulertzen da, haien garrantzia kontutan hartuta, familia politikak nahitaez zeharkakoak izan behar direla. Zeharkakotasun hori beste politika guztien elementu nagusi eta ezinbesteko bezala ezarri behar da.

Familia politikari dagokionez, gaur egun Europan ematen diren komuneko joeren artean honakoak aurkitu daitezke:

- Familia politiken zabalketa eta handitzea.
- Neurrizko ahokadurak familia prestazioetan.
- Familia politika, familia eta lan uztarketa zein jaiotze tasa handiagoen lorpena afektatzen duen hedadura handiko politika bezala ikusten da.
- Onura fiskalei edo esku-dirukoei dagozkien gai garrantzitsuenak gurasotasun eta aitatasun bajen luzapenen ingurukoak dira.
- Kontrol fiskala duten familia prestazioen handitzearen garrantzia.
- Gizonen mobilizazioa guraso aktibo bezala.
- Familia bizitza eta lanaren arteko uztarketari arreta masiboa.
- Haurren zainketarako zerbitzuen kalitatea (bide berria Europako iparraldeko herrietan).
- Familia ugariak laguntzeko baliabide legalak.
- Haurtzaroaren eskubideak eta bere ongizatea familia politikaren agendako gai nagusi bezala.

- Familia definizio berriak, bere estrukturak, aniztasuna, bizitza forma berrien legalizazioa …

- Paradigma aldaketa "re-familiarizaziotik" abiatuta (rol tradizionaletik abiatutako familia antolaketa) mobilizazio femeninoko ereduetara, non rolen eta arduren malgutasuna sustatzen da familien barnean.

- Aurreratuen dauden herriak gogoa jartzen dute hezkuntza goiztiarrean, familia bizitza eta lan bizitzaren arteko orekan, ordutegi malguak barneratuz.

- Orokorrean ematen du hegoaldeko eta iparraldeko herrien arteko konbergentzia ematen dela "de-familiarizazioan". Honek suposatzen du familien rol zentralaren eta ia bakarraren murrizketa belaunaldi berrien sozializazio bide bezala.

Amaitzeko, nahiz eta aurreko kasuen eritziekin bat datozen aspektuak identifikatu, Europan aurkitzen diren ongizatearen Estatu eredu ezberdinetara lotutako familia politika ezberdinak aurkitu daitezke:

- Europako Iparraldekoa: ezkerreko gobernuek eragina dute, genero berdintasunean oinarritzen da, emakumearen integrazioa eta uztartzea lan merkatuan "de-familiarizazio" politiken bitartez. Arreta berezia jartzen da haurtzaroaren ongizatean. Familia prestazioak zerga bidez finantzatzen dira. Gizarte zibilaren eta gobernuaren arteko kooperazioa oso indartsua da.

- Kontinentala: ordezkatze printzipioak indar handia du. Familia politikak familiaburu kontzeptuaren nagusitasuna du ezaugarri. Umeek eta emakumeek familia eta ezkontza erlazioen dependentzia handia daukate. Familia prestazioak modu mistoan finantzatzen dira kontribuzioen eta zergen bitartez. Gizarte zibiliak rol handia dauka politiken ezarketan.

- Mediterraneoko herriak: sistema kontinentalaren berdintsua da non gizona familia burua da eta emakumea zaintzailea. Estatuak bakarrik laguntzen du intentsitate gutxirekin baliabide hauek amaitzen direnean. Hirugarren sektorearekin erlazioa ahula da eta finantziazioak zentzu honetan ez dira

nahikoak. Gizarte erakundeek ez dute presentzia handirik laguntza politiken aurkezpenean.

- Post-sozialista: Bere ongizate sistemak, aurreko estrukturazioei erantzunez, enpleguan jartzen du arreta. SESB–eko herrialde ohi guztiek "de-familiarizazio" ibilbidea daramate eta era berean familiarizazio tradizionaleko erregimenak barneratzen saiatu dira. Konstituzio batzuek espresuki familiaren babesa aipatzen dute. Familia zabalaren betebeharrak oso garrantzitsuak dira Estatuarenak ahulak diren bitartean. Ez dira existitzen familia politika esplizituak edo koherenteak. Laguntza familiar guztiak erizpide fiskalen araberakoak dira eta ez dira nahikoak. Hirugarren sektorearen kooperazioak iragan komunistaren eragina du eta Eliza katolikoak bere posizioa hobetu du kolapso komunistaren ondoren.

## 2.5 Egoerak mugatutako begirada.

Azkenik, garrantzitsua da aipatzea Europar Batasuneko herrialdeen testuingurua dela EAEko familia politika garatzeko erreferentzia, eta egia bada ere herri horietako batzuek momentu hauetan neurriko ahokadurak aurrera eramaten ari direla, kontutan hartu behar da herri horietan lortutako maila gaur egun EAEn dagoena baino altuagoa dela.

Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 legearen esparruak eta bere zehaztapenak Euskal erkidego autonomoko familiei laguntzeko III Planean, kokapen zabalagoa behar du bere testuinguruan. Batetik, II Planaren ebaluazioa, norabide berriak ezartzeko ezinbesteko erreferentzia; bestalde, familiak EAEn gaur egun bizi dituzten egoera zehatzak. Biak dira Planaren hurrengo kapituluetan aurkezten diren aspektuak. Gainera, III Plana diseinatzeko momentu honetan bizi den krisialdi ekonomiko sakoneko egoera ekonomikoak, bai honen etorkizuna eta norainokoak zein hurrengo urteetarako diseinatutako beste politika publikoak baldintzatzen ditu. Egoera honek, familiei laguntzeko politiken dimentsio eta irismen zuhur eta errealista bat eskatzen du. Honek ezin du familia politiken aldeko apustu estrategikoaren sakrifizioa edo gutxiestea suposatu.

# 3 Familien errealitatea EAEn: egoeraren diagnosia.

Familiei laguntzeko abenduaren 12 13/2008legeak, bere zioen azalpenean, azaltzen du familia dela errealitate kultural, plural, konplexua eta aldi baterakoa. Ereduen aniztasunetik eta hauen bilakaeratik abiatuta, giza taldeek historian zehar haien buruak antolatzeko izan duten erantzun bezala ulertzen ditu.Belaunaldien arteko solidaritate eragile nagusi bezala aitortzen du familia. Baita ere aitortzen ditu familiaren rola baloreen transmisioan eta senitarteko guztien garapen pertsonala aurrera eramaterakoan. Kontutan hartzen ditu azkeneko mendean bizi izan dituen eraldaketak, haien artean: espezializazio funtzionala, familia nuklearraren zabalketa, ezkontide erlazioaren nagusitasuna eta senitartekoen kopuruaren murrizketa.

Testuinguru honetan, Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 legea, politika publikoen eta familiek bizi dituzten aldaketa kulturalen arteko bitartekari batetan eta baita ere familien aldeko tresnak ordenatzeko eta hobetzeko baliabidean bihurtzen da. Berau zehazteko eta kudeatzeko, Familiei laguntzeko erakunde arteko Planak egitearen aldeko apustua egiten da (13/2008ko legea baino lehen). Plan hauetan, esparru arauemailean inplementatu beharreko neurrien azalpena baino lehen honakoak azaltzen dira: azken aldian eman den familien bilakaera, familiek bizi duten egoera demografikoa, sozio-ekonomikoa eta estrukturala. Hauek guztiek, bai erantzun beharreko errealitatea zein erakunde arteko politika publikoak garatutako espazioaren errealitatea osatzen dute.

Jarraian, familien egoeraren eta bilkaeraren alderdirik nabarmenenak azaltzen dira. Hauetatik abiatuz, geroago definituko dira Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008ko legearen esparruan, Familiei laguntzeko erakunde arteko III Planaren lehentasunak eta enfasiak. Lehenengo eta behin, EAEko familien ezaugarri demografikoak aurkitzen dira. Bigarrenez, egoera sozio-ekonomikoa. Geroago aurkezten dira EAEn existitzen diren familia sistemen ezaugarriak. Azkenik, laugarren atalean aztertzen dira familiaren funtzio nagusiak hazkuntzari, zaintzari eta baloreei so eginez.

## 3.1 Familien errealitate demografikoa EAEn

Jarraian aurkezten diren joera demografikoak, nahiz eta oraingo errealitatearen isla izan, aurretiaz EAEn egindako diagnosiekin eta familien bilakaeraren azterketetan identifikatutakoekin bat datoz. Beraz, ez dira sortu berri diren egoeren edo fenomenoen ondorioetatik eratorritako egoera berriak edo ustekabeak. I.go eta II. Planak baldintzatu dituzte eta Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 legearen ikuspegiari dagokionez, EAEko gizartearen errealitate demografikoa modu egonkorrean eratu dute.

### Ezkontza-tasaren beherakada

1975ean, EAEko ezkontza-tasa 8,4koa zen 1.000 biztanleko; eta, 2009an, 3,7koa[7]. Ezkontza-tasak behera egin du, euskal gizartea sekularizatu egin delako. Horrez gain, ezkontza kanonikoak berak ere garrantzia galdu du. 2000. urtea baino lehen, ezkontza kanonikoa nagusi bazen ere, mende berrian gero eta ohikoagoa da zibila, 2009an EAEn egindako ezkontza guztietatik %62,3 ezkontza zibilak direlako[8].

Bestetik, ezkontza-tasa ere jaitsi egin da, 1980. urteaz geroztik gero eta adin handiagoaz ezkontzen delako jendea. Prozesu horrek, gainera, bi sexuetan du eragina. 2008an, gizonen batez besteko ezkontza-adina 34,8koa da, hau da, 1980ko datuen aldean (26,6 urte) ia-ia 8 urte geroago ezkontzen dira. Emakumeen batez besteko ezkontza-adina, ordea, 9,3 urte luzatu da 1980koaren aldean. Beraz, lehen 23 urte zituztela ezkontzen baziren ere, 32,3 urte dauzkatela ezkontzen dira orain[9].

Era berean, mende berrian ezkontza-tasaren beherakada handia ere izan da, dibortzio, banaketen eta deuseztapenen gorakada ere oso deigarria izan delako. 1998tik 2000ra arteko kopurua 4.000-4.100ekoa izan ondoren –epealdi horretan erregistratutako ezkontza guztien %39,8 eta %38,9-, mendeko lehen urteetan fenomeno demografiko

---

7 Estatistikako Institutu Nazionala (INE). Oinarrizko adierazle demografikoak. Ezkontzen Estatistika. 2009ko behin-behineko datuak.

8 Estatistikako Institutu Nazionala (INE). Biztanleen Mugimendu Naturala. Ezkontzak. 2009ko behin-behineko datuak.

9 EUSTAT. Ezkontzen Estatistika.

horien pisua handitu egin zen, eta kopurua 5.742raino iritsi zen 2006an –ezkontza guztien %58,7[10]-. Badirudi moteldura ekonomikoak eta krisiak ere eragina dutela joera horretan, baina euren norabidea aldatzen dute, 2009an dibortzio, banaketa eta ezkontza-deuseztapenen kopurua murriztu eta 4.161era jaisten delako –ezkontza guztien %47,6-[11].

Ezkontza-tasen jaitsiera eta banaketen gehikuntza handia bakarrik kontuan hartuz gero, pentsa liteke EAEko familia krisian dagoela. Nolanahi ere, sekularizazio-prozesuaren baldintzapean elkarbizitza-eredu berriak agertzen direla hartu behar da kontuan; bizikidetzak, esaterako.

Ezkontza-tasaren bilakaeran, oso deigarria da bizikidetzako errealitateak aldi berean igotzea, hau da, bikoteek ezkondu aurretik elkarrekin bizitzeko joera dute edo ezkontzaren alternatibatzat ere jotzen dute. 2002tik 2006ra, bizikidetzen kopurua %112,8 igo da urtean, batez beste. Guztira, bizikidetzen kopurua 1986ko 4.500etik 25.000ra igo da 2002an; eta, 45.200era, 2006an, hau da, bikotean edo ezkontzan oinarritutako elkarbizitza-eredu guztien %8,6[12].

Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkestatik aurrera bilakaera horri erreparatzen jarraituz gero[13], gehikuntzak bere horretan dirau, harik eta 2008an elkarrekin bizi diren 51.536 bikote egon arte. Beraz, bikote guztien %9,4 bizi dira horrela. Krisiaren ondorioz, ordea, elkarrekin bizi diren bikoteen kopurua 47.590era jaisten da 2009an, bikote guztien %8,6, alegia[14]. Bizikidetzaren eragina handiagoa da

---

[10] Ehunekoa kalkulatzeko, erreferentziako urtean gertatutako dibortzio, banaketa eta deuseztapenen kopurua alderatu behar da erreferentziako urte horretan bertan egindako ezkontzen kopuruarekin. Ikusten denez, izendatzailea nabarmen jaisten denean (egindako ezkontzen kopurua), termino absolutuetan 1.642koa den ezkontzen gehikuntza are deigarriagoa da portzentajezko terminoetan.

[11] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera, 2010, 308. or. Iturria: EUSTAT. Inkesta demografikoa.

[12] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: EUSTAT. Inkesta demografikoa.

[13] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS). 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena

[14] Ibidem.

seme-alabarik ez dagoenean –bikote guztien %14,9, 2009an- seme-alabak daudenean baino –%5,8-[15].

## Jaiotza-tasaren krisia

Joan den mendeko 70eko hamarkadaren erdialdean, emakumeko seme-alaben kopurua 2,8 ingurukoa zen EAEn. Harrezkero, beherakada erabatekoa eta etengabea izan zen, eta, 90eko hamarkadaren erdialdean, seme-alaba batetik beherakoa da emakumeko kopurua (0,91 1994an eta 1995ean)[16]. Orduz geroztik, adierazle horrek gora egin du, baina apur bat baino ez, eta 2009an ez da 1,34tik gorakoa izan. Urte horretako 10.000 biztanleko jaiotzen kopurua 9,91koa da –1975ean baino 10 puntu gutxiagokoa-[17].

Horrez gain, euskal emakumeen batez besteko amatasun-adina 4 inguru urtean luzatu denez, 2008an[18] 32,18 urtekoa da, 1975ean 28 urtekoa zenean. Inolako zalantzarik gabe, EAEn adin emankorrean dagoen emakumeak dauzkan seme-alaben batez besteko kopuruan ere badu eraginik.

Interesgarria da emakumeen ezkontza-adina eta euren seme-alabak jaiotzeko unea erkatzea. Izan ere, 1975etik 1980ra ezkontzen zirenetik lehen semea edo alaba eduki arte batez beste lau urte igarotzen baziren, 2008an alde hori nekez antzematen da, eta ezkontza-adina ia-ia bat dator emakumeek lehen ondorengoa duteneko adinarekin. Beharbada, egoera horretan eragin handia eduki dezake gero eta ohikoagoa den bizikidetzak.

Emankortasun-mailetan antzemandako murrizketaren zati batek gizarte-ohituren sekularizazioarekin lotutako aldaketa kulturalekin du zerikusia. Balio erlijiosoen

---

[15] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana.

[16] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS). 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena.

[17] Estatistikako Institutu Nazionala (INE). Oinarrizko adierazle demografikoak. 2009rako behin-behineko datuak.

[18] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS). 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena.

garrantzia galtzean, ezkontzari zein dibortzioari eta jaiotza-tasaren dinamikari buruzko arau moral tradizionalak jarri dira kolokan.

Edonola ere, kontuan hartu beharra dago 2008an euskal familien %3,5en[19] esanetan ez dutela nahi izandako ondorengorik diru-sarrera nahikorik ez dutelako edo lan-arloko zailtasunak dituztelako. Horrela, bada, neurri batean, behintzat, oraindik ere euskal biztanleek ez daukate nahi beste seme-alaba. Alde horretatik, nabarmendu egin behar da euren ustez seme-alaben kopuru egokia 2,27koa dela 30 urtetik beherakoen artean, eta, adin-talde horretan, ondorengorik eduki nahi ez dutenen proportzioa %1ekoa da; eta %2koa, 30 urtetik gorakoen artean.

Dena dela, inolako zalantzarik gabe, kontuan hartu beharra dago nolako eragina duen biztanle gazteen ezegonkortasun ekonomiko diferentzialak –langabezia, soldaten ezegonkortasuna eta eskuragarri dagoen lanaren kalitate eskasa-, egiturazko krisi demografikoaren oinarrian dauden faktoreetakoa da-eta. Esate baterako, nabarmendu egin behar da emankortasun-adierazleetako minimo historikoak 1993tik 1997ra eman zirela. Epealdi horretan, hain zuzen ere, langabeziak eta aldibaterakotasunak oso-oso eragin handia izan zuten biztanle gazteenen artean, 40 urtetik beherako biztanleen erdiak baino gehiago (%55) bi fenomeno horietako baten eraginpean egon zirelako. Krisialdietan biztanle gazteak kaltetuenak direla (soldata ezegonkorrak, okupazioaren beherakada...) eta egoera horrek bizitza independentea garatzeko aukeretan eragina duela kontuan hartuta, ez da zaila ulertzea nolako lotunea dagoen gazteen egoera ezegonkorraren eta jaiotza-tasaren jaitsieraren artean.

### Biztanleen zahartzapena

Azaldutako dinamika demografikoaz gain, euskal biztanleak zahartzen ari dela hartu behar da kontuan, eragin handia izan duelako EAEko familia-egituraren eraldaketan.

Batetik, adinekoen pisu absolutua eta erlatiboa handitu da. 1975ean, biztanleen %8,3 65 urtetik gorakoak baziren, 2010ean biztanleen %19,2 daude adin-tarte horretan. Gainera, adinekoen barne-zahartzapena ere gertatu da. Horrela, bada, 75 urtetik gorako

[19] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2008ko Familiei buruzko Inkesta, 160. or.

biztanleen proportzioa adineko guztien %32,8koa zen 1975ean; eta, 2010ean, %52koa. Era berean, 85 urtetik gorako biztanleen proportzioa %5,1etik %13ra igo da epealdi berean[20].

Bestetik, jaiotza-tasak behera egitean, 35 urtetik beherako biztanleen kopurua gutxitu da. 2010ean, 1975ean 15 urtetik beherako neska-mutilen artean zegoen kopuruaren %49,8 baino ez dago EAEn (2010eko 287.714, 1975eko 578.265en aldean).

15 eta 34 urte arteko biztanleak kontuan hartzean, bilakaera ere negatiboa da, eta, 2010ean, 1975ean baino %19,8 gutxiago dira (2010eko 509.551, 1975eko 635.606ren aldean)[21]. Azken batean, 0-35 urteko biztanleak biztanle guztien %35,7 dira gaur egun[22].

### Immigrazioaren gorakada

80ko hamarkadaren erdialdean, etorkin atzerritarren taldea bazterrekoa zen ikuspegi kuantitatiboari begira, biztanle guztien %0,2 baino ez zirelako. 1999. urtetik aurrera, ordea, **etorkin atzerritarren kopurua handitzen** hasi zen benetan, eta, 2010ean, 139.229 lagun daude, EAEko biztanleen %6,4, alegia[23]. Jazoera hau, beste parametro kultural batzuk, tradizio anitzak (bere barne antolaketari dagokionez, bere ikusgarritasunari dagokionez, espazio publikoetan erlazionatzeko moduei dagokionez, e.a) dituzten familietan islatzen hasi da eta honek aberastasuna dakarkio euskal gizarteari. Jarraian aurkezten dira etorkinen kolektibo nagusien inguruko azkeneko datuak sexuaren arabera banatuta.

---

[20] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Biztanle eta Etxebizitzen Errolda, EUSTAT, INE, EPDS, 1996tik 2008ra, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena. INE.

[21] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana.

[22] Estatistikako Institutu Nazionala (INE). Gaur egungo biztanleen inguruko zenbatespenak, 2010eko urriaren 1ean, Biztanle eta Etxebizitzen Errolda kontuan hartuta.

[23] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Biztanle eta Etxebizitzen Errolda, EUSTAT, INE, EPDS, 1996tik 2008ra, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena. INE.

**Orokorra (EAEn), nazionalitatearen eta sexuaren arabera, 2011 urtea**

| | Totala | | Gizona | | Emakumea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | N | % | N | % | N | % |
| **Atzerritarren totala** | **144.551** | **100** | **74.322** | **51,4** | **70.229** | **48,6** |
| Errumania | 16.220 | 11,2 | 8.336 | 51,4 | 7.864 | 48,6 |
| Maroko | 15.679 | 10,8 | 10.363 | 66,2 | 5.296 | 33,8 |
| Kolonbia | 12.099 | 8,4 | 5.295 | 43,8 | 6.804 | 56,2 |
| Bolivia | 11.778 | 8,1 | 4.630 | 39,3 | 7.148 | 60,7 |
| Portugal | 8.674 | 6,0 | 5.6g4 | 65,6 | 2.980 | 34,4 |
| Ekuador | 6.675 | 4,6 | 3.160 | 47,3 | 3.515 | 52,7 |
| Brasil | 5.736 | 4,0 | 1.843 | 32,1 | 3.893 | 67,9 |
| Aljeria | 5.421 | 3,8 | 3.475 | 64,1 | 1.946 | 35,9 |
| Paraguai | 5.146 | 3,6 | 1.449 | 28,2 | 3.697 | 71,8 |
| Txina | 4.746 | 3,3 | 2.561 | 54,0 | 2.185 | 46,0 |
| Peru | 3.350 | 2,3 | 1.571 | 46,9 | 1.779 | 53,1 |
| Nikaragua | 2.985 | 2,1 | 608 | 20,4 | 2.311 | 79,6 |
| Senegal | 2.946 | 2,0 | 2.538 | 86,2 | 408 | 13,8 |
| Pakistan | 2.933 | 2,0 | 2.486 | 84,8 | 447 | 15,2 |
| Argentina | 2.872 | 2,0 | 1.414 | 49,2 | 1.458 | 50,8 |
| Italia | 2.328 | 1,6 | 1.408 | 60,5 | 920 | 39,5 |
| Frantzia | 2.196 | 1,5 | 1.158 | 52,7 | 1.038 | 47,3 |
| Venezuela | 2.043 | 1,4 | 878 | 43,0 | 1.165 | 57,0 |
| Dominikar Errepublika | 1.962 | 1,4 | 763 | 38,9 | 1.199 | 61,1 |
| Kuba | 1.911 | 1,3 | 715 | 37,4 | 1.196 | 62,6 |
| Nigeria | 1.752 | 1,2 | 935 | 53,4 | 817 | 46,6 |
| Ukraina | 1.699 | 1,2 | 733 | 43,1 | 966 | 56,9 |
| Honduras | 1.649 | 1,1 | 412 | 25,0 | 1.237 | 75,0 |
| Erresuma Batua | 1.506 | 1,0 | 954 | 63,3 | 552 | 36,7 |
| Alemania | 1.416 | 1,0 | 759 | 53,6 | 657 | 46,4 |
| Txile | 1.205 | 0,8 | 576 | 47,8 | 629 | 52,2 |

| | Totala | | Gizona | | Emakumea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | N | % | N | % | N | % |
| Bulgaria | 1.046 | 0,7 | 582 | 55,6 | 464 | 44,4 |
| Ekuatore Ginea | 944 | 0,7 | 308 | 32,6 | 636 | 67,4 |
| Mexiko | 889 | 0,6 | 334 | 37,6 | 555 | 62,4 |
| Ameriketako Esta | 861 | 0,6 | 405 | 47,0 | 456 | 53,0 |
| Mauritania | 816 | 0,6 | 502 | 61,5 | 314 | 38,5 |
| Kamerun | 763 | 0,5 | 481 | 63,0 | 282 | 37,0 |
| Errusia | 745 | 0,5 | 212 | 28,5 | 533 | 71,5 |
| Polonia | 717 | 0,5 | 351 | 49,0 | 366 | 51,0 |
| Ghana | 713 | 0,5 | 568 | 79,7 | 145 | 20,3 |
| Georgia | 644 | 0,4 | 343 | 53,3 | 301 | 46,7 |
| Mali | 612 | 0,4 | 507 | 82,8 | 105 | 17,2 |
| Uruguay | 606 | 0,4 | 297 | 49,0 | 309 | 51,0 |
| Filipinak | 544 | 0,4 | 190 | 34,9 | 354 | 65,1 |
| Moldavia | 493 | 0,3 | 240 | 48,7 | 253 | 51,3 |
| Kongoko Errepub | 441 | 0,3 | 297 | 67,3 | 144 | 32,7 |
| Ginea | 414 | 0,3 | 347 | 83,8 | 67 | 16,2 |
| Asia (bestelakoak | 350 | 0,2 | 128 | 36,6 | 222 | 63,4 |
| Irlanda | 343 | 0,2 | 223 | 65,0 | 120 | 35,0 |
| Ginea-Bissau | 343 | 0,2 | 217 | 63,3 | 126 | 36,7 |
| Angola | 320 | 0,2 | 164 | 51,3 | 156 | 48,8 |
| Herbehereak | 280 | 0,2 | 169 | 60,4 | 111 | 39,6 |
| Belgika | 236 | 0,2 | 145 | 61,4 | 91 | 38,6 |
| India | 208 | 0,1 | 138 | 66,3 | 70 | 33,7 |
| Kongo | 203 | 0,1 | 112 | 55,2 | 91 | 44,8 |
| Boli Kosta | 174 | 0,1 | 134 | 77,0 | 40 | 23,0 |
| Guatemala | 172 | 0,1 | 79 | 45,9 | 93 | 54,1 |
| Bosnia eta Herze | 150 | 0,1 | 90 | 60,0 | 60 | 40,0 |
| Eslovakia | 149 | 0,1 | 80 | 53,7 | 69 | 46,3 |
| Suedia | 141 | 0,1 | 67 | 47,5 | 74 | 52,5 |
| Afrika (bestelakoa | 139 | 0,1 | 86 | 61,9 | 53 | 38,1 |
| Txekia | 134 | 0,1 | 64 | 47,8 | 70 | 52,2 |
| Ganbia | 134 | 0,1 | 121 | 90,3 | 13 | 9,7 |
| El Salvador | 133 | 0,1 | 52 | 39,1 | 81 | 60,9 |
| Armenia | 131 | 0,1 | 56 | 42,7 | 75 | 57,3 |
| Nepal | 127 | 0,1 | 101 | 79,5 | 26 | 20,5 |
| Lituania | 120 | 0,1 | 63 | 52,5 | 57 | 47,5 |

| | Totala | | Gizona | | Emakumea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | N | % | N | % | N | % |
| Japonia | 120 | 0,1 | 42 | 35,0 | 78 | 65,0 |
| Tunis | 112 | 0,1 | 84 | 75,0 | 28 | 25,0 |
| Burkina Faso | 104 | 0,1 | 68 | 65,4 | 36 | 34,6 |
| Austria | 97 | 0,1 | 49 | 50,5 | 48 | 49,5 |
| Serbia | 96 | 0,1 | 54 | 56,3 | 42 | 43,8 |
| Bangladesh | 94 | 0,1 | 70 | 74,5 | 24 | 25,5 |
| Suitza | 84 | 0,1 | 46 | 54,8 | 38 | 45,2 |
| Bielorrusia | 83 | 0,1 | 31 | 37,3 | 52 | 62,7 |
| Hego Korea | 80 | 0,1 | 37 | 46,3 | 43 | 53,8 |
| Letonia | 79 | 0,1 | 34 | 43,0 | 45 | 57,0 |
| Kanada | 77 | 0,1 | 41 | 53,2 | 36 | 46,8 |
| Grezia | 69 | 0,0 | 42 | 60,9 | 27 | 39,1 |
| Egipto | 69 | 0,0 | 53 | 76,8 | 16 | 23,2 |
| Australia | 69 | 0,0 | 38 | 55,1 | 31 | 44,9 |
| Hungría | 68 | 0,0 | 28 | 41,2 | 40 | 58,8 |
| Albania | 62 | 0,0 | 36 | 58,1 | 26 | 41,9 |
| Cabo Verde | 57 | 0,0 | 27 | 47,4 | 30 | 52,6 |
| Danimarka | 56 | 0,0 | 32 | 57,1 | 24 | 42,9 |
| Kroazia | 54 | 0,0 | 35 | 64,8 | 19 | 35,2 |
| Finlandia | 51 | 0,0 | 17 | 33,3 | 34 | 66,7 |
| Benin | 49 | 0,0 | 41 | 83,7 | 8 | 16,3 |
| Kenia | 46 | 0,0 | 14 | 30,4 | 32 | 69,6 |
| Turkia | 44 | 0,0 | 31 | 70,5 | 13 | 29,5 |
| Costa Rica | 43 | 0,0 | 30 | 69,8 | 13 | 30,2 |
| Siria | 43 | 0,0 | 28 | 65,1 | 15 | 34,9 |
| Etiopia | 39 | 0,0 | 22 | 56,4 | 17 | 43,6 |
| Panama | 39 | 0,0 | 15 | 38,5 | 24 | 61,5 |
| Norbegia | 33 | 0,0 | 18 | 54,5 | 15 | 45,5 |
| Indonesia | 33 | 0,0 | 14 | 42,4 | 19 | 57,6 |
| Iran | 31 | 0,0 | 17 | 54,8 | 14 | 45,2 |
| Vietnam | 31 | 0,0 | 14 | 45,2 | 17 | 54,8 |
| Zeelanda Berria | 31 | 0,0 | 22 | 71,0 | 9 | 29,0 |
| Sierra Leona | 30 | 0,0 | 26 | 86,7 | 4 | 13,3 |

| | Totala | | Gizona | | Emakumea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | N | % | N | % | N | % |
| Israel | 26 | 0,0 | 18 | 69,2 | 8 | 30,8 |
| Herrigabeak | 26 | 0,0 | 16 | 61,5 | 10 | 38,5 |
| Hegoafrika | 23 | 0,0 | 14 | 60,9 | 9 | 39,1 |
| Tailandia | 23 | 0,0 | 3 | 13,0 | 20 | 87,0 |
| Liberia | 22 | 0,0 | 16 | 72,7 | 6 | 27,3 |
| Libano | 22 | 0,0 | 11 | 50,0 | 11 | 50,0 |
| Eslovenia | 20 | 0,0 | 10 | 50,0 | 10 | 50,0 |
| Irak | 20 | 0,0 | 13 | 65,0 | 7 | 35,0 |
| Amerika (bestelakoak) | 19 | 0,0 | 10 | 52,6 | 9 | 47,4 |
| Togo | 16 | 0,0 | 13 | 81,3 | 3 | 18,8 |
| Dominika | 16 | 0,0 | 5 | 31,3 | 11 | 68,8 |
| Jordania | 15 | 0,0 | 10 | 66,7 | 5 | 33,3 |
| Kazajstan | 13 | 0,0 | 4 | 30,8 | 9 | 69,2 |
| Ozeania (bestelakoak) | 12 | 0,0 | 7 | 58,3 | 5 | 41,7 |
| Bestelako herrialdeak | 11 | 0,0 | 9 | 81,8 | 2 | 18,2 |
| Estonia | 8 | 0,0 | 5 | 62,5 | 3 | 37,5 |
| Mazedonia (Ex- Jug. Errep.) | 8 | 0,0 | 5 | 62,5 | 3 | 37,5 |
| Islandia | 5 | 0,0 | 3 | 60,0 | 2 | 40,0 |
| Andorra | 4 | 0,0 | 1 | 25,0 | 3 | 75,0 |
| Luxenburgo | 2 | 0,0 | 1 | 50,0 | 1 | 50,0 |
| Saudi Arabia | 2 | 0,0 | 2 | 100,0 | 0 | 0,0 |
| Zipre | 1 | 0,0 | 1 | 100,0 | 0 | 0,0 |
| Malta | 1 | 0,0 | 1 | 100,0 | 0 | 0,0 |
| Hegoamerika (bestelakoak) | 1 | 0,0 | 1 | 100,0 | 0 | 0,0 |

Iturria: INE. Elaborazioa:Ikuspegi-Inmigrazioa.

## 3.2 EAEko familien errealitate sozio-ekonomikoa

### EAEko familien ongizatearen egiturazko mugak

Txirotasunaren eta ezegonkortasun ekonomikoaren tasen bilakaeraren, agerikoa da azken hamarkadotan EAEn ongizatearen gizarterantz egin dugula aurrera. 1996tik aurrera eta 2008ra arte, euskal familien okupazioa areagotu egin da. Honako egoera honetan dauden familien pisu erlatiboa 1996ko %59tik 2008ko %68ra igo da, hain zuzen ere: kide aktibo guztiak okupatuta dituzten familiak edo, egoera horretan egon ez arren, kide okupatu bi edo gehiago dituzten familiak.

Kide langabeturen bat duten familien proportzioa 1996ko %22,4tik 2008ko %6,9ra murrizten da, ordea[24].

2009ko tasen arabera, egoera oso desberdina da, ostera. Ageri-agerikoa da ongizatearen gizarteranzko aurrerakuntzan nolabaiteko egiturazko mugak daudela eta biztanleek kalitatez laneratzean aurkitzen dituzten desegokitzapenekin daudela lotuta. Izan ere, are larriagoak dira 2008-2009ko krisiaren ondorioz, eta, horrez gain, biztanleek zailtasun berriei aurre egin behar diete, etxebizitzak prezio eskuragarrietan lortzeko orduan.

Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkestako datuen eta Lan Merkatuko Erroldako 2009rako Datuen Aurrerapenaren arabera[25], EAEn kideren bat behin-behineko soldatapeko moduan edo kontraturik gabe lanean duten familien proportzioa %13,7koa da 2009an. 2009an, familien %5,8k kide guztiak dituzte lanean soldatapeko biztanle moduan, eta proportzio hori %4,2koa da, kaltetuetako bat kide nagusia edo ezkontidea bada[26].

Horrez gain, oso kontuan hartu behar da nolako eragina duten EAEn soldata urriek eta azpiokupazioak. Izan ere, okupatutako enplegu-motaren eta langilearen prestakuntza-mailaren arteko distortsio adierazgarria da.

Medianaren %75 erreferentziatzat hartuta, laneko diru-sarrera urriek kide okupatuak dituzten 10 familiatatik 3tan dute eragina (%29,3). Eragin-tasen arabera, horrelako familien %8,4n diru-sarrera urri bakarra dago, eta horrelako diru-sarreren %18,2 beste diru-sarrera handiagoa baten edo batzuen bidez osatzen da[27].

---

24 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana.

25 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS). 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena.

26 Ibídem.

27 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena.

2007ko Biztanle Aktiboen Kualifikazioari buruzko Inkestaren arabera, euskal familien %15,7n kideren batek prestakuntza-mailarekin bete-betean bat ez datorren enpleguan lan egiten du, eta, beste %1,8n, horrelako bi enplegu edo gehiago agertzen dira[28].

Familiengan eragin zuzena duten egoera hauek, erantzun beharreko eszena berri bat sortzen dute. Zailtasun eszena honek, orain gutxi bizi izan dugun oparoaldiarekin alderatuta, zalantzan jartzen du garapen eredua baina era berean azkeneko hamarkadetan eratutako babes sozialeko sistemaren balioa nabarmentzen du.

### 2008-2009ko krisiak larriagotutako arazoak

Azaldutako egiturazko arazo horiek 2008-2009ko krisiaren ondorioz larriagotu dira. Izan ere, langabezia-tasak ikaragarri igo direnez, langabezia-tasa bi urte eskasetan bikoiztu da (8,3tik 11,7ra igo da), eta 10,9koa da 2010ean[29]. Hartara, 2008ko Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkestako datuak eta 2009ko Lan Merkatuko Erroldako Datuen Aurrerapena[30] kontuan hartuta, kide aktibo guztiak okupatuta dituzten familien edo, egoera horretan ez daudenean, bi kide edo gehiago okupatuta dituzten familien pisu erlatiboa jaitsi da, 2008ko %68tik 2009ko %64,9ra jaitsi delako. Aldi berean, gainera, kideren bat langabezian duten familien kopurua handitu da. 2008ko lehen seihilekoaren eta 2009ko azken hiruhilekoaren artean, kideren bat langabezian duten familien kopurua 41.209tik 74.154ra igo denez, EAEko familia guztien %6,9tik %11,2ra igo da proportzioa. Era berean, kide aktibo guztiak langabezian dituzten familien ehunekoa %2,1etik %4ra igo da epealdi berean[31].

[28] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2007ko Biztanle Aktiboen Kualifikazioari buruzko Inkesta.

[29] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE). Biztanle Aktiboei buruzko Inkesta. Urte bakoitzeko IV. hiruhileko datuak, 2010ekoetan izan ezik, I. hiruhilekoak dira-eta.

[30] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana.

[31] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008. Lan Merkatuko Errolda (CMT). 2008ko Datuen Aurrerapena.

| | | | | | EA Erregistratutako langabezia. Sexuaren eta adinaren araberako garapena | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Gizonak | | | Emakumeak | | | <25 | | | >24 | | |
| | Langabezian | Aurreko hilea %a | Aurreko urteko saldoa | Aurreko urteko %a | N | Aurreko hilea %a | Aurreko urteko %a | N | Aurreko hilea %a | Aurreko urteko %a | N | Aurreko hilea %a | Aurreko urteko %a | N | Aurreko hilea %a | Aurreko urteko %a |
| Urt-05 | 92.924 | 3,9 | 3.506 | -4,4 | 39.591 | 2,1 | -4 | 53.333 | 5 | -4,8 | 9.158 | 7,7 | -13,7 | 49.488 | 4,3 | -7,1 |
| Urt-06 | 89.550 | 7,4 | 6.160 | -3,6 | 37.785 | 5,2 | -5 | 51.765 | 9 | -2,9 | 9.005 | 14,2 | -1,7 | 80.545 | 6,7 | 62,8 |
| Urt-07 | 80.685 | 5,9 | 4.482 | -9,9 | 32.482 | 3,7 | -14 | 48.203 | 7 | -6,9 | 6.792 | 12,9 | -24,6 | 73.893 | 5,3 | -8,3 |
| Urt-08 | 81.939 | 9,1 | 6.811 | 0,9 | 33.309 | 7,2 | 3 | 48.084 | 11 | -0,2 | 6.620 | 16,6 | -2,5 | 74.773 | 8,5 | 1,2 |
| Urt-09 | 110.093 | 9,4 | 9.456 | 35,3 | 52.911 | 8,7 | 59 | 57.182 | 10 | 18,5 | 10.737 | 15,8 | 62,2 | 99.356 | 8,7 | 32,9 |
| Urt-10 | 135.687 | 5,8 | 7.486 | 23,2 | 67.944 | 4,4 | 28 | 67.743 | 7 | 18,5 | 12.669 | 6,8 | 17,9 | 123.028 | 5,7 | 23,8 |

Iturria: EUSTAT.2010.

**Pertsona baten bat langabezian duten famliak. Eragina.**

| Familia mota | Etxeak | Eragin tasa | Eragin larria tasa | Lehentasun indizea | Garrantzi indizea | Larritasun indizea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pertsona bakarrekoa | 144.598 | 2,4 | 2,2 | 1,6 | 0,910 | 0,901 |
| Pluripertsonala ez familiarra | 11.011 | 4,9 | 4,0 | 2,0 | 0,834 | 0,830 |
| Familiarra nukleorik gabe | 13.259 | 6,0 | 4,3 | 1,5 | 0,778 | 0,713 |
| Seme-alabarik gabeko bikotea | 47.080 | 9,4 | 8,0 | 7,1 | 0,877 | 0,851 |
| Gurasoak eta seme-alabak, gurasoen kontura bizi direnak | 284.791 | 10,3 | 7,7 | 5,5 | 0,820 | 0,743 |
| Gurasoak eta seme-alabak, ez direnak gurasoen kontura bizi | 88.486 | 9,7 | 7,4 | 4,8 | 0,844 | 0,764 |
| Seme-alabak izan dituen bikotea | 124.377 | 4,5 | 2,3 | 2,0 | 0,669 | 0,514 |
| Bikotekidearekin bizi izandako gurasoa eta seme-alabak, gurasoen kontura bizi direnak | 24.724 | 23,0 | 20,4 | 9,7 | 0,907 | 0,888 |
| Bikotekidearekin bizi izandako gurasoa eta seme-alabak, ez direnak bizi gurasoen kontura | 38.814 | 15,7 | 10,8 | 9,5 | 0,798 | 0,688 |
| Guraso bakarra eta seme-alabak, gurasoen kontura bizi direnak | 1.522 | 12,5 | 12,5 | 12,5 | 1,000 | 1,000 |
| Guraso bakarra eta seme-alabak, ez direnak gurasoen kontura bizi | 766 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,000 | 0,000 |
| Nukleo anitzekoa | 14.949 | 23,2 | 18,4 | 17,9 | 0,842 | 0,790 |
| Totala | 794.378 | 8,6 | 6,5 | 4,7 | 0,825 | 0,752 |

Iturria: Familiei buruzko inkesta 2008.

Familien zailtasunei buruzko informazio gehiago ematen duten beste adierazle batzuk txirotasunaren, mantentzerako ezegonkortasunaren eta metaketa-txirotasunaren adierazleak dira. Adierazle horiek Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkestan azaltzen dira, hain zuzen ere.

Lehenengoek baliabide ekonomikoen eskasiarekin dute zerikusia, eta, epe laburrari begira, oinarrizko premien estaldura lehenesten dute (elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetakoen arloko gastuak). Adierazle hori nabarmen eta etengabe jaitsi da 1996tik

2008rako epealdian. Tasa egokitua 1996ko %9,3tik 2008ko %4,1era gutxitu da, hain zuzen ere. Dena dela, bilakaera horretan agerikoa da 2004-2008an %3,5etik %4,1era igotzen dela termino ez-egokituetan[32].

Metaketa-txirotasunaren adierazleek kontsumo iraunkorreko ondasunak eskuratzean sortutako ezegonkortasun diferentziala neurtzen dute, epe ertain eta luzeari begira ondasun horiek beharrezkoak direlako, behar den moduko bizi-mailari eusteko. Dena dela, gutxieneko bizigarritasun-arauak betetzen dituen behar bezalako etxebizitza hornitua eskuratzeko gaitasunaz ari gara, batez ere. Metaketaren terminoetan, Txirotasunari eta Desberdintasunari buruzko Inkestako metodoak txirotasuna-ongizatea eskalan zehaztutako lau posizioak kontuan hartuta, lehenengoak muturreko ezegonkortasun diferentzialarekin du zerikusia, eta, 2008an 14.395 lagunen artean izan du eragina (pertsona guztien %0,7). Hain zuzen ere, horixe bera da metaketa-txirotasunerako benetako arriskuan dagoen taldea[33].

2009an, 16 eta 64 urte arteko emakumeen jarduera-tasa %62,6koa da; eta talde horretako okupatuen ehunekoa, %55,9koa. Familia-erantzukizunak eta 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeen jarduera-tasa, ordea, %75,8 ingurukoa da; eta okupatuena, %67,8. 12 urtetik beherako seme-alabak edukitzean, jardueraren eta okupazioaren konparaziozko gehikuntza gertatzen da –eta aldeak ez dira nabariak seme-alaben kopuruaren arabera-[34].

1986-1996an, txirotasunerako arrisku egoerak nabarmen jaitsi dira, %5,5etik %1,8ra, alegia. Aldi berean, ongizate bete-betean dauden familien kopurua igo da: 1986ko %42,5etik 1996ko %64,1era, hau da, familia horiek behar besteko segurtasun ekonomikoa dute (mantentze eta metaketa mailetan), unean uneko gizartearen eta egoeraren arabera behar den moduko bizi-baldintza erosoak bermatzeko. 1996-2004an, egonkortasuna da joera nagusia. 2004-2008ko bilakaeran, ordea, txirotasunaren eta

---

32 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana.

33 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008.

34 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. 2009ko Lan Merkatuko Erroldako (CMTko) Datuen Aurrerapena.

ezegonkortasunaren aurkako aurrerapauso handiak eman dira. Metaketaren dimentsioko ezegonkortasun-tasa %15,4tik %10,7ra jaitsi da; eta txirotasunarena, %2,2tik %0,7ra. Beraz, 1986-2008ko epealdiko minimoak dira. Eskalaren goiko aldean, metaketaren dimentsioan ongizate bete-betean dauden familietako biztanleen ehunekoak ere aurrera egin du 1996-2004ko epealdiaren aldean, %64 ingurutik 2008ko %69ra igo delako[35].

Era berean, umeen txirotasuna ere aipatu beharra dago. 2008ko datuen arabera, txirotasunaren eta ezegonkortasunaren arazoen eragina handiagoa da 14 urtetik beherako seme-alabak dituzten familietan. Horrez gain, guraso bakarreko familiek ere txirotasun eta ezegonkortasunerako arrisku handiagoa dute, baina, batzuetan, arazo horren eragin erlatiboa handiagoa da seme-alabak dituzten bikoteen artean.

Azaldutako errealitatea kontuan hartuta, umeen arrisku-egoera handiagoa da. 2008an, ongizatea eskuratzeko zailtasunak dituzten 14 urtetik beherakoentzako proportzioa %27,5ekoa da; eta 14 urteko edo hortik gorako biztanleentzakoa, %20,1ekoa. Bestetik, 14 urtetik beherako biztanleen benetako txirotasun-tasa gainerako biztanleena baino bi aldiz handiagoa da ia-ia (%5,4, %2,8ren aldean).

Azkenik, 2008ko familiei buruzko inkestan antzeman egiten da familiek familiaren diru-sarreren inguruan duten kezkaren bilakaera adierazgarria izan dela, 10 familiatatik lauk arazoa dela adierazi dute-eta. Beraz, gehikuntza %3,8koa izan da, 2004. urtekoaren aldean. Familien %25en esanetan, arazo larria da, eta euskal familien %12,2rentzat arazo nagusia da, gainera[36.]

2008an, euskal familien %39,2 lan-arazoen inguruan daude kezkatuta. Izan ere, arazo larria da familien %26,8rentzat; eta arazo nagusia, %19,4rentzat –2004ko datuen aldean, desberdintasuna ez da hain adierazgarria-[37].

### Etxebizitza-gastuen menpetasun handiagoa

---

[35] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008.

[36] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2004-2008ko Familiei buruzko Inkesta. Aipatutako lana.

[37] Ibídem.

Etxebizitza eskuratzeko eta artatzeko kostuaren igoera erabakigarria izan da euskal familiek dituzten arazo ekonomiko berrietan. XXI. mendeko lehen hamarkadako aldaketa sozio-ekonomiko handietakoak lotura handia dauka etxebizitzarako maileguak amortizatzeko edo alokairua ordaintzeko gastuei aurre egin behar dietenen proportzioaren bilakaerarekin.

2008ko Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkestaren arabera, euren diru-sarrera guztien %30 baino gehiago etxebizitzarekin lotutako gastuetarako erabiltzen dituzten familien proportzioa handitu da. Hipotekatutako etxebizitzei dagokienez, familien %19,3k tasa hori gainditzen zuten 2000. urtean; eta, 2008an, %32,8k. Alokatutako etxebizitzei dagokienez, %20,2 ziren 2000. urtean; eta %46,2, 2008an. Etxebizitza-arloko gastuek gora egin dutenez, oinarrizko gastuek pisu handiagoa dute familien gastu guztien egituran, 2000. urtetik aurrera %36,6tik %43,6ra igo direlako 2008an[38].

Etxebizitza-arloko gastuek nolabaiteko homogeneotasuna dute gastu-mailetan. Dena dela, agerikoa da euren eragina handiagoa dela familiaren posizio ekonomikoa beheragokoa den neurrian. 2008ko Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkestan, horri buruzko datu gehiago agertzen dira. Euren diru-sarreren %30 baino gehiago etxebizitza-gastuetarako erabiltzen dituzten familietako kideen proportzioa erreferentziatzat hartuz gero, egoera erabat desberdina da, euren bizitzako ongizate-egoeraren arabera. Hartara, ongizate-egoeran bizi direnen %25-%30 euren gastuen %30 baino gehiago etxebizitzarako erabiltzen dituzten familietan bizi dira. Proportzio hori, ordea, %70-%85ekoa da, txirotasun-egoerarako arriskuan daudenentzat edo ongizaterik ez dutenentzat. Txirotasunerako arriskua duten edo ongizaterik ez duten familia gehienei etxebizitza-gastuek presio handia sortzen dienez,

[38] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008.

arazoak dituzte oinarrizko gainerako premiei eta, euren artean, elikadurari aurre egiteko[39].

Hala ere, etxebizitza-gastuen presioak txirotasun-errealitateetatik eta ongizate materialaren gabeziatik urrun bizi diren taldeetan ere badu eraginik. Gai hori zehatzago aztertzeko asmoz, 2009an Lan eta Gizarte Gaietako Saileko Organo Estatistikoak zehaztu zuenez, hileko 725 eurotik beherako hipotekak edo alokairu-gastuak dauzkaten familien %6,3 gizarte-larrialdietarako laguntzak eskuratzeko moduko diru-sarreren azpitik egongo lirateke, diru-sarrera erabilgarri guztietatik gastu horiek kenduz gero (49.864 familia, hau da, biztanle guztien %6)[40].

Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egindako azterketa zehatzago horretan aipatutako arrisku-familietan bizi diren biztanleen ezaugarriak zehatz-zehatzak dira. Gehienak 25-44 urteko biztanleak dira, Lehen Hezkuntzaren osteko ikasketak egin dituzte eta lan-okupazioaren bidez lortutako diru-sarreradun kide nagusiaren menpe bizi dira. Arrisku-egoeran daudenen %82,4, gainera, gutxienez okupazio iraunkorreko kide bat duten familietan bizi dira. Etxebizitza alokatu edo amortizatzeagatiko gastuen batezbestekoa hileko 568,50 eurokoa da.

2008ko Familiei buruzko Inkestaren arabera, euskal familien %33,2 etxebizitzarekin lotutako arazoengatik daude kezkatuta. %19,9rentzat, etxebizitza-arazoak larriak dira; eta %10,9rentzat, arazo nagusia. Tasa horiek, ordea, 2004koak baino txikixeagoak dira.

### Immigrazioa, ahulezia-faktorea

Etorkin atzerritarrek arazo gehiago dituzte laneratzeko eta ekoizpen-sisteman sartzeko orduan, eta langabezia-tasa horiek askoz handiagoak dira Europar Batasunetik kanpoko etorkinen artean. Izan ere, askok lan ez-kualifikatuetan dihardute, eta, batzuetan, zailtasun administratiboak ere badituzte, lan eta/edo bizileku baimenik ez dutelako.

---

[39] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008.

[40] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008.

Hazkuntza ekonomikoaren moteldurak eta osteko krisiak eragin gogorra eduki dute talde honetan, eta, euskal krisi ekonomikoaren ondorioz, bere langabezia-tasa %35,2ra igo da, 2009an biztanle nazionalen tasa %9koa denean[41]. Beraz, badirudi krisiak atzerritarren partaidetza areagotu duela EAEko txirotasun eta ezegonkortasun ekonomikoaren errealitateetan.

**Jarduera, enplegu, langabezi, prekarizazio eta luzaroko langabeen proportzioa populazioaren nazionalitatearen arabera**

| Nazionalitatea | | Adin aktiboan dagoen populazioan | Jarduera tasa | Enplegu tasa | Enplegu tasa | Prekarizazioa | Luzaroko langabeak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Populazio totala | Espainiarra | 1.344.642,34 | 72,3 | 67,1 | 7,3 | 18,5 | 2,2 |
| | Europar batasuna | 16.785,59 | 79,1 | 72,9 | 7,8 | 33,3 | 0,0 |
| | Beste herrialde bat | 66.913,20 | 80,0 | 65,7 | 17,8 | 55,7 | 6,7 |
| | Totala | 1.428.341,13 | 72,7 | 67,1 | 7,7 | 20,1 | 2,4 |
| Erreferentziazko pertsonak | Espainiarra | 514.294 | 80,7 | 76,1 | 5,7 | 14,5 | 2,2 |
| | Europar batasuna | 7.395 | 89,8 | 83,8 | 6,7 | 30,1 | 0,0 |
| | Beste herrialde bat | 23.380 | 93,0 | 78,3 | 15,9 | 63,9 | 4,9 |
| | Totala | 545.069 | 81,4 | 76,3 | 6,2 | 16,8 | 2,3 |

Iturria: Familiei buruzko inkesta 2008.

2008ko Txirotasunari eta Desberdintasunari buruzko Inkestako datuen arabera, beste herrialde batzeko biztanleak buru dituzten familietako kideen %70,3k ez dute ongizate bete-betea lortzeko aukerarik, bertoko biztanleak buru dituzten familien %18,4ren aldean. Horrez gain, benetako txirotasun-tasa, hau da, oinarrizko premiak estaltzeko gabeziarako arrisku-egoerei buruzkoa, %1,9koa da familia nazionalentzat; eta %25,6koa, beste estatu bateko herritar bat buru duten familientzat[42].

## Biztanle heldu gazteen kasu berezia

41 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008. 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena.

42 Ibidem.

Biztanle heldu gazteek familia eratuko dutenez edo eratzen ari direnez, erabakigarria da nolako baldintzatzaile sozio-ekonomikoek duten eragina familia berrien sorreran. Alde horretatik, langabeziaren, ezegonkortasunaren eta lan eskuragarri eskasaren eraginpean dauden gazteen belaunaldien fenomenoa kontuan hartzea.

Okupazioak behera egin du 2008-2009ko krisiaren ondorioz, eta eragin bete-betea du 40 urtetik beherako biztanleen artean. Hori dela eta, biztanle horien okupazio-mailak %30,2 jaitsi dira[43]. Langabezian dauden edo aldi baterako lan egiten duten 10 lagunetatik (%68,5) 7 40 urtetik beherakoak dira 2009an[44].

**Euskadiko E.Ako langabezi tasa 16 urtetik gorako pertsonengan, hiruilekoaren, sexuaren eta adinaren (%) arabera. 2011.**

| 2010 | Totala | Gizonak | Emakumeak | 16-24 urte | 25-44 urte | 45 urte eta gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I | 8,9 | 9,1 | 8,6 | 24,8 | 9,6 | 5,65 |
| II | 9,1 | 9,5 | 8,6 | 25 | 9,2 | 6,6 |
| III | 8,8 | 9,5 | 7,9 | 22,5 | 8,9 | 6,8 |
| IV | 10 | 10,5 | 9,2 | 28 | 10,7 | 6,6 |

Iturria: EUSTAT. 2010.

Bestetik, soldata txikien eragina ere handiagoa da 40 urtetik beherako biztanleen artean (biztanle horien %27 egoera horren eraginpean dago, batez besteko diru-sarreren %75eko erreferentzia kontuan hartuz gero).

Horrez gain, datuen arabera, azpiokupazioaren arazoak eragin handi-handia dute gazteen artean, kaltetuen %62,5 40 urtetik beherakoak dira-eta[45].

70eko hamarkadan, euskal gazteak 23 urte bete baino lehen joaten diren etxetik. 80ko hamarkadan, ordea, egoera sozio-ekonomikoa erabat laztu zenez, emantzipazio-adina

---

43 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008. 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena.

44 Ibidem.

45 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS) 2008. Lan Merkatuko Errolda (CMT). 2009ko Aurrerapena

24 urtera luzatu zen emakumeentzat; eta 25 urtera, gizonentzat. 90eko hamarkadaren amaieran, atzerakuntza are handiagoa izan zen, batez beste gizonak 30 urte bete arte geratzen zirelako etxean; eta emakumeak, 28 urte bete arte[46]. 2009an, batez besteko emantzipazio-adina 30 eta 43 urte artekoa da (adin-talde horretako gazteen %75,4 emantzipatu egin dira), eta 35 urtetik beherako biztanleen emantzipazio-tasa %41,1ekoa da. Gaur egun, EAEko emantzipazio-tasak 30 urtetik aurrera baino ez dira nagusi. Beraz, oraindik ere, %50etik oso urrun daude 25-29 urteko biztanleen artean[47].

EAEko emantzipazio-prozesuen atzerakuntzaren eragina argi eta garbi antzematen da, 18-29ko adin-tartean jatorrizko familiekin bizi diren gazteen proportzioa kontuan hartzen badugu eta, horrez gain, Europako mendebaldeko herrialdeekin erkatzen badugu. Bertan, hain zuzen ere, lehenago emantzipatzen dira[48].

Horrela, bada, EAE Europako mendebaldeko herrialdeen batezbestekoaren gainetik dago, euren familiekin bizi diren 18-24 urteko gizonen ehunekoa 13,2 puntu handiagoa delako (%90) eta adin bereko emakumeen proportzioa 24 puntu handiagoa delako (%87). 25 eta 29 urte arteko gazteei dagokienez, euren familiekin etxean bizi direnen proportzioa batez besteko ehunekoa baino 29,9 puntu handiagoa da gizonen artean (%68); eta 34,6 puntu handiagoa, emakumeen artean (%55). Adin handiagoko biztanleei dagokienez, Espainiako eta hegoaldeko beste herrialde batzuetako (Italia eta Portugal) batezbestekoa baino handiagoak dira zenbakiak[49].

18 eta 44 urte artean independizatu gabe dauden biztanleak erreferentziatzat hartuta eta 2008ko Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkestako datuen arabera, independizazio-eskaria %30,3koa da. Baliabide ekonomikorik ez edukitzean halakorik egiterik ez badute ere, euren kabuz bizi nahi izango luketenen lehen

46 Ibídem.

47 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana.

48 Hona hemen herrialdeok: Danimarka, Finlandia, Herbehereak, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Belgika eta Austria.

49 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: The life of women and men in Europe: A statistical portrait, 2008. Eurostat. EAE: 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena.

ezaugarri sozio-demografikoa gaztetasuna da, biztanle horien %82,7 35 urtetik beherakoak direlako[50].

Euren kabuz biziz gero, oinarrizko premiei aurre egiteko duten zailtasunarekin lotutako arazoak oztopo nagusia dira, 2008an EAEn emantzipatzeko orduan. Izan ere, epe laburrean (urtebetetik beherako epean) independizatzeko prest egongo liratekeenen %41,5entzat lehen mugetakoa da. Bestetik, %26,6ren esanetan, etxebizitzak ez edukitzea da arrazoi nagusia; eta, %19,6ren ustez, lanik ez edukitzea edo lan ezegonkorra edukitzea, baita zenbait enplegu egonkorrekin lotutako diru-sarrera txikiak ere, soldatapekoak nahiz autonomoak izan[51].

Euskal gazteak beranduago emantzipatzen dira, ezegonkortasun ekonomikorako arrisku-maila handia dutelako. Bestela esanda, txirotasun ezkutuak[52] bizimodu independentea eduki dezaketen biztanleen zati batean du eragina.

Familiako gainerako kideen diru-sarrerak alde batera utzita eta diru-sarrera pertsonalak bakarrik kontuan hartuta, EAEko 25 urtetik gorako biztanleentzat (edo ikasten ez dabiltzan 16 eta 25 urte arteko biztanleentzat) bizimodu independenteari bakar-bakarrik heltzean sortuko litzatekeen banan-banako arrisku-maila txirotasun pertsonalerako %47,6ko arriskua izango litzateke 24 urtetik beherakoen artean; eta %30 ingurukoa, 25-44 urtekoen artean. Arrisku hori, gainera, nahikoa handia da 45 urtetik beherako emakumeen artean (%46,1)[53].

---

[50] Horrez gain, talde horretan, ikasketa kualifikatudunak eta okupatuak dira nagusi. EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana.

[51] Ibidem.

[52] EAEko Gizarte Egoera Txarrei buruzko Azterketan azaldutakoaren arabera, txirotasun ezkutuaren arazoetan independenteak izan daitezkeen familia-unitateak inguruabar horien eraginpean daude, eta txirotasun-bizipena izango lukete, familia independentea eratzea erabakiko balute.

[53] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS). Lan Markatuko Errolda (CMT). 2009ko Aurrerapena.

## 3.3 Familia-sistema EAEn[54]

Joera sozio-demografikoek eta testuinguru sozio-ekonomikoan nahiz balioen sisteman gertatutako aldaketek eragin nabaria dute familia-sisteman.

### Familia-moten aniztasun handiagoa

2008an, EAEn 794.387 familia daude guztira. Euren tipologia aztertuz gero, agerikoa da lehen oso ohikoak ez ziren zenbait familia-moduren pisu erlatiboa handitu dela.

Bizi-itxaropena luzatu egin denez, ezkontza-bizitza ere gehiago luzatu da, eta guraso izan osteko familien kopuruak gora egin du, hau da, emantzipatu eta etxetik joan diren seme-alabek dituzten helduen bikoteak osatutako familiak dira. 2008an, horrelako familien kopurua guztizkoaren %15ekoa da, 2004an %13koa bazen ere (hazkuntza %25ekoa izan da, beraz). Era berean, kide bakarreko familien kopurua ere handitu egin da (2008an, %18koa zen), eta, askotan, 70 urtetik gorako emakume alargunek edo bananduek osatzen dituzte halako familiak.

Bestetik, familia-loturarik gabeko kide anitzeko familien kopuruak ere egin du gora, hau da, euren artean ahaidetasun-harremanik ez duten bi lagunek edo gehiagok osatutakoak dira (2008an, familia guztien %1,4koa zen euren kopurua), eta, batez ere, immigrazioa areagotzean sortu dira. Euren arteko ahaidetasun-harremanik ez duten lagunek osatutako familietan bizi direnen %39 etorkinak dira, eta ehuneko hori bat dator bi familia-gune edo gehiago dituzten familietan bizi diren atzerritarren ehunekoarekin (%32).

---

[54] Atal honetan azaldutako datu guztiak 2008ko Familiei buruzko Inkestakoak dira, betiere aurkakoa adierazten ez bada.

### Familien batez besteko tamaina txikiagoa

EAEko familien batez besteko tamaina 2,68[55] lagunekoa da 2009an. Inolako zalantzarik gabe, familia guztien batez besteko tamaina txikiagotu egin da (kide anitzeko ez-familiarretan izan ezik), seme-alaben batez besteko kopuruak behera egin duelako eta jaiotza-tasa jaitsi egin delako. Izan ere, nahiz eta 2001. urtetik aurrera suspertu egin zen, ez da nahikoa izan familien batez besteko tamaina ez txikitzeko. Horrez gain, familien tamaina txikiagotzen duten egiturazko aldaketek ere badute eraginik beherakada horretan –bikote batek osatutako familien edo guraso bakarreko familien kopurua-.

### Familietako erreferentziako kideen ezaugarrien aldaketak

Biztanleak zahartu egin direnez, 45 urtetik beherako erreferentzia-kidea duten familien ehunekoa murriztu da. 2008an, familien %29,8n baino ez da burua 45 urtetik beherako norbait; eta, %9,1en, 35 urtetik beherakoa. Bestalde, euskal familien %32n 65 urtetik gorako norbait da burua.

Hain zuzen ere, bakarrik bizi diren gehienek (kide bakarreko familiak) 65 urtetik gora dituzte (%55); eta %22k, 80 urtetik gora.

Gaur egun ere, gizonak nagusi dira familiako erreferentzia-kide moduan, emakumezko erreferentzia-kidea duten familien kopurua %37koa delako. Edonola ere, oso kontuan hartu behar da egitate horrek ezkontza-oinarriko familiekin daukala zerikusi handiagoa, gainerako familietan emakumeen protagonismoa antzekoa edo are handiagoa delako kide bakarreko familietan (%67) edo guraso bakarreko familietan, mendeko seme-alabak dituztenean nahiz ez dituztenean (bi kasuetan, %80 ingurukoa da).

Immigrazioaren ondorioz, familia-buru atzerritarrak dituzten familien kopurua handitu da. Alde horretatik, nabarmendu egin behar da euskal familien %6,4 atzerrian

[55] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: EUSTAT. 2009ko Lan Merkatuko Erroldako (CMTko) Datuen Aurrerapena.

jaiotakoek osatzen dituztela (10etik 8 Europar Batasunekoak ez diren estatuetan jaio dira, gainera).

### Familietan dauden adingabeen proportzioaren beherakada

65 urtetik gorako biztanleen ehunekoak gora egin duen neurrian, EAEko adingabeen ehunekoak behera egin du. 2008an, familien %16k 16 urtetik beherako kideak dituzte (127.100 familia dira, guztira), familien %19k[56] 13 urtetik beherako kideak dituzte (141.123 familia[57]) eta familien %7,9k 3 urtetik beherako kideak dituzte (63.038 familia). Adingabe gehienak, gainera, mendeko seme-alabak dituzten gurasodun familietan bizi dira.

### Familietako mendetasun-egoeren gorakada

Aurreko paragrafoetan azaldu denez, 65 eta 80 urtetik gorakoek gero eta agerpen handiagoa dute euskal familietan.

**65 eta 80 urteko pertsonen %a Familia motaren arabera. EAE**




Iturria: EUSTAT.

[56] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2004ko Familiei buruzko Inkesta, 155. or.

[57] Ibídem.

2008an, familien %35ek 65 urtetik gorako kideren bat dute; eta %12k, 80 urtetik gorakoa. Adinekoen agerpena nabaria da mendeko seme-alabarik ez duten familia dibortziatuetan edo hildako bikotekide bat duten familietan (mendeko umerik ez duen ezkontza osteko familietan), emantzipatutako seme-alabak dituzten ezkontza-familietan (guraso izan osteko ezkontza-familietan), gune anitzeko familietan (etxe berean bizi diren bi familia-guneko edo gehiagoko familietan) edo gunerik gabeko familiarretan (bi ahaide edo gehiagoko familietan, baina euren arteko seme-alabatasunik eta ezkontidetasunik ez dagoenean).

Adina edozein dela ere, euskal biztanleen %6,4k laguntzaren bat behar dute ohiko jarduerak egiteko, osasun-arazoak, ahalmen-urritasuna edo adin handia dutelako (%1,8, zainketa iraunkorra; %2,2, zenbait jardueratarako laguntza; eta %2,4, unean uneko laguntza).

Euskal familien %15,7k osasun-arazoengatiko arreta behar duen kideren bat dute (gaixotasuna, ahalmen-urritasuna, substantzien kontsumoa, adin handia...). Ia-ia familia horien erdiak lagun bakar batek osatzen ditu (%25), edo emantzipatutako seme-alabak dituzten ezkontza-familia dira (%22).

**Prestazioak dituzten pertsonak elkarte autonomoetako populazioaren arabera. 2011ko ekaina.**

| LURRALDE EREMUA | Prestazioak dituzten pertsonak | Prestazioak dituzten pertsona guztien %a | Biztanle kopurua | Elkarte autonomo bakoitzeko populazioaren %a | Pertsona bakoitzekoen ratioa |
|---|---|---|---|---|---|
| Andaluzia | 182.392 | 25,90% | 8.415.490 | 2,20% | 1,32 |
| Aragoi | 24.472 | 3,50% | 1.345.132 | 1,80% | 1 |
| Asturias | 14.267 | 2,00% | 1.081.348 | 1,30% | 1,1 |
| Balearrak | 10.166 | 1,40% | 1.112.712 | 0,90% | 1,03 |
| Kanariar Irlak | 9.827 | 1,40% | 2.125.256 | 0,50% | 1 |
| Kantabria | 14.289 | 2,00% | 592.560 | 2,40% | 1,05 |
| Gaztela eta Lehoi | 50.019 | 7,10% | 2.555.742 | 2,00% | 1,17 |
| Mantxako Gaztela | 39.154 | 5,60% | 2.113.506 | 1,90% | 1,36 |
| Katalunia | 115.137 | 16,30% | 7.535.251 | 1,50% | 1,22 |
| Valentzia | 43.922 | 6,20% | 5.111.767 | 0,90% | 1,15 |
| Extremadura | 17.772 | 2,50% | 1.108.140 | 1,60% | 1,06 |
| Galizia | 29.854 | 4,20% | 2.794.516 | 1,10% | 1,24 |
| Madrid (E.A) | 71.909 | 10,20% | 6.481.514 | 1,10% | 1,24 |
| Murtzia | 25.839 | 3,70% | 1.469.721 | 1,80% | 1,23 |
| Nafarroa | 8.200 | 1,20% | 641.293 | 1,30% | 1,14 |
| Euskadi | 38.231 | 5,40% | 2.183.615 | 1,80% | 1,14 |
| Errioxa | 7.486 | 1,10% | 322.621 | 2,30% | 1,43 |
| Ceuta eta Melilla | 1.822 | 0,30% | 160.635 | 1,10% | 1,22 |
| TOTALA | 704.758 | 100,00% | 47.150.819 | 1,50% | 1,22 |

Iturria: SAAD-IMSERSO. Balorazio, kalitate eta ebaluazio zuzendaritzaorde atxekituaren estatistika zerbitzua.
INE:INEBASE. 2011aren urtarrilaren 1eko errolda. Behin behineko datuak

## Guraso bakarreko familiak[58]

2008an, EAEn guztira guraso bakarreko 65.826 daudenez, familia guztien %8,3 dira horrelakoak. Era horretako familien kopurua murriztu egin da 2001. urteaz geroztik –urte horretan, familia guztien %11,7 ziren horrelakoak-. Hala ere, pisu kuantitatibo handia dute, eta, batez ere, arreta berezia merezi duen eragin kualitatibodun errealitatearen adierazgarri dira.

[58] Guraso bakarreko familietan, guraso bakarrekoak (ezkontzarik gabeko gunea) eta ezkontza ostekoak (dibortziatuta daudenak edo hildako bikotekide bat dutenak).

Emakumezko profildun familiak dira, eta, bertan, kasuen %80n erreferentziako kidea emakumea da. Datu esanguratsua da benetan, familietako joera nagusia gizonezko erreferentzia-kidea edukitzea dela kontuan hartuta.

Guraso bakarreko familia guztien %40k mendeko seme-alabak dituzte (26.246 familia). Mendeko seme-alabak dituzten familia horien batez besteko tamaina 2,74koa da ezkontza-harremanpean ez dauden familietan; eta 2,87koa, dibortziatuta dauden familietan edo hildako bikotekide bat duten familietan. Mendeko seme-alabarik ez dagoenean, ordea, familien batez besteko tamaina 2,36koa da.

**Familiak eta populazioa familia motaren arabera**

| Familia mota | Etxeak | | Populazioa | |
|---|---|---|---|---|
| | Datu absolutuak | %a bertikalak | Datu absolutuak | %a bertikalak |
| Pertsona bakarrekoa | 144.598 | 18,2 | 144.598 | 6,7 |
| Pluripertsonala ez familiarra | 11.011 | 1,4 | 28.228 | 1,3 |
| Familiarra nukleorik gabe | 13.259 | 1,7 | 29.243 | 1,3 |
| Seme-alabarik gabeko bikotea | 47.080 | 5,9 | 99.289 | 4,6 |
| Gurasoak eta seme-alabak, gurasoen kontura bizi direnak | 284.791 | 35,9 | 1.064.705 | 49 |
| Gurasoak eta seme-alabak, ez direnak gurasoen kontura bizi | 88.486 | 11,1 | 299.432 | 13,8 |
| Seme-alabak izan dituen bikotea | 124.377 | 15,7 | 257.232 | 11,8 |
| Bikotekidearekin bizi izandako gurasoa eta seme-alabak, gurasoen kontura bizi direnak | 24.724 | 3,1 | 70.972 | 3,3 |
| Bikotekidearekin bizi izandako gurasoa eta seme-alabak, ez direnak bizi gurasoen kontura | 38.814 | 4,9 | 91.682 | 4,2 |
| Guraso bakarra eta seme-alabak, gurasoen kontura bizi direnak | 1.522 | 0,2 | 4.178 | 0,2 |
| Guraso bakarra eta seme-alabak, ez direnak gurasoen kontura bizi | 766 | 0,1 | 1.806 | 0,1 |
| Nukleo anitzekoa | 14.949 | 1,9 | 80.809 | 3,7 |
| TOTALA | 794.378 | 100 | 2.172.175 | 100 |

Iturria: Familiei buruzko inkesta 2008.

Aldi berean, deigarria da mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarreko familietan biztanle atzerritarren proportzioa %63koa izatea[59].

2008an, guraso bakarreko 10 familiatatik 3k 16 urtetik beherako biztanleak dituzte. Bestetik, EAEko 16 urtetik beherako adingabeen %6 guraso bakarreko familietan bizi dira (%93, dibortziatuta dauden familietan edo hildako bikotekide bat duten familietan).

[59] Datuek pertsonaren jaioterria hartu dute oinarritzat.

EAEn, guztira guraso bakarreko 2.091 familiak dituzte 3 urtetik beherako kideak (familia horietan guztietan, dibortzioa egon da, edo bikotekide bat hil da). Guraso bakarreko familietan bizi diren 3 urtetik beherakoen ehunekoa %3,3koa da.

Mendeko seme-alabarik ez duten familia dibortziatuak edo hildako bikotekide bat duten familiak kontuan hartuta, 10 familiatatik 8k 65 urtetik gorako kideren bat dute; eta 10etik 3k, 80 urtetik gorakoren bat. Guraso bakarreko gainerako familietan, 65 urtetik gorakoen agerpena txikiagoa da (10etik 2k dituztelako), baita 80 urtetik gorakoen agerpena ere (10etik batean ere ez daudelako).

Osasun-arazoengatiko arreta behar duen norbait daukaten familia guztiak kontuan hartuta (gaixotasuna, ahalmen-urritasuna, substantzien kontsumoa, adin handia...), %12,8 guraso bakarreko familiak dira (8.400 inguru familia). Hain zuzen ere, %64 mendeko seme-alabarik gabeko familiak dira, eta dibortziatuta daude edo hildako bikotekideren bat dago bertan.

### Familia ugariak

Familia guztiak kontuan hartuta, 1996an familia ugarien proportzioa[60] %5,6koa zen; eta, 2008an, %3koa. Beraz, horrelako 18.419 familia daude guztira. Inolako zalantzarik gabe, beherakada handia izan da, 1996an erregistratuta zeuden horrelako 32.056 familiekin erkatuz gero.

2009an, indarreko familia ugarien 18.191 titulu daude erregistratuta. Familia horien %5ek 5 seme-alaba edo gehiago[61] dituzte; eta %13k, ahalmen urritua den seme-alabaren bat[62]. Nabarmendu egin behar da egindako 10 titulutatik 3tan familietako lehen titularra nazionalitate atzerritarrekoa dela.

Deigarria da familia ugarien kopurua jaistea eta egoera hori egiaztatzen duten tituluen kopurua igotzea. Seguruenik, familiek hobeto dakite zein diren euren eskubideak, eta

---

[60] 21 urtetik beherako 3 seme-alaba ezkongabe edo gehiago dituzten familiak izango dira ugariak, baita lanerako ezintasuna dutenean edo 25 urtetik beherako ikasleak direnean ere.

[61] EUSKO JAURLARITZA. 2009ko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Planaren betearazpenaren ebaluazioa. 2009.

[62] LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA. 2009ko Familia Ugarien Tituluen Estatistika.

titulu horren onuren inguruko kontzientzia handiagoa dute. Bestetik, egiaztatu egiten da Gipuzkoako Lurralde Historikoan titulu horien esleipena nabarmen ugaritu dela, lurralde horretako jaiotza-tasa igotzean.

## 3.4 Familiaren eginkizun nagusiak

### Oraindik ere funtsezkoa den erakunde berritua

Familiaren modernizazioaren osteko prozesuak honako ezaugarri bereizgarri hauek ditu: ezkontza-tasaren beherakada, seme-alaben kopuruaren jaitsiera, biztanleen zahartzapena, dibortzioen gorakada, elkarketa berrien gorakada, ondorengoen egonaldi luzeagoa familiaren etxean eta guraso bakarreko familien igoera[63]. Hori dela eta, gaur egun ez dago familiako bizimodu-eredu bakarra, eta eragileek ez dute egokiena zein den irmo-irmo esaterik.

Dena dela, oraindik ere familia, eraldaketak eraldaketa, erakunde nagusia da garapen pertsonalean eta pertsonen gizarte-partaidetzan. Familia kapital sozialaren aktibo preziatuenetakoa da[64], hau da, badugu baliabide hori eskuratzerik, sare pertsonal zabalak ditugunean. Sare horiei esker, bete-betean parte hartzen dugu arlo ekonomiko eta sozial guztietan.

Egia esan, badirudi gero eta eredu ugariagoak dituela, baina ez dirudi muin-izaera hori galdu duenik. Ume eta gazteei egindako galdeketaren arabera, familiako kideek ez dute odolkidetasun-harremanik zertan edukirik. Hala ere, argi eta garbi adierazten dute familiaren ezaugarri bereizgarriak segurtasuna, errespetua, maitasuna eta konfiantza izan behar direla[65].

Biztanleek familiaren fenomenoaren aurrean erakutsitako jarrera zehazten duten balio sozialen eraldaketa sakona aztertzeko orduan, ez dago inolako aldian aldiko iturririk,

---

63 EUSKO JAURLARITZA. Familiei Laguntzeko Erakunde arteko II. Planaren betearazpenaren ebaluazioa (2009). Aipatutako lana.

64 EUSTAT. Kapital Sozialari buruzko Inkesta. 2007.

65 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa, 2010, 227. or.

familia-balioetan antzemandako aldaketen jarraipen etengabea egiteko. Oso-oso interesgarria da Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak *1997ko Gazteen Erretratuak*[66] agirian familia-balioei buruz egindako azterketa. Izan ere, dinamika demografikoaren eraldaketaren eta familia-unitate berrien eraketaren funtsezko unean, 30 urtetik gorakoen balioak erkatzen ditu adin horretatik beherakoen balioekin. Horri esker, gazteen belaunaldiek familiari buruz duten usteak aztertu daitezke, 90eko hamarkadako eta mende berriko lehen hamarkadako errealitate berriko protagonistak direlako. Garai horietan, hain zuzen ere, aurre-aurreko epealdietan antzemandako aldaketak lehenetsi eta baldintzatu egin ziren.

Lehenengo eta behin, deigarria da nolako garrantzia duen familiak belaunaldi berrietako kide gehienentzat. Hartara, familiaren onespen-maila handiena da, eta adiskideen sarearen, lanaren onespenaren, astialdiaren edo aisialdiaren gainetik dago (3,9, 30 urtetik gorakoentzat; eta 3,8, 15-29 urtekoentzat, eskala horretan laua garrantzi handienaren adierazgarri dela kontuan hartuta)[67]. Beraz, familia garrantzitsua da belaunaldi berrietako biztanle gehienentzat.

Familiaren balioespena handia da oraindik, erakundea bera egokitzeko gai izan delako. Egokitzeko gaitasun horrek zerikusia dauka gurasoen eta ondorengoen arteko harreman irekiaren balioak gehiengoz onartzeko daukan ahalmenarekin. Horrez gain, beste faktore batzuk ere badaude, eta, euren artean, barne-jokabideen malgutasuna da garrantzitsuenetakoa, askatasun-mailak handiagoak direlako eta semeen zein alaben berdintasuna handitu delako.

Era berean, familiak egokitzeko daukan gaitasun hori ere oso lotuta dago seme-alabak familia-giroan heztean erreferentziako elementu moduan partekatutako zenbait balioren iraupenarekin. Horrela, bada, 30 urtetik gorako eta beherako biztanleak oso ados daude elkartasunaren, tolerantziaren eta ahalegin pertsonalaren oinarrizko

[66] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 1997ko Gazteen Erretratuak.
[67] Ibídem.

balioak igorri behar direla adieraztean. Izan ere, adostasun-maila hori oso handia da, bi taldeetan %80tik gorakoa delako[68].

Horrez gain, erlijioak garrantzia eta, horren ondorioz, eragina galdu duenez, zenbait arau moral tradizional aldatu dira; euren artean, ezkontzaren zein dibortzioaren arauketari eta ugalkortasunaren kontrolari buruzkoak. Beraz, familia-sistemarekin zerikusia duten balioak ere aldatu egin dira: sexualitatearen autonomia, ugalketaren eginkizunetik aldentzeko eta bikotearen maitasun-harremanaren berezko adierazpidea eta sustapen-modua izateko; ezohiko aukera pertsonalen inguruko jarrera tolerante eta errespetagarriagoen garapena; erabateko garapen pertsonala zein profesionala eta bi bikotekideentzako aukera-berdintasuna lortzeko asmoa; beste ezkontidearenganako edo seme-alabenganako larderiazko zein inposaketazko jarreren gaitzespena; eta jarrera hedonisten zilegitasuna, besteak beste.

### Hazkuntzaren gaineko erantzukizuna ulertzeko zenbait modu[69] (eginkizunen eskuordetza)[70]

Premia sozialak zeharo aldatu dira azken aspaldian, eta familiek badakite eraldaketa sakon horiek gertatu direla. Horrela, bada, 2010eko EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko txosten kualitatibotik ateratako gurasoen diskurtsoen arabera, familiak eta egoerak lehen baino anitzagoak dira, behinola familia-eredu bakarra zelako nagusi. Gaur egun, ordea, lan-arloko egikera eta erritmo desberdinak daude, eta premiak berehala estaltzea da helburu nagusia.

---

[68] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: 1997ko Gazteen Erretratuak. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

[69] Prozesu hau teknikoki "funtzio familiarren instituzionalizazioa" deitzen da. Flaquer (1998) El destino de la familia.

[70] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa. Aipatutako lana.

Aldaketa horiek ondorioak eragiten dituzte familiak mendekoen zainketan zein arretan eta familia-gunearentzako baliabideen hornikuntzan garatu ohi dituen eginkizunetan. Oraindik ere familiak eginkizun horien garapenean daukan garrantzia ukatu gabe, badirudi mendekoak (adingabeak, adinekoak eta ahalmen-urrituak) zaintzeko zeregin batzuk gero eta sarriagotan uzten direla beste instantzia eta arlo batzuen esku, merkatu pribatuan edo esparru horretako eskumenak dituzten instituzio edo administrazioetan.

Ume eta nerabeen premiak aztertzeko txosten kualitatiboaren arabera, errealitate horrek hezkuntza-sisteman dituen eraginak ageri-agerikoak dira gurasoek ikastetxeei eta irakasleei eskatzen dizkieten betekizunetan. Familiek hezkuntza-sistemari eskatzen diote mugen zein arauen ezarpenarekin lotutako hazkuntzaren oinarrizko alderdiak estaltzeko. Irakasleen iritziz, ordea, gurasoek ez dute berdintasunezko baterako erantzukizunik euren gain hartzen.

Bestetik, beste garai batzuetan baino neurri handiagoan eta, batez ere, hezkuntza-sisteman, badirudi umeen eta nerabeen balio-hezkuntza izan dela eskuordetu duten beste eginkizun bat. Hori dela eta, inplikatutako eragileen arteko desadostasunak sortzen dira, eta hezkuntza-zeregin horretan ez dago adostuta non dauden eginkizunen mugak eta nolako balioak landu behar diren. Horrez gain, batzuetan, eskuordetza horren ondorioz, ez da inolako gaitasunik sortzen, ikaskuntza horien finkapenerako beharrezkoak diren alderdietan eragina eduki ahal izateko. Eginkizun hori familiak ez beste instantzia batek bere gain hartzen duenean, nolabaiteko kontraesanak sortzen dira, beste eragile horiek oso eragin-gaitasun eskasa dutelako, familiak behar besteko zilegitasunik ez ematean[71].

Halaber, agerikoa da eskola zainketa-zerbitzuen emailea ere izan daitekeela langileentzat, "*umeak uzteko lekutxoa*", alegia. Alde horretatik, irakasleak kezkatuta

[71] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa. Aipatutako lana.

daude, gero eta neurri handiagoan estali behar dituztelako umeen zein nerabeen premia afektiboak[72].

Oro har, familiek badakite euren gain hartu ohi zituzten eginkizunak eskuordetzen ari direla eta hezkuntza-arloari eskari asko egiten dizkiotela (esate baterako, ordutegiak luzatzea). Edonola ere, euren ustez, eskari horiek ez dira guratsuak, eta gaur egungo lan-merkatuaren eskakizun zein premiekin dute zerikusia, premiazko bihurtzen dituztelako eta familien hautaketa-aukerak mugatzen dituztelako[73].

Eztabaida sakona egitean, familientzat diseinatutako zerbitzu eta laguntzen zentzuari buruz hausnartu behar dugu. Sistemak familiari baliabideak hornitzeko eginkizuna beteko duela bermatuko balio eta hazkuntzarekin lotutako gainerako eginkizunen betearazpena ziurtatuko ez balio, ekoizpen-sistema ekonomikoari leku nagusia emango lioke belaunaldi berrien hezkuntzaren babesaren kaltetan, eta eginkizun hori posizio periferikoan geratuko litzateke.

### Adingabeen arretarekin lotutako zailtasunak

Ekonomikoak ez diren zailtasunak bakarrik kontuan hartuz gero, euskal familien %3,8 daude egoera horretan.

Guztien artean, horrelako egoeran, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak dira kaltetuenak, %8,9raino daudelako egoera horretan[74].
2008ko datuen arabera, ia-ia euskal familien %8k dituzte 3 urtetik beherako biztanleak. Euretatik, erdiak (%51,80) haurtzaindegietan edo ikastetxean zaintzen dituzte[75].

2008ko Familiei buruzko Inkestan[76] adierazten denez, adin horretatik beherako biztanle gehienei ez zaie erantzunik ematen familiaren lehentasunengatik.

---

[72] Ibidem.

[73] Ibidem.

[74] EUSKO JAURLARITZA. 2008ko Familiei buruzko Inkesta. Aipatutako lana.

[75] Ibídem.

Hori horrela izanik ere, 3 urtetik beherakoen %4,7ari ez zaio erantzunik ematen, sistemak ezin diolako eskariari aurre egin. Kasu horien erdietan baino gehixeagotan, ez dago kostuarekin lotutako eskaririk. Lau kasutatik batean, gutxi gorabehera, zentroaren ezezkoarekin dago lotuta. Erantzun gabeko kasuen %14 ia-ia etxetiko urruntasunarekin daude lotuta; eta %7, ordutegi desegokiarekin.

Lan-bizimodua ardurapeko adingabeen zainketa eta arretarekin uztartzeko zailtasun zehatzak haurtzaroko etapa guztietan azaltzen dira, baina badirudi zailtasun handienak umeen bizitzako lehen urteetan agertzen direla batez ere, autonomia gutxiago dutenean eta haurtzaindegiko edo ikastetxeetako lekuen estaldura bermatuta ez dagoenean. Epealdi zehatzak kontuan hartuta, gurasoen esanetan, adingabeen oporretan dituzte zailtasun handienak uztarketa lortzeko orduan77.

Era berean, agerikoa da 0-3 urteko adingabeak dituzten gurasoek adierazitako kezka nagusia lekuak lortzeko aukera edukitzea dela. Alde horretatik, badirudi dirulaguntzek ez dutela uztarketaren arazoa konpontzen. Gainera, neurri partzialtzat hartzen dira, eurentzat kostu egokituko lekua lortzea delako funtsezkoena. Horrez gain, kritikatu egiten dute haurtzaindegiko zerbitzuak garestiak direla eta ordutegiak mugatuak direla, merkatu pribatura jo behar denean.

Ikastetxean lekua aurkitzea ez ezik, honako hauexek ere badira uztarketa lortzeko erabilitako aukerak: kanpoko norbait kontratatzea, aitona-amonen laguntza informala jasotzea, lanaldia murriztea edo lana uztea. Hori dela eta, halakoetan gurasoek ez dakite ondo zein den aukera egokiena, adingabeak zaintzeko eta familia antolatzeko orduan[78].

[76] EUSKO JAURLARITZA. 2008ko Familiei buruzko Inkesta. Aipatutako lana.

[77] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa. Aipatutako lana.

[78] Honi ordezko zaintza deitzen zaio eta hainbat azterlanek diote bere kalitateak eragin handia duela haurren garapen prozesuan. Bere antolaketaren inguruko erizpide prebentiboen hedapena osasun publikoko kontua da.

2004an, 13 urtetik beherako biztanleak dituzten familien %19k aitona-amonengana jo ohi dute adingabeak zaintzeko; eta %12, etxeko zerbitzura[79].

Hala ere, adingabeen zainketarako hirugarrenak hautatzeko aukera ez da beti gurasoen gustukoa[80], seme-alabei igorritako hezkuntza-ereduaren gaineko kontrola eta agintea galtzen dutela sentitzen dutelako. Gurasoak ez daudenean, adingabeen zaintzaileek kontuan hartu beharreko irizpideen eta ereduen inguruko disfuntzioa dago, batzuetan eurek nahi dituztenekin bat ez datozelako eta, beste batzuetan, zaintzaileari behar besteko zilegitasuna edo ahalordea ematen ez dietelako, hezkuntza-zereginari aurre egiteko.

Adingabeak zaintzeko asmoz, lana uztea edo lanaldia murriztea emakume gehienek hautatutako aukera da oraindik. 2009an, seme-alabak zaintzeagatiko lanaldi murriztu eta eszedentzietarako dirulaguntzen eskabideen espedienteen kopurua 45.711koa81 izan zen guztira (%80 baino gehiago murrizketetarako). Beraz, handitu egin zen aurreko urteen aldean. Hala ere, 10 eskabidetatik 9 emakumeenak dira oraindik[82]. Eskabide horien kopurua 76.424koa[83] da, 2008an eta 2009an egindako eskabideak kontuan hartzen baditugu.

Aukera hori, ordea, ez da beti familia osoaren edo eskatzailearen banan-banako gurari eta premien araberakoa. Batetik, legearen bidez zehaztuta badaude ere, eskubide horiei heltzeko benetako aukerak ez dira berberak egoera guztietan (zailtasun handiagoak dituzte aldi baterako edo obra-amaierako kontratuak dituztenek eta zenbait sektoretako edo tamaina zehatzeko enpresetako langileek…). Horrez gain, aukera horien ondorioz, diru-sarrerak gutxitu egiten dira, eta familia guztiek ezin dute

---

[79] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2004ko Familiei buruzko Inkesta. Aipatutako lana.

[80] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa. Aipatutako lana.

[81] Uztarketarako laguntzen espedienteetako datuak ez datoz bat familien kopuruarekin, dekretuan zehaztutako laguntzetarako baldintzen arabera familia berak 4 aldiz eskatu dezakeela laguntza, urtean zehar.

[82] EUSKO JAURLARITZA. Familiei Laguntzeko Erakunde arteko II. Planaren betearazpenaren ebaluazioa 2009. Aipatutako lana.

[83] Uztarketarako laguntzen espedienteetako datuak ez datoz bat familien kopuruarekin, dekretuan zehaztutako laguntzetarako baldintzen arabera familia berak 4 aldiz eskatu dezakeela laguntza, urtean zehar.

halakorik egin, azaldutakoa bezalako testuinguru sozio-ekonomikoan, batik bat. Bestetik, aukera horren ondorioz, gatazka pertsonalak ere sortu daitezke lanaldia murriztu edo lana (unean-unean edo behin betiko) uzten dutenen artean, batzuetan laneko lorpenen nahiz lanbide-garapenerako gurarien eta adingabeen zainketaren zein arduraldiaren arteko kontraesanak sortzen direlako.

Oro har, badirudi erakundeek uztarketarako eskainitako aukeren arrakasta erlatiboa dela. Uztarketarako laguntzen ezagutza nahikoa urria da; eta, oro har, ez oso sakona. Laguntzen inguruko ezagutza-indizea inkestatutako biztanleen erdikoa ere ez da inondik inora. Bestetik, 3 urtetik beherakoen etxeko zaintzailea kontratatzeko dirulaguntza da ezezagunena; eta murrizketak zein eszedentziak, ezagunenak[84].

Honi gehitu behar zaio, enpresetako giza baliabideetako arduradunei berezko moduan galdetzen zaienean uztarketa neurriengatik, %60ak aitortzen duela ez daukatela uztarketa neurririk ezarrita edo ez dituztela ezagutzen[85].

### Ahalmen-urritasunarekin lotutako mendetasunaren arreta

Gaur egun ere, mendeko gehiago daudenez, erantzun egokiak behar dituen egoera berria sortu da. *2008ko Familiei buruzko Inkestaren* arabera, ahalmen-urritasuna edo mugak dituzten eta laguntza iraunkorra jaso behar duten guztien %65 familiak berak zaintzen ditu zuzenean; %17, kanpoko langileek; %10, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak; eta %4, eguneko zentroek.

Azpimarratu egin behar da familiek merkatu pribatuetan bilatzen dutela laguntza, gizarte-zerbitzuek emandako laguntza sozialak ez diolako gaur egungo premiari erantzuna ematen, apurka-apurka handitu egin bada ere.

---

[84] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2008ko Familiei buruzko Inkesta. Aipatutako lana.

[85] EMAKUNDE. Ikerketa "EAEko emakumeen lanbide ibilbide eta egoerako desberdintasuna. Ed. EMAKUNDE, 2010.

Euskal familien %9,1ek adinekoak zaintzeko arazo ez-ekonomikoei aurre egin behar diete.

%30en esanetan, gaixotasun, ahalmen-urritasun eta/edo elbarritasunarekin lotutako arazoren bat dute. Dena dela, ehunekoa %16,8ra jaisten da, familiaren arazo nagusia denean. Inolako zalantzarik gabe, arazo horrek ez du eragin bera familia guztietan, baina euskal familien %8,1en ustez aurre egin beharreko arazo nagusia da. Arazo handienak gurasodun familietan (%37), guraso izan osteko ezkontza-familietan (%23,6) eta kide bakarreko familietan (%19,4) agertzen dira86.

Uztarketa erronka da, eta gizarte osoa inplikatu behar da bertan: gizonek etxeko zereginetan eta pertsonen zainketan bete beharreko eginkizunak, enpresak langileen familia-premietara egokitzeko prozesua eta instituzioek gizarte-zerbitzu bateratuen garapenean bete beharreko eginkizuna, besteak beste. Edonola ere, gaur egungo diagnostikoaren arabera, agerikoa da familiei laguntzeko neurrien ezaugarriei buruz hausnartu beharra dagoela. Baliabide eta laguntzen sistemaren "bigarren mailako" ondorioei erreparatuta, argi dago ezin direla familien hezkuntza-eginkizunaren garrantzia nabarmentzeko moduko ikuspegirik kontuan hartzen ez duten neurriak sustatu.

### Bizimodu profesional, pertsonal eta familiarraren uztarketa eta zaintzaz arduratzeko oztopoak

Inolako zalantzarik gabe, familiako bertako harremanetan funtsezkoa da familiako kideak zaintzea. Denbora eta ahalegina behar dira, autonomia mugatuko familia-kideei arreta emateko orduan (adingabeak, ahalmen-urrituak, mendeko adinekoak…).

Gaur egungo errealitate sozio-ekonomiko konplexuaren aldagaiek (lan prekarioak, soldaten jeitsiera, etxebizitzaren prezio altua, orainean gogoa jartzen duen kultura enpresariala eta momentu guztietan libre edo erabilgarri egotearena) uztarketa zailagoa bihurtzen dute eta zaintzarako denbora zein adingabekoei edota etxean

[86] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2008ko Familiei buruzko Inkesta. Aipatutako lana.

laguntza behar duten pertsonei zuzendutako zaintzarako denbora eta arreta murrizten dute.

Gaur egungo egoera sozio-ekonomiko konplexuaren ondorioz, familia askok bi soldata behar dituzte. Besteak beste, gurasoek lan ezegonkorrak, soldata-mailen jaitsiera edo bizi-kostu garestia aipatzen dituzte, biek zergatik lan egin behar duten eta, horregatik, familiako adingabeak eta laguntza behar duten beste familia-kide batzuk zaintzeko denbora zergatik murriztu behar duten hausnartzen dutenean.

Izan ere, ume eta nerabeen eskari eta premiei buruz egindako azterketa kualitatiboan[87], kontsultatutako gurasoek adierazi egiten dute etxebizitzarako gastua faktore nagusietakoa dela, familiek belaunaldi berrien hazkuntzan, zainketan eta hezkuntzan hainbesteko denbora ez emateko eta familiek garatu ohi zituzten eginkizunak beste instantzia edo erakunde batzuen esku uzteko. Bi ezkontideek lan egin behar dute, soldata-mailak urriak direlako. Bestetik, adingabeen hazkuntza eta arretarekin bateraezinak diren ordutegidun lanak onartu behar dituzte, eta ezin dituzte eszedentziarik edo lanaldi murrizturik eskatu. Horra hor etxebizitza eskuratzeko eta artatzeko gastuei aurre egitean sortutako zailtasunen ondorioak.

Emakumeak laneratzea azken hamarkadotako eraldaketa nabarienetakoa izan da -2009an, euskal familien %47n emakume okupatuak daude, 1996ko %29ko proportzioaren aldean[88]-. Horren ondorioz sortutako aldaketa kulturalak eragin zuzena eduki du familiako kideen zeregin eta aurreikuspenetan, familiaren antolakuntzan edo familia-guneko kideen zainketan, emakumeek euren gain hartu ohi zituzten eginkizunak ziren-eta.

Errealitate horren ondorioz, behar-beharrezkoa da bizimodu profesional eta familiarraren uztarketaren gaia jorratzea. Inolako zalantzarik gabe, uztartzea erronka handienetakoa da lan-merkatuan egonda etxean beste pertsona batzuk zaindu behar

[87] Ibidem..

[88] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta (EPDS). 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren (CMTren) Aurrerapena.

dituztenentzat. Hain zuzen ere, halaxe egiaztatzen da ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko txosten kualitatiboan[89], gurasoen esanetan bizimodu profesionala eta profesionala adingabeak euren ardurapen dituztenen kezka nagusietakoa delako, seme-alabekin kalitateko denbora gehiago igarotzeko orduan, batez ere.

Datu kuantitatiboen arabera, 2009an soldatapeko biztanleen %16,7k zailtasunak ditu, lan-ordutegia eta familia zein gizarte arloko gainerako betebeharrak behar bezala uztartzeko[90].

Era berean, lan-absentismoa eta uztarketa-arazoak ere badaude lotuta, absentismoak gora egiten duelako uztarketa-arazoak daudenean91.

Uztartzeko zailtasunek zerikusi zuzena dute familiako mendeko kideen arreta-premiekin. Alde horretatik, nabarmendu egin behar da 2008an euskal familien %12,6k arazo ez-ekonomikoak dituztela, adingabeak edo adinekoak zaintzeko orduan –haurtzaindegietan ez dago nahikoa lekurik, zaintzaileak kontratatzeko zailtasunak dituzte, arretarako gainkarga-arazoak dauzkate, espazio-arazoak dituzte, lanarekin lotutako zailtasunak sortzen dira...-, eta %8rentzat arazo handia da[92].

Dena dela, oso kontuan hartu behar da emakumeak esparru publikoan bete-betean gizarteratzean sortutako aldaketa sozialak ez duela familia-sistemako eragile guztietan eragin bera eduki. Oraindik ere gizarteak etxeko lana emakumeen esku uzten duenez, aldaketa horretako eragile aktibo bakarrak dira ia-ia. Adin txikiagoko umeei galdetzean[93], agerikoa da familia-giroko etxeko zereginen banaketa oraindik berdintasunezkoa ez dela eta gaur egun ere emakumeen ardurapean dagoela familia-guneko zerbitzugintza. Oro har, aiten lanaldia luzeagoa izan ohi da, seme-alabak

---

89 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa. Aipatutako lana.

90 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta. 2009.

91 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. Lan Baldintzei buruzko inkesta. 2009

92 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana.

93 EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa. Aipatutako lana.

txikiak direnean, batez ere. Etxeko zeregin gehienak, ordea, amek garatzen dituzte, aitek unean-unean bakarrik parte hartzen duten bitartean. Oraindik ere, zereginak rolen arabera banatzen dira, nahiz eta bi kideek etxetik kanpo lan egin. Gainera, umeek honelako argudioak erabiltzen dituzte errealitate hori justifikatzeko: amek trebetasun handiagoak dituzte, amek etxeaz arduratzeko interes handiagoa dute, ohitura halakoxea da...

Etxeko zereginei erantzuterako orduan, gizon eta emakumeen baterako erantzukizuna nahikoa ez denez, genero-desberdintasunak daude uztarketa-zailtasunen inguruan. 2009an, emakumeen %21,1ek lan eta familia arloko lanaldi bikoitzarekin lotutako lan-gainkargari aurre egin behar diote, eta, horretarako, astean 60 lanordu baino gehiago sartu behar dituzte zeregin horietan[94]. 25-64 urteko emakumeen %10,4k uneren batean utzi dute lana, familia-arloko lanetan gainkargatuta egon direnean edo seme-alabak jaio direnean. Beraz, euskal familien %8,1 daude egoera horretan[95]. 25-64 urteko emakumeen %5,4k uneren batean eten dute lana azken hiru urteotan, familia-arloko lanetan gainkargatuta egon direnean edo seme-alabak jaio direnean. Beraz, familien %4,2 daude egoera horretan[96].

Era berean, kontuan hartu behar da tradizionalak ez diren familiek (guraso bakarreko familiek…) baliabide gutxiago jasotzen dituztela sare informal zabalen bidez (kapital soziala)[97]. Hori dela eta, desabantailan daude uztarketa lortzeko orduan.

### Hazkuntzan ematen diren beste zailtasun batzuk

Euren seme-alaben bizitzan zehar, gurasoek era bateko edo besteko kezkak dituzte euren seme-alaben adinaren arabera. Familiek antzemandako arazoen artean, eskola-arazoak, adingabeen harreman-inguruneko integrazioa eta emantzipazio-arazoak nabarmendu behar dira, seme-alabak independizatzeko adinera iristen direnean.

[94] Ibidem.

[95] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2008ko Familiei buruzko Inkesta. Aipatutako lana.

[96] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2008ko Familiei buruzko Inkesta. Aipatutako lana.
[97] EUSTAT. Kapital Sozialari buruzko Inkesta. 2007.

2006ko Premia Sozialei buruzko Inkestaren arabera[98], derrigorrean eskolaratzeko adinean dauden biztanle guztien %7,2k zailtasunen bat dute eskolan (13.599 adingabe). Zailtasun horiek lotune handiagoa dute eskola-atzeratasunarekin (%7). Bestetik, absentismoaren edo ez eskolaratzearen eragina txiki-txikia da, 0,3koa eta 0,2koa, hurrenez hurren.

Eskolako harreman-ingurunean integratzeko arazoei dagokienez, ikasleen %3k horrelako arazoak dituzte, 5.739 adingabek, alegia[99] (eskolaratzeko adinean dauden adingabeen %0,6k berdinen arteko eraso edo tratu txarren arloko arazoak dituzte, eta beste %0,9k beste gaitzespen-modu batzuk jasaten dituzte eskolan, erasorik edo tratu txarrik egon ez arren). Harreman-arazo horiek gero eta handiagoak dira adinean aurrera egin ahala (%3,3, 6-11 urteko adingabeen artean; eta %14,7, 14-16 urtekoen artean), eta are agerpen handiagoa dute atzerritarren artean (biztanle nazionalen %3, atzerritarren %8ren aldean).

Seme-alaben emantzipazioari dagokionez, familien %8 kezkatuta daude, seme-alabek euren kabuz bizitzeko zailtasunak dituztelako. Hala ere, %1,8rentzat baino ez da arazo larria[100].

Bestetik, jokabideak eta jarrerak edo barnealdiak edo presio-egoerak kontuan hartuta, harreman pertsonal, familiar eta sozialetan arazo sozial larriren bat duten familien kopurua 40.969koa zen 2006an. Beraz, familia guztien %5,2 daude arazo horren eraginpean[101]. Nabarmendu egin behar da errealitate horrek eragin handiagoa duela emakumezko familia-burua duten sendietan, ahalmen-urritasunagatiko mendekoren bat duten familietan, familia-buru atzerritarra duten sendietan edo 35 urtetik beherako eta 65 urteko edo hortik gorako familia-buruak dituzten familietan.

---

[98] EUSKO JAURLARITZA. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. 2006ko Premia Sozialei buruzko Inkesta.

[99] Oso kontuan hartu behar da informazio hori familiek eman dutela. Beraz, familiek ezagututako arazoak dira. Familiei ezkutatzen zaizkien arazoak ez dira azterketa honetan islatu.

[100] JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2008ko Familiei buruzko Inkesta, 160. or.

[101] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Iturria: 2006ko Premia Sozialei buruzko Inkesta (ENS).

2008ko Familiei buruzko Inkestaren arabera[102], elkarbizitza-arazo handienak dituzten familiak mendeko seme-alabak dauzkaten ezkontza osteko familiak dira (%1,7), baita gune anitzeko familiak (%1,6) eta guraso izan aurretiko ezkontza-familiak (%1,5) ere. Adierazitako elkarbizitza-arazo nagusia zereginen banaketa desorekatua da (%33,5), eta dibortzioa edo banaketa, ordea, %25ek aipatzen dute.

Alde horretatik, nabarmendu egin behar da euskal biztanleen %1,87k (40.266 lagunek) bakardade edo tristezia arazo latzak dituztela adierazten dutela. Arazo horrek lotura argia dauka adinarekin edo mendetasun-egoerekin, baina eragin handia ere badu atzerritarren artean. %0,75ek (16.059 lagunek) familia-banaketagatiko arazoak dituzte, eta eragin handi-handia dauka bizimodu pertsonalean. Halakoetan, gainera, atzerritarra izatea da elementu erabakigarriena. %0,23k (4.907 lagunek) arazoren bat dute euren ingurune sozialean: familiaren arretarik eza edo gaitzespena edo tratu txarrak, erasoa edo indarkeria. Arazo horrek genero-osagai irmoa du, 10 kaltetutatik 6 emakumeak direlako, eta, horrez gain, eragin handiagoa dauka 55 urteko edo hortik gorako biztanleen artean. Biztanleen %0,65ek (14.036 lagunek) gizarte-gaitzespenaren arloko arazoak dituzte euren jatorri, kultura edo ezaugarri pertsonalengatik, eta eragina handiagoa da atzerritarren artean[103].

### Zenbait aldaketaren ondorioz, hazkuntza zailtzen duten desorekak sortu dira [104]

Hala ere, larderiazko ereduetatik aldendu nahian, badirudi gurasoek ez dutela behar besteko oreka lortzen familia-harreman hurbilen eta euren agintea bermatzeko moduko arau zein mugen ezarpenaren artean.

*1997ko Gazteen Erretratuak*[105] agirira itzulita, 30 urtetik beherakoen %61 bat datoz aginteraren printzipioarekin, baina %36k ez dute uste aginte horri ezeren gainetik eutsi behar zaionik[106].

---

[102] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. 2008ko Familiei buruzko Inkesta, 160. or.

[103] EUSKO JAURLARITZA. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. 2006ko Premia Sozialei buruzko Inkesta.

[104] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa. Aipatutako lana.

Zenbait daturen arabera, jokabide-arau sozialak onartzeko eta agintedunek[107] esandakoa betetzeko orduan, 30 urtetik gorakoen eta beherakoen arteko adostasun-maila %60-%86koa da, balio horiekin bat datozen adin-talde horietako kideen artean.

Familiek eta hezkuntza-sistemak onartu egiten dute gaur egun umeak eta nerabeak larregi babesten ditugula. EAEko ume eta nerabeen eskari eta premiei buruzko azterketa kualitatiboan, zenbait arrazoi azaltzen dira: gurasoek seme-alabekin igarotzen duten denboraren kalitatearen eta kantitatearen jaitsiera; familien saialdia, umeak eta nerabeak edozein eratako sufrimendutatik aldentzeko; familiek haurtzaroan nahiz nerabezaroan gertatutako egoerak handitzeko duten joera; familien erruduntasuna, seme-alabekin denbora gutxi igarotzeagatik; gizarteak, oro har, eta familiek ume zein nerabeen artean proiektatzen duten arrakasta-sindromea; edo gurasoen esanetan lanaldiaren ondoren dituzten nekea eta pazientzia eskasa.

Azterketa horretan bertan ere azaltzen dira belaunaldi berriak larregi babestean sortutako zenbait ondorio: ez dago gutxieneko araurik; frustrazioaren inguruko tolerantzia eskasa; autonomiaren beherakada handia; ahaleginaren kultura eskasa; trebetasun sozial eta hobekuntza-estrategia gutxi; edo sormenaren beherakada, aurreikuspenak sortzeko aukerak murriztean, familiak eta, oro har, gizarteak berehala estaltzen dituztelako umeen eta nerabeen eskariak eta premiak.

Zentzu honetan, beharbada esan daiteke, mailaz maila, umeek eta nerabeek botere maila berriak bereganatzen dituztela familiaren antolaketaren barnean. EAEko umeen eta nerabeen beharren eta eskarien inguruko ikerketa kualitatiboan[108], egoera hau islatzen duten zenbait ebidentzia agertzen dira eta deskribatzen dute haurtzaroaren eta nerabetasunaren inguruan bueltaka dabilen familia sistema bat. Umeei eta nerabeei

---

[105] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: 1997ko Gazteen Erretratuak. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

[106] Ibidem.

[107] EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko familien egoera. Aipatutako lana. Iturria: 1997ko Gazteen Erretratuak. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

[108] EUSKO JAURLARITZA. Departamento de Empleo y Asuntos Sociales. Aproximación a las necesidades y demandas de la infancia. Ob. Citada

gauza askoren gainean kontsultatzen zaie familiaren antolaketari dagokionez eta horrela, haien araberako intentsitate gradu ezberdinetan eta errealitateetan oinarrituz, familiaren erabakitze prozesuetan parte hartzen dute.

Funtzionatzeko modu jerarkikoak eta tradizionalak gainditzen dituzten familia eredu berri hauek, era berean senitartekoentzat espazio irekiak eta integratzaileak sortzeko aukera bat dira. Barne funtzionamenduan eta erlazioetan barneratutako balore berriek (senitartekoen arteako akordioak sustatzeko negoziazioa tresnatzat erabiltzen dituztenak), honakoak sustatzen dituzte: etxeko lanak eta ardurak bidezko moduan banatzeko akordioak, gizonen eta emakumeen irudi berriak belaunaldi berrientzat.

# 4 Famliei laguntzeko erakunde arteko II Planean ikasitakoak: emaitzak eta hobekuntza esparruak.

Familiei laguntzeko erakunde arteko III Planak honakoak suposatzen ditu: aurreko planetatik abiatuz, familia politiken zeharkako ikuspegi batera pasatzea bere sailen artekotasuna bultzatuz, Eusko Jaurlaritzako sail guztiak tartean sartzea familia ikuspegiaren barneraketan. Baita ere suposatzen du erakunde artekotasuna, EAEKo erakunde publiko guztiak familiei laguntzeko politiken eragile aktibotzat hartuz eta baita ere suposatzen du EAEko hiritarren ongizatera zuzendutako beste sistema publikoen artikulazioa (osasun sistema, hezkuntza sistema, gizarte zerbitzuen sistema …).

Aipatutako garapen esanguratsu hau ez da eragozpen bat III Planaren eraikuntzaren abiapuntuetako bat izan dadin bai aurreko bi planetan lortutako lorpenen kapitalizazioan zein proposatutako erronkak konkistatzeko estrategien optimizazioan. Intentzio honekin batzen dira atal honetan aurreko planean[109] lortutako ildo bakoitzaren aurrerapenak, balorazioak, emaitzak, ondorioak eta gomendioak. Honi esker, asmatu ditugun kasuetan eta hobekuntza esparruen identifikazioan sakondu dezakegu. Aipatu behar da lan egin dela hurrengoak oinarritzat hartuz: II Planeko 2006-2008 eta 2009 ebaluazio partzialak eta 2002-2009 uztarketarako laguntzen inguruko luzetarako ikerketa. II. Planaren indarra amaitu baino lehen, III Plana hasteko erabakia hartzeak eragin du ebaluazio finalarekin eta 2010eko datuekin kontatu ezin izatea.

[109] Ikusi "Familiei laguntzeko erakunde arteko II Plana 2006 – 2008. tarteko ebaluazioa" eta "Familiei laguntzeko erakunde arteko II Planaren egikaritzaren ebaluazioa 2009"

## 4.1 Lortutako aurrerapen nagusiak

Abiapuntu bezala, beharrezkoa da kontzientzia hartzea II Planaren zabaltzeak eta betearazpenak sortutako gastuaz. Urteroko banakapenaren arabera eta ildo bakoitzaren arabera:

**Ildo estrategiko bakoitzaren arabera eta urte bakoitzaren arabera egindako gastua**

| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|
| 1. Lege garapena | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 2. Laguntza ekonomikoa* | 32.428.820 | 37.534.032 | 37.224.300 | 37.629.768 |
| 3. Uztarketa | 20.810.564 | 20.669.185 | 16.479.534 | 22.262.635 |
| 4. Laguntza zerbitzuak** | 202.728.063 | 217.125.793 | 236.443.963 | 245.669.537 |
| 5. Politika fiskala | 230.351.777 | 234.776.000 | 236.158.815 | 250.413.000 |
| 6. Sentsibilizazioa | 437.505 | 450.630 | 460.406 | 0 |
| 7. Elkartegintzaren sustapena | 579.258 | 602.428 | 620.501 | 611.356 |
| 8. Familia errealitatearen ikerketa | 0 | 0 | 286.321 | 0 |
| 9. Planaren jarraipena eta ebaluazioa | 0 | 11.562 | 55.620 | 33.000 |
| Totala | 486.896.482 | 510.719.000 | 527.269.054 | 556.619.296 |

* Seme-alaben laguntza totala (1.go planean konprometitutako kredituak + 2. Planaren kostua 2006 -2007) + Haurtzandegientzako diru-laguntzak
** Haur eskolak + Foru laguntza zerbitzuak + Udal laguntza zerbitzuak + Familia ugariaren Karnetak + Familia bitartekaritza zerbitzua (E.J)
Iturria: Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzetako informazio ezberdinak, Famliak laguntzeko II Plana, Foru Aldundiak, e.a...

### 1.go ildoa: Lege garapena

II Planaren lorpen nagusiena da Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 legearen elaborazioa eta onarpena, horrela lege hau bihurtzen da gerora burutuko diren jarduera guztien zein aurretik existitzen ziren araudien oinarria. Honekin batera, seme-alabak dituzten familiei zuzendutako laguntzak arautzen dituen abenduaren 19ko 255/2006 dekretua garatu da eta bertan ezarri dira Planak jasotzen zituen laguntzak, mota guztietako familiei zuzendutako tratu ekitatiboagoa bilatuz. Uztailaren 17ko 118/2007 dekretuak arautzen ditu familia eta lana bateragarri egiten dituen laguntzak. 124/2008 dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dit. 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko pertsona bat kontratatzeko laguntzak arautzen dituzten Dekretuak; 3 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik

beherako haurrei arreta eskaintzeko zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzen Agindua, 2007ko abenduaren 13koa. Gabezi argi bakarra da Familien Kontseiluaren arautzea.

Ildo honen betetze maila positiboa da, honekin esan daiteke II Planaren egikaritze epeak baimendu duela hurrengo eperako lege arkitektura nahikoa eta egokia sortzea.

## 2. Ildoa: laguntza ekonomikoa seme – alabak dituzten familiei

Datuen arabera, II Planaren denboraldian, gastuaren eta estalduraren mailaz mailako handitzea eman da. Zentzu honetan, seme-alabagatiko estaldura orokorra %80koa izan da eta modu espezifikoan lehenengo seme-alabagatikoa %92koa.




Iturria: Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza 2010

**Seme - alaben jaiotza gatik eta adopzioagatik emandako diru -laguntzak**

| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|
| 1.go seme -alaba | 5.759.900 | 7.899.500 | 7.782.600 | 7.366.200 |
| 2. Seme - alaba | 9.951.900 | 9.760.800 | 11.010.800 | 10.635.900 |
| 3.Seme - alaba eta hurrengoak | 2.236.500 | 2.425.700 | 3.695.800 | 5.376.000 |
| Anizkoitzak | 1.448.067 | 2.860.633 | 2.844.200 | 2.806.500 |
| Gastuaren totala | 19.396.367 | 22.946.633 | 25.333.400 | 26.184.600 |

Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila 2010.

**Seme - alaben jaiotza eta adopzioa. Urte bakoitzean modu faboragarrian ebatzitako espediente kopurua.**

| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|
| 1.go seme -alabak | 8.123 | 10.687 | 10.626 | 10.338 |
| 2. Seme - alabak | 6.948 | 7.392 | 14.017 | 13.963 |
| 3.Seme - alabak eta hurrengoak | 1.322 | 1.563 | 2.905 | 4.340 |
| Anizkoitzak | 474 | 551 | 627 | 639 |
| Gastuaren totala | 16.867 | 20.193 | 28.175 | 29.280 |

* Urte bakoitzean ebatzitako espediente kopurua eskakizuna aurkezteko momentua kontutan hartu gabe

Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte gaietako Saila 2010.

Laguntzen beste ildo bat da familiei ematen zaiena hiru urtetik beheragoko umeei arreta emateko zentroak finkatzeko. Hau 5.000 euskal familiek erabili dute urte bakoitzean eta 12 milioietako gastua egikaritu da. Nabarmendu behar da ukapen kopuru altua (urtetik urtera handitzen joan dena) honek erakutsi dezakeelako bere diseinuan dauden zailtasunak (administratiboak, ulergarritasuna, baxuegiak diren diru sarreren muga…). Gaur egun hiru urtetik behera EAEn eskolatuta dagoen populazio kopurua %16koa da gutxi gora behera.

Azkenik, esan, hiritartasunaren balorazioa laguntza hauen inguruan positiboa dela, nahiz eta seme – alaba batek sortzen dituen kostuak jasateko nahikoak ez izan. Modu faboragarrian aipatzen da laguntza hauen mantentzea egungo egoera ekonomikoan eta zailtasun bezala aipatzen da, erizpide mugatuekin eta bakarrik errenta baxuenentzat haurtzaroari arreta emateko zentroen sarea mantentzea.

### 3. Ildoa: Familiaren eta lanaren bateratzea

Bateratzea aurrera eramateko ahaleginean, II Planak lau programa jasotzen zituen: langileei laguntzak, lanaldia murrizteko edo eszedentzia bat izateko seme – alabak zaintzeko laguntzak; mendetasun egoeran dauden pertsona helduak zaintzeko laguntzak; enpresei zuzendutako laguntzak, seme – alabak zaintzeko haien lanaldia murrizteko edo eszedentzian dauden langileak ordezkatzeko laguntzak; 3 urtetik

beherakoak zaintzeko pertsonak kontratatzeko laguntzak.

Seme – alabak zaintzeko lanaldiaren murrizketarako edo eszedentziarako laguntza erabiliena da. Honek suposatzen du gastuaren %88a (eta estalduraren %12a). Distantzia handira jarraitzen dio enpresetan ordezkapenak egitera zuzentzen dena, gastuaren %10a suposatuz. Beste biak hondar-programak dira baina gorakako joera izan dute azkeneko urteetan.




Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza.Enplegu eta Gizarte gaietako Saila 2010.

**Seme - alabak zaintzeko laguntza ekonomikoak. Gastua EAEn laguntza motaren, generoaren eta urtearen arabera.**

| | | Gizonak | Emakumeak | Totala |
|---|---|---|---|---|
| **2008** | ESZEDENTZIAK | 109.878,73 | 2.618.889,22 | 2.728.767,95 |
| | Murriz. %33-40 | 409.505 | 3.981.107,69 | 4.390.612,69 |
| | Murriz. %40-45 | 32.588,59 | 400.665,64 | 433.252,23 |
| | Murriz. >=%45 | 269.093,89 | 3.286.617,63 | 3.555.711,52 |
| | MURRIZKETAK | 711.185,48 | 7.668.390,96 | 8.379.576,44 |
| | **TOTALA** | **821.064,21** | **10.287.280,18** | **11.108.344,39** |
| **2009** | ESZEDENTZIAK | 156.148,23 | 3.792.752,99 | 3.948.901,22 |
| | Murriz. %33-40 | 672.749,66 | 6.881.752,66 | 7.554.502,32 |
| | Murriz. %40-45 | 59.381,59 | 763.592,61 | 822.974,20 |
| | Murriz. >=%45 | 456.277,21 | 5.864.601,88 | 6.320.879,09 |
| | MURRIZKETAK | 1.188.408,46 | 13.509.947,15 | 14.698.355,61 |
| | **TOTALA** | **1.344.556,69** | **17.302.700,14** | **18.647.256,83** |

Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza. .Enplegu eta Gizarte gaietako Saila 2010.

Azpimarratu behar da laguntza ildo honen feminizazioa eta jadanik aipatutako ondorioak erantzunkidetasunari eta bateratzeari dagokienez, eta baita ere gizonen eta emakumeen garapen profesionaletan dituzten ondorioak. Eszedentzia edo lanaldiaren murrizketen kasuan, eskakizunen %95a inguru (2009. urtean, murrizketen %93,72a eta eszedentzien %97,09a) eta egindako gastuaren %92a emakumeei dagokie. Datu hauek agerian jartzen dute zelan nahiz eta gizonenganako diskriminazio positiboa sustatzen den neurri hauetara sartzeko, ez da lortu bere erabilera areagotzea.

Murrizketa espedienteen portzentajea generoaren arabera 2009.

Eszedentzia espedienteen portzentajea generoaren arabera 2009.




Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza.Enplegu eta Gizarte gaietako Saila.

Aipatu behar da ere, Erakunde arteko II Planak laguntza ekonomikoen hedapena planteatu zuela, lanaldia murrizteko eta jarduna uzteko seme – alabak zaintzeko edo mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko. Hedapen hau planteatzen zen autonomoei zuzendua eta pertsona baten kontratazioari lotua, baina estatuko legeriaren mugak direla eta, ezinezkoa izan da hedadura hau burutzea.

II Planaren 3. ildoaren ondorioen osagarri bezala aurkezten dira “Lana eta familia bateratzeko neurrien luzetarako ikerketa”-aren ondorioak:

Hamar urtetan zehar,  familia ardurak (seme - alaben zaintza, edota gaixotasun larriak dituzten edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak) dituzten langileei eta bateratzeari zuzendutako laguntza neurriak garatu dira EAEn. Hauekin bilatu da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena familiaren eta lan dinamiken eta exijentzien arteko oreka handiago baten bitartez. Epealdi honetan, EAEko errealitate soziala, ekonomikoa eta kulturala, bere familiena, lan errealitatearena eta ehun enpresarialarena, garatu egin dira eta beraiekin batera familien premiak zein beraiei lotutako neurri eta araudi zehatzak. Hauek lotura zuzena mantendu dute Familiei laguntzeko erakunde arteko I eta II Planean proposatutako neurriekin. Bere kokapena gaur egun estatu mailan, batetik langileen familia eta lana bateratzeko azaroaren 5eko 39/1999 legeak, eta bestetik, geroagoko berdintasun Legeak zein Administrazio Zentralak garatutako plan ezberdinek xehatzen dute. EAEn, kokapena abenduaren 12ko Familiei laguntzeko 13/2008 egungo legean ematen

da eta hau zuzenean lotzen da IX legealdian egin den Familiei laguntzeko Erakunde arteko III Planarekin.

EAEko familien testuinguruaren analisia elikatzeko helburuarekin, “Lana eta familia bateratzeko neurrien luzetarako ikerketa” egin da eta aurkeztu berri da Eusko Jaurlaritzako  Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritzan[110]. Ezartzen dituen ondorioen artean, garrantzi berezia duten batzuk aurkitzen dira.

Lanaldiaren murrizketa da gehien erabiltzen den eta gogokoen den neurria, honek baimentzen baitu seme – alaben edo mendekoen zaintza eta lan jarduna bateratzea. Gogobetetze maila altua da eta zenbait ondorio positibo sortu ditu bai arduren onarpenean gizonen aldetik zein emakumeen ahalduntzean.

Hala eta guztiz ere, ondorio positibo hauek mugatuak dira. Etxe barruan gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna sustatzeko neurrien hamarkada baten ondoren, oraindik topatzen da emakumeen portzentaje handi bat dioena seme – alaben zaintza haiei modu esklusiboan dagokien ardura bat dela. Hau dela eta, neurrien bidez lortutako bateratze eskubideei so egiten diete haiei bakarrik zuzendutako posibilitate bezala eta ez gizon zein emakumeei zuzendutako aukera bezala. Gehiengoak ikuspuntu hau dauka eta honek baldintzatzen ditu, parametro kulturaletatik abiatuz, erantzunkidetasunaren aurrerapena eta bere eraginkortasuna bateratzean, eta baita ere garatu beharreko neurri zehatzak. Ondorio bezala mantentzen da, aldaketa gutxirekin, eskura dauden bateratze neurriak hartzen dituzten pertsonen feminizazioa.

Familien barnean, gizonek eta emakumeek diote izaera ekonomikoko eta kulturaleko erizpideak ezartzen dituztela erabakitzeko nor den pertsonarik egokiena neurriak erabiltzeko.  Bi erizpide horien konbinazioak “feminizazioa” eragiten jarraitzen du: aurreko paragrafoan aipatutako gertaera kulturalari gehitzen zaio errealitate

[110] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte gaietako Saila. “Estudio longitudinal de las medidas de conciliación de la vida laboral y familiar 2011.”

ekonomikoa, honek seinalatzen baitu emakumeek orokorrean eta batezbestekoei so eginez, gizonek baino diru sarrera urriagoak dituztela.

Dinamika ekonomiko eta kultural hau beste zirkunstantzia batekin indartzen da. Aldaketarik gabeko bateratze neurrien erabilera paraleloa familiaren barnean eta enpresan, erabiltzen dituztenen bizitza profesionalean eragina dauka. Ondorio bezala, emakumeek orokorrean diru sarrera txikiagoak izateagatik bikotearen barnean, nahiago dute neurri hauetara sarbidea izatea eta horrela bere botere profesionala baldintzatuta ikusten dute, haien gainditzea zailtasun handiagoarekin begiratzen dute eta indartzen dute haien mantentze laborala gizonenak baino eskasagoak diren soldata zerrendetan.

Joera hauen aurrean, gizonek aipatzen dituzte haien zailtasunak bateratze neurriak eskatzeko eta erabiltzeko. Zailtasun hauek lan egiten duten enpresetan nagusi diren baloreekin zerikusia daukate eta hauek urrun daude haien gizonezko langileen familia erantzunkidetasuna modu positiboan kontsideratzeaz. Presio soziala eragiten dute haiengan eta horrela haien familietan sortutako ardurak, emakumearekin bat parte hartzeko bere gogoa ikusgarri egiten ez duen gizon estereotipo bat definitzen dute.

Azkenik, nahiz eta adierazi den bezala populazioaren aldetik balorazioa positiboa izan, erantzunkidetasuna lortzeko eraginkortasuna eta bere efektua emakumeen ibilbide profesionalean, lotuta dago ahalegin doble eta koordinatu batekin. Azkeneko urteetan ezarritako eta inplementatutako neurrien bateratzea eta konbinazioa beharrezkoa gertatzen da. Honekin batera aldaketak behar dira baloreekin erlazionatutako ohitura kulturaletan, presio sozialean, portaera publikoetan eta enpresetan. Ahalegin honi (baliagarriak eta beharrezkoak diren) neurri ekonomikoekin batera heldu behar zaio. Horrela, batetik modu eraginkorrago batetan indargabetzen da emakumeen aukera pertsonalak, profesionalak, laboralak eta sozialak mugatzen dituen rol femenino horren mantentzea eta bestetik, familien bizitzaren antolaketa benetan transformatzera laguntzen da.

## 4. Ildoa: Familiei laguntzeko zerbitzuak

Ildo hau, II Planaren ildorik heterogeneoena da neurri kopuru handia eta erakunde arteko konpromiso garrantzitsuenak batzen dituelako ( politika fiskalaren errentaren birbanatze neurriarekin batera).

### Familia ugariak eta izatezko bikoteak

Batetik, epealdi honetan zehar egin diren familia ugarien ziurtagirien kopurua areagotu egin da 18.191era ailegatuz, ziur aski titulu hauekin batera ematen diren abantailen ezagupen handiagoa dela eta. Bestetik, urte hauetan egin den eta izatezko bikoteak arautzen dituen 2/2003 euskal legearen garapenak , amaitu du familia eredua osatzeko haien askatasuna mugatzen zuen pertsonen diskriminazio legalarekin. 2009an eman ziren 5.000 izen – emate eta 2003tik aurrera zenbatu dira 13.000 izen – emate totalean.

### 3 urtetik beherakoentzako haur eskolak

Baita ere aurrerapena egin da 3 urtetik beherakoentzako tokietan eta haur eskoletan. Estaldura areagotu egin da EAEn eta hau dela eta, populazioak adierazten du gogobetetze maila moderatua, sarbidea, kostua eta ordutegien antolaketa ez direlako gehiengoaren gustukoak.

Tokien estaldura 0 – 1 urte.




Tokien estaldura 1 – 2 urte.




Iturria: Ikastetxeen zuzendaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila 2010.

## Laguntza etxebizitzan

II Planaren barnean, etxebizitzari eta bere sarbidea laguntzeko neurriei dagokienez, (alokairuko etxebizitzen erreserba, BOE-en erreserbak, jadanik etxebizitza duten familia ugarien sarbidea babes ofizialeko etxebizitzen erregistroan) eta batez ere guraso bakarreko familien eta familia ugarien esparruan, ez dira aurrerapen asko aurkitzen. 2009an 93 etxebizitza erreserbatu dira alokairuan adin txikikoak dituzten guraso bakarreko familientzat eta 5 BOE, 5 senitarteko baino gehiago dituzten familia ugarientzat. Gainera, jadanik etxebizitza (baina 15m2 baino gutxiago persona bakoitzeko) duten 25 familia ugariei esleitu zaie etxebizitza babestua ez ohiko izaerarekin. Birgaitzea egiteko laguntzek nolabaiteko garrantzi kualitatiboa izan dute eta 1.200 familia ugarientzat onuragarria izan da.

## Familiara orientatutako Gizarte Zerbitzuak

II Planaren ildo honek baita ere jasotzen ditu familiara orientatzen diren gizarte zerbitzuen garapena eta pertsona hartzailearen familia ingurunea kontutan hartzen duen gizarte zerbitzuen jardueren definizio hobeago bat. Nahiz eta azken urte hauetan bultzada handia eman zaien gizarte zerbitzuei eta Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoari ( lege berriaren elaborazioa, garapena eta onarpen prozesuaren ondoren) momentu honetan ezin da emaitzen inplementazioaren balorazioa egin II Planean ez zirelako zehaztu bestelako administrazioen aldetik Zerbitzuen Zorro bati lotutako ekintzak eta neurriak. Bakarrik seinalatu daitezke modu espezifikoan, familia bitartekaritza zerbitzuak erabili dituztela maila sozioekonomiko baxu - ertaina eta baxua duten familiak eta batez ere izan direla emakumeak zerbitzu hauek eskatu dituztenak. Babes aginduak dituzten emakumeen kopurua mailaz maila areagotu da. Egoera hau ematen da kudeatzen duen administrazioa edozein dela.

**Adineko pertsonentzat zenbait Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile eta toki kopurua eta estaldura indizea.**

| | EAZ | Telelaguntza | Tokiak Eguneko Zentroetan | Tokiak Etxeetako gizarte zerbitzuetan * |
|---|---|---|---|---|
| Erabiltzaileak EAE | 21.891 | 14.333 | 3.500 | 18.096 |
| Erabiltzaileak Espainia | 358.078 | 395.917 | 63.446 | 339.079 |
| Estaldura indizea** EAE | 5,45 | 3,57 | 0,89 | 4,51 |
| Estaldura indizea** Espainia | 4,69 | 4,72 | 0,83 | 4,44 |

* Etxeetako gizarte zerbitzuak barne hartzen ditu: toki kopurua: egoitzetan, babespeko etxebizitzak, abegi familiarra eta egoitza apartamentuak.

Estaldura indizea: erabiltzaile edo toki kopurua/ >65eko populazioa*100

Iturria: IMSERSO Foru Aldundien datuetatik.

Azkenik, ildo honetan batu behar da adin txikikoen eta mendeko egoeran dauden pertsonen arreta zerbitzuen balorazio positiboa populazioaren aldetik, hauek familia eta lana bateratzera laguntzen dutelako. Kontrako egoeran agertzen dira esparru honetan lan egiten duten erakunde sozialak, hauek antzematen dituztelako gabezia handiak zerbitzuetan, batez ere mendekotasunari ematen zaion arretaren garapen geldo eta urrian eta ikasketa zentroen ordutegien antolaketan eta kostuan.

## 5.Ildoa: Politika fiskala eta errentaren birbanatzea.

II Planak jasotzen zuen berariazko ildo bat bezala familiekin erlazionatutako politika fiskala. Urte hauetan zehar adierazi behar da PFEZaren zerga-kenkariak jaso dituzten pertsonen kopurua areagotu dela (ondorengoengatik, seme – alaben mantenuagatik, urritasunengatik, familia ugarien ohiko etxebizitzaren alokairua dela eta). Kopuru honetan salbuespen dira hurrengoak: aurreko ahaideak eta familia ugarien ohiko etxebizitzaren erosketa. Politika fiskala familiei laguntzeko tresna zentralean bihurtu dela indartzen du gertaera honek. Bere garrantzia beste tresnarena bezain esanguratsua da, beste hau populazioari zuzendutako zerbitzuen garapenean datza eta sarri aurkezten dira bi tresna hauek kontrajarri edo bateraezin bezala.




Ondorengoekin erlazionatutako zerga-kenkariak, 231 milioietatik 2007an, 246 milioietara pasatu dira 2008an, honek %6,4 gehikuntza suposatu du. Aurreko ahaideekin erlazionatutako zerga – kenkariek onura bat suposatu dute 11.669 familientzat 2008an 3 milioietako totalarekin. Baita ere 2008an seme – alaben elikagaiekin erlazionatutako 11.531 aitorpen egin dira eta zenbatekoa 2,7 milioietakoa izan da. Familia ugarien ohiko etxebizitzaren erosketarekin erlazionatutako zerga kenkariak 2008an 9,5 milioi suposatu dituzte eta familia ugarientzako ohiko etxebizitzaren alokairuak 426 kasutan erabili dira 584 mila eurotako totalarekin.

## 6. Ildoa: Sentsibilizazio soziala

II Planaren egikaritzan, informazio eta publizitate kanpainek, kongresuek eta jardunaldiek garapen urria izan dute. Populazioak uste du eskura dauden laguntzen inguruko ezagupena baxua dela (10etik 5 baino gutxiago epigrafe guztietan) eta

gainera , kontutan hartu behar da familien barne antolaketarekin erlazionatuta dauden patroi kulturalak funtsean ez direla aldatu (EAEn bateratze politiken inguruko 3. kapituluan aipatu den bezala).

## 7. Ildoa: Elkarte mugimenduaren eta parte – hartze hiritarraren sustapena

II Planak jasotzen zuen elkarte mugimenduaren garapena bai familiei laguntzeko politiken elementu zentral bat bezala zein elementu parte – hartzaile bezala. Hartara, II Planak, elkarte mugimenduak duen balorea eta baita ere gizartean betetzen dituen funtzioak aitortzen ditu bai familia multzoaren zein administrazio publikoen aurrean. Epealdi honetan zehar, diru – laguntzentzat eskura egon den aurrekontua mailaz maila gehitu egin da 2009ko salbuespenarekin. Gainera, "open government" kontzeptupean eta internet bidez hiritarrak sarbidea izan dezaten, Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen Irekia web ataria, hiritarrekin elkar erlazionatzeko espazioak indartu nahi dituen ekimen bat da. Ahalegin hauek guztiek, areagotzen den garapen bat markatzen dute nahiz eta emaitzen balorazioa zaila gertatzen den.

**Aurrekontua eta diruz lagundutako programak**




Iturria: EAEn familiaren esparruan programak eta ekintzak egiteko diru – laguntzak arautzen eta deitzen diren aginduak.

### 8. Ildoa: EAEn familiaren errealitatearen ezagupenaren ikerketa eta hedapena.

Ildo honetan, egindako ikerketa nagusiena 2008ko Familien inguruko Inkesta izan da. Honek EAEn familien egoeraren eta osaketaren inguruan ezagutza handiagoa eskaintzen du. Gaur egun Gizarte gaietako Sailburuordetzako beste zuzendaritzekin batera, informazioaren kudeaketaren modernizazioa eta berrikustea garatzen ari da. Honekin, existitzen diren behatokien koordinazioa eta optimizazioa bilatzen da.

### 9. Ildoa: Planaren jarraipena eta ebaluazioa

2006 – 2008 eta 2009ko tarteko ebaluazioak egin dira eta baita ere Planaren egokitzapena eta ahokadura baimendu duen jarraipena. Ekintza esanguratsu batzuk Planaren neurri nagusien jarraipenari eta bere analisiari esker garatu dira.

## 4.2 Balorazioak

### Euskal gizartearen balorazioa

Euskal gizarteak modu positiboan baloratzen ditu familiei eskaintzen zaizkien laguntzak, haur hezkuntzako tokietatik, zerga kenkarietara… Akordio falta nagusienak helburuak lortzeko kopuruak urritzat hartzeagatik eratortzen dira. Programen erabiltzaile izanda edo ez, euskal populazioak jotzen du laguntza ekonomiko eta baliabide gehiago falta direla esatera (eskola ordutegi zabalak …). Modu positiboan baloratzen dute ere laguntza hauek suposatzen duten erraztasuna lanarekin erlazioa mantentzeko eta familiaz kargu egiteko (9tik 6 batekin).

### Aktoreen balorazioa

Ebaluazioan parte hartu duten aktoreen aniztasunak baita ere balorazioaren inguruko ikuspegi anitza suposatzen du balorazio hauek egiten diren ikuspuntuaren arabera. Modu orokorrean aipatu behar da kasu bakan batzuetan planteatzen dela berrikuste kritiko orokor bat eta kasuen gehiengoan planteatzen direla egokitzapen partzialak edo neurrien eraginkortasun handiago bat errazten duten izaera eraginkorreko ahokadurak.

### 4.3 Lortutako emaitzak

1. Planak familia eredu ezberdinak eta bere seme – alaben eskubideak sustatu eta babestu ditu. Programetan emandako aldaketak ildo honetatik doaz eta horregatik II Planak helburu hau lortu duela esan daiteke. Eskakizun nagusienak eskatzen dute sentsibilizazioaren gehikuntzaren garapena.

2. Zerbitzuen zorroaren analisiari eta eraginkorragoak diren neurrien erabakimenari dagokienez, positiboki baloratu behar dira egindako analisiak, ebaluazioak… eta programen etengabeko egokitzapena.

3. Politika koordinatu eta integral bat lortzearen helburua ziur aski izan dela bere lorpenerako ahalegin handiena suposatu duena. Gauzapen hau gertatzeko pausuak eman direla egia bada ere, informazio Sistemak zatikatuak izaten jarraitzen dute eta administrazio ezberdinekin dauden kontaktuak, bereziki toki mailan, erakusten dute deszentralizazio maila nagusienean neurriek osagarri “autonomo” bat dutela Plan batenak baino.

4. Familien eta senitartekoen ongizatearen mailaren hobekuntzara egindako ekarpena modu positiboan baloratu behar da berriro ere, honek erabilgarri egiten dituelako familientzako baliabideak, honakoak erraztuz: beharrezkoak diren zerbitzuak hezkuntzaren alorrean, etxez – etxeko laguntza, umeentzako arreta, familia bitartekaritza … Berriro ere, analisi honen zailtasuna, ekarpen hau nahikoa den edo ez ezartzean datza.

5. Bikoteek eta pertsonek haien familia proiektua hasteko eta nahi beste seme – alaba izateko dituzten zailtasunen murrizketa edo deuseztatze progresiboari dagokionez, nabaria da II Planaren neurriek ildo hau jorratu dutela. Kontutan hartu behar da deuseztatze helburu progresibo bat ezartzen duela. Hau behar bada ikuspegi errealista bat da bere eskuduntzatik kanpo geratzen diren alderdiak daudelako eta hauek eragin handia dutelako esparru honetan: lan merkatuaren egoera eta ekonomiaren egoera orokorra, etxebizitzara sarbidea izateko aukerak… Hau da, laguntzek modu argian efektu partziala suposatzen diote seme – alaba bat izatearen kostu totalari, edo lanaldia murrizteari edo eszedentzia bat eskatzeari dagokienez. Horrela, azken urteek ikusi

badute Euskadiko jaiotze tasen hazkundea, azkeneko kopuruek aditzera ematen dute krisiaren bilakaerarekin batera kopuruak jeitsi direla.

6. Emakumearen lan txertaketa eta garapen profesionala errazteari dagokionez, eta neurriak helburu hau lortzera lagun dezatelaren inguruan, honakoak analizatu beharko lirateke modu zehatzean: ea laguntzen ari ba dira lan merkatuan emakumearen bigarren mailako rola mantentzera, ea bakarrik suposatzen duten laguntza ekonomiko bat edozein modutan emango litzatekeen egoera batean, edo benetan mesede egiten dioten gero lanean berriz txertatzera lan merkatuarekin loturak mantentzen direlako.

7. Pertsonen eta erakundeen balorazioen eta eritzien arabera, Planak nolabaiteko hazkundea sustatu du parte – hartzean eta sentsibilizazio sozialen, nahiz eta mentalitatearen inguruko emaitzak, bereziki eremu batzuetan, oraindik ere mugatuak izan diren eta ahalegina ere txikiegia izan den.

8. Gizonen eta emakumeen erantzunkidetasunaren kasuan, nahiz eta hau lortzeko neurri espezifikoak helburu izan diren, bete ez den helburu bat bezala baloratu daiteke. Gizonak oso poliki doaz seme – alaben eta mendetasun egoeran dauden senitartekoen zaintzara gehitzen. Nahiz eta kopurua urtero hazten den, multzo orokorrean duen eragina minimoa da eta honek beste sail batzuekin eta irismen handiagoa duten estrategia koordinatuen beharra kontutan hartzera eramaten du.

9. Familia ardurak eta ardura profesionalen bateratzearen helburuari mesede egin dio hiru urtetik beherako haur hezkuntzako tokien garapenak eta neurri txikiago batetan -bere ezarketaren atzerapena dela eta- mendekotasun egoeran dauden pertsonei zuzendutako arretarekin erlazionatutako jarduerak.

10. Planak proposatzen duen azkeneko xedea belaunaldien arteko elkartasunaren sustapena da. Nahiz eta helburuaren definizioa oso esplizitua ez izan, suposatu daiteke adineko zein adingabeko pertsonen zaintza helburu honetan txertatzen dela eta zentzu honetan Planak baita ere bere garapenera kolaboratu du, sentsibilizazio neurrien kasuan bezala.

## 4.4 Oinarrizko ondorioak

- Planean egiten den diagnosia gaur egun indarrean jarraitzen du: bertan islatzen diren kezka eremuak ez dira modu garrantzitsuan aldatu (jaiotze tasa baxua nahiz eta pixkat gora egin, emantzipazioaren berandutzea, familia arduretan eta lan merkatuan gizonen eta emakumeen parte – hartze desberdintasuna).

- Familiei laguntzeko ahalegina Planean zehar mantendu da eta nahiz eta krisi garaian egon eta estatuan dagoen egoerarekin konparatuta, ahalegina handitu eta indartu da. Zentzu honetan, garapena mantendu da zerbitzuen erabiltzaileetan, laguntzen hartzaileetan … hauek orokorrean goranzko joera izan dute, baita ere 2009an.

- Lortu nahi diren helburuei gehien eragiten dizkieten faktoreetako batzuk Familia Politikaren irismen zuzenetik at geratzen dira. Planetik, sustatu, erraztu , beste sail batzuen koordinazioa eta mobilizazioa bilatu daiteke … baina zailtasunez lortu daitezke adibidez, aldaketa sakonak lan merkatuan. Aldaketa honek, gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna eskatzen du premia duten senitartekoak zaintzeko ( seme-alabak, mendeko pertsonak).

- Nahiz eta hazkundea gertatu den, Familiei laguntzeko politikak EAEn jarraitzen dute, esparru batzuetan salbu, inguruko aurreratuenetariko herrien egoeraren azpitik modu argian (batez ere iparraldeko herriak, baina baita europar herri aurreratuen gehiengoaren azpitik). Honek hobekuntzarako aukera handiak uzten ditu baita ere eremu honetan.

## 4.5 Gomendio eraginkorrak

1. Jaiotzagatik ematen zen 2.500€-tako prestazioa kentzeak 2011ko urtarriletik aurrera, seme-alabak dituzten etxeetako ekonomietan berehalako ondorioa izan du. Honen aurrean, EAEn laguntzak eta aurreikusitako ahaleginak mantentzen dira nahiz eta krisialdi egoeran egon.

2. Hiru urtetik beherako umeak dituzten familiei zuzendutako laguntza ekonomikoei dagokienez, hauek haurtzaroaren arretarako sarean sarbidea izan dezaten, eragile

batzuk aipatu dute kudeaketa sinplifikatzeko aukera. Horretarako seinalatzen dute egokia dela sarbide tarteak hobetzea.

3. Bateratze laguntzak berrikusi berriak dira. Horregatik itxaron beharko da bere garapen erreala ezagutzera izan litezkeen aldaketak proposatu baino lehen.

4. 3 urtetik beherakoentzako eskolen esparruan, kostuaz gainera, ematen du batez ere lanaldi murriztua edo etengabea duten langileei zuzentzen direla. Baina gehiengoak lan egiten du lanaldi zatituan, beraz honek ordutegiak malgutzearen premia aditzera ematen du.

5. Etxebizitzaren alorrean, politika orokorrak familia politikarekin modu eskasean erlazionatzen dira, baina garrantzitsua litzateke jarraipen adierazleak barneratzea familiaren eta haurtzaroaren arreta ikusarazteko.

6. Gizarteratzearekin erlazionatzen diren aspektu zehatzei dagokionez, familiei laguntzeko planek Diru sarreren Berme Errentari erreferentzia barneratuko beharko lukete. Gizarteratzeko programak familiei zuzenean zuzentzen ez direla egia bada ere, eragin argia dute haiengan.

7. Zerbitzu sozialekin erlazionatutako beste esparru zehatz batzuetan Foru Aldundiekin eta udalekin ematen den koordinazioa hobetu beharra dago, hauek eskuduntza nagusienak baitituzte eremu honetan eta bestalde ere familietan egiten diren esku –hartzeak ikusgarri egin behar dira hauek familietan dituzten efektuekin batera.

8. Egindako ebaluaziotik eratortzen da baita ere berezkoak dituen jarraipen eta ebaluazio adierazleen hobekuntza. Planaren helburuen zehaztasun faltak, ebaluazioa "objektiboak" diren parametroetan kokatzeko zailtasunak dakartza.

9. Egindako ebaluazioa, funtsezko aldaketa proposamenak egiterako orduan, zenbait mugekin edo hutsuneekin topatzen da. Neurri batzuen inguruko aldaketa hauek, sakoneko ikerketak beharko lituzkete. (Ad-hoc) Ikerketa hauek, helburuekin erlazionatutako neurrien eraginkortasuna baloratzeko aztarna garrantzitsuak eman ditzakete edo baita ere beste esku – hartze batzuen martxan jartzea erraztu.

## 4.6 Gomendio estrategikoak

1. Politika batzuek, laguntza ekonomikoak azpimarratzen dituzte, beste batzuek aldiz, familiek eskura dituzten zerbitzuak. EAE-aren kasuan, prestazio ekonomikoek zein zerbitzuek hobekuntzarako arlo nabarmenak dituztela esan daiteke, batez ere hauek gure inguruko herri aurreratuenekin alderatu nahi badira.

2. Erreferentziazko herrietan ikusitako joera geroz eta handiagoa da politika fiskala erabiltzera egoera ezberdinen araberako diru-sarrera maila jakin bat bermatzeko. Honek kolektiboan oinarritutako laguntzen zatiketa ekiditen du eta berarekin erantsita dakarren kudeaketa eta kontrol kostu garrantzitsua. Ildo honek jadanik suposatzen du Euskadin familiei egiten zaien diru-sarreren transferentziarik nagusiena.

3. Lanaren esparruarekin kooperazioa, familia bizitzaren eta lanaren bateratzea laguntzeko. Bateratze politikek, lanaren bermea kalitatezko zerbitzuekin konbinatzen dute. Zerbitzu hauek jaiotze tasa altuagoak lortzerako orduan eraginkorragoak izateko joera daukate.

4. Enpresa txikiak menderatzen dituen euskal ingurunean, malgutasunaren egokitzapenean eragiten duen kultura organizatiboen aldaketa bat eragitea beharrezkoa da, baita ere organizazioen produktibitatearen eta eraginkortasunaren ikuspuntutik.

5. Plana definitzen duten ildo estrategikoen aldaketak, ikusten denez, beste erakunde batzuetaz gain, eskatzen du Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin kolaboratzea.

6. Gizartearen eremu guztietan berdintasuna eta elkartasuna sustatzen dituzten baloreen garapenaren eta sentsibilizazioaren alde aurrera egiteko apustua egin behar da, baita ere familiaren esparruan.

# 5 EAEko familiei laguntzeko erakunde arteko III Plana

## 5.1 Planaren justifikazioa

EAEn Familiei laguntzeko erakunde arteko III Plana IX. legealdiko gobernu programan txertatzen da. Bertan familiei laguntzeko proposamen ugari jasotzen dira. Haien artean nabarmentzen dira:

- familia bitartekaritzaren legearen araudiaren garapena, familien elkarguneak, familien Behatokiaren martxan jartzea, Familien euskal Kontseilua martxan jartzea eta Familiei laguntzeko legean aurreikusten diren neurrien garapena.

- euskal administrraritza publikoan eta arlo pribatuan bateratze erantzunkidean aurreratzea eta sakontzea, hau baimentzen duten baliabideen eta zerbitzuen handitzea.

- familia politikan, nahiz eta krisi egoeran egon, gastu soziala euskal BPGaren %2,2ra hurbiltzea mailaka, horrela europar batezbestekoarekin bat egiteko.

- familien tratamendu fiskal egokia, jaiotzagatiko, adopzioagatiko eta ardurapeko seme-alabagatiko ematen diren laguntza batzuen mantentzea eta aurrerapen progresiboa;

- etxebizitza politikaren eta familia politiken arteko ahokadura eta taxutzea; familien esparruko elkarte ehunaren sendotzea;

- mendekotasun egoeran dauden edo adin txikikoak diren pertsonak dituzten familien dimentsio zaintzaileari arreta; familiak eta beraien aniztasunak osatzeko dauden modu ezberdinak aitortzea eta ikustaraztea (aniztasun sexualak, kulturalak, etnikoak …);

- familiaren zeharkako ikuspegiaren barneraketa osasunaren eta justiziaren esparruetan.

- Eta abar.

Enplegu eta gizarte gaietako sailburuak deskribatzen duenaren arabera, babes soziala administrazio publikoen lana da. Lan hau, hein batetan dokumentu honetan agertzen den hurrengo lau urteetarako planifikatu den familia politikan gauzatzen da.

Sailetik, sail arteko, erakunde arteko eta sozial mailako kolaborazioa lanerako tresna bezala azpimarratzen da. Zentzu honetan Familiei laguntzeko erakunde arteko III Planak aurrera egin nahi du. Hartara, Familien Euskal Kontseilua berehala martxan jarriko duen neurria azpimarratu nahi da eta eremu sozialean, politika publikoetan aurrera egiteko modu bezala, hirugarren sektorearekin ematen den erlazioen gardentasuna eta finantzaketa baita ere landu nahi dira.

Bestalde, legealdi honetan, familien bizitza kalitatean eragin argia duten mugarriak agertzen doaz. Beraien artean daude enpleguaren poltika aktiboen transferentziaren bereganatzea, zerbitzu sozialen legearen garapena eta bere zorroa, eta adingabeak zaintzeko eta babesteko legearen garapena.

Era berean, legealdi honetan aurrera egin nahi da modu garrantzitsuan politika sozialen I+G+B –an, era berezian landu nahi da politika sozial ezberdinen arteko espazioak edukiez betetzea.

Familia elkarguneek eta haustura egoeran dauden familien egitura hobetzeko eta homogeneizatzeko lanek zenbait neurri dituzte Plan honetan.

Bestalde, zaila dirudi berrikuntzan aurrera egitea errealitatearen behaketa egokia egiten ez bada, eta honezkero Familiaren Behatokia martxan jarri nahi duen neurriak, bat egiten du esparru honetan aurrera egin nahi duen gobernuaren politikarekin.

Azkenik, plan honetan berrikuntzan eta garapenean ematen den aurrerakada gauzatzen da, bertan erantzunkidetasuna eta malgutasuna hobetzeko neurriak barneratzen diren heinean. Zentzu honetan berrikuntza sozialeko neurriak inplementatu nahi dira hurrengoen inguruan sentsibilizatzeko: genero berdintasuna, belaunaldien arteko solidaritatea eta familien senitarteko ahulenen babesa.

Afirmazio hauek guztiek gauzapen praktikoa dute zabalagoa edo murritzagoa den neurrien multzo batean, kasuan kasu.

Familiei laguntzeko politiken Lehendakariaren bultzada, indar bereziarekin adierazi da aurrerapen sozialaren aurrera pausoak azpimarratu diren momentuetan. Aurrerapen sozial hau, egoera zaurgarrian edo momentu bereziki latza pasatzen ari diren pertsonei arreta berezia jartzen dieten politika eta eskubide sozialak hedatzeko gogoari lotuta dago. Zentzu honetan, familia agertzen da babestu beharreko ongizatearen estatuko oinarrizko euskarrietako bat bezala.

Besteak beste, Plan honek bere ildo estrategikoak eta neurriak Lehendakariak bere gobernu programan proposatutakoetan oinarritzen ditu: familiaren aniztasuna, bateratze neurriak, erantzunkidetasuna, sustapen femeninoa eta lan femeninoa laguntzea, hobekuntzak zerga arloan, laguntza zuzenen hazkundea, eskolatzea, etxebizitza beharrei arreta berezia, Europar Batasuneko helburuekin bat egitea, e.a

Bai lehendakariak zein Enplegu eta Gizarte gaietako sailburuak agertutako izpirituaren eta intentzioaren gauzapenaren adibide praktiko gisa, ikus dezakegu 2011an eta nekazal emakumearen estatututik abiatuta, lortu dela lursailen partekatutako titulartasuna, horrela emakume eta gizonen arteko berdintasun maila handiagoak lortuz. Aurrera pausu hau, politika publikoen inguruko gobernu ekintzaren izpirituaren eta praktikaren adibide bezala hartu daiteke.

Kontutan hartu behar da, Gobernuak bere programaren konpromisoak jarduera ekonomikoan gauzatzako duen testuinguru ekonomikoa ez dela egokiena. Gaur egungo krisiak, Familiei laguntzeko erakunde arteko III Planaren norainokoa baldintzatzen du eta errealismo dosi altuak eskatzen ditu. Baina errealismo hau ez da eragozpena III Planak familiei laguntzeko neurri ekonomikoetatik areago joateko helmuga jar dezan. Hain zuzen ere, III Plan honek familia politikan aldaketa kualitatibo bat bultzatzea bilatzen du: eraikitako zeharkako eta erakunde arteko ikuspegietan islatzen diren norabide berriak zabaltzen ditu. Bere irismena Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritzatik egingo den kudeaketatik areago doa eta zuzenean tartean sartzen ditu Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinak eta EAEko administrazio publikoaren beste maila batzuk ( foru aldundiak eta udalak) koordinazio espazio eta neurrien bitartez.

Jarraian III Planaren atal zentrala aurkezten da. Lehenengo momentu batetan Misioa, Ikuspegia eta printzipioak aurkitzen dira eta geroago, bere lau ildo estrategikoak bere oinarriekin, helburuekin eta neurriekin. 1.go eta 2. ildoak hiritartasunari zuzentzen dira, zerbitzuak, prestazioak eta familiek jasotzen dituzten atentzioak indartzeari eta familiek gizartean duten garrantzia ikusgarri egiteari. 3. eta 4.ildoek barrura begiratzen dute, familiei zuzendutako programak eta zerbitzuak posible egiten dituzten eragile ezberdinen jarduera modu egokian ordenatzen dute eta familia politikarentzat alor berriak sortzea baimentzen dituzten espazioak eta esperientziak garatzen dituzte.

## 5.2 Misioa, ikuspegia eta printzipioak.

**Familiei laguntzeko 13/2008 legearen** esparruaren eta oinarrien barnean, **EAEn Familiei laguntzeko erakunde arteko III Planak** , adierazten du bere **Misioa** dela:

"Familien eta bere kideen bizi-kalitatearen eta ongizatearen hobekuntza"[111], "babesaren, arretaren eta laguntzaren" bitartez, "bai Autonomia Erkidegoan familien alde indarrean dauden neurrien osotasun koherentearen antolaketaren bitartez zein beste hainbat laguntza-neurri berrien arautzearen bitartez"[112].

Eta bere Ikuspegiak honakoan jartzen du gogoa:

- Familiaren funtzioen garapenerako aukeren aurrerapena baldintza hoberenetan, bere ordezkapena, bitartekoetan delegatzea edo erantzunkidetasunetik abiatuta familia, lana eta norberaren bizitza uztartzeko ezintasunaren aurrean amore ematea eragozten duten beharrezko laguntzen eskaintzaren bitartez.
- "Familiaren ikuspegiaren" sustapena, familietan ematen den inpaktua kontutan hartzen duten programen eta zerbitzuen ikuspegian, diseinuan, analisian,

[111] 13/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa, I.go Titulua , 1.1 Art.

[112] 13/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa, I.go Titulua , 1.2 Art.

garapenean, kolaborazioan eta ekarpenean.

III Planak bere egiten ditu familiei laguntzeko 13/2008 legearen 3. artikuluan adierazitako baloreak; hauek dira:

- Familia-proiektuari buruz erabakitzeko eta hautatzeko eskubidea errespetatzea.
- Familiako kide guztien eskubideak errespetatzea, kide horien adina eta autonomia-maila edozein delarik ere.
- Familia-aniztasuna errespetatzea eta familia-mota guztiak berdintasunez tratatzea.
- Emakumeek eta gizonek aukera berak izatea, eta erantzukizunak bikotekide biek partekatzea.
- Familiak betetzen duen eginkizuna aitortzea, familia belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasun-eragile nagusia den aldetik.
- Familiak betetzen duen eginkizuna aitortzea eta errespetatzea, familiak hainbat balio transmititzen dituen aldetik, hala nola askatasuna, elkartasuna, errespetua, tolerantzia, berdintasuna, aniztasuna, parte-hartzea eta elkarbizitza, baita, oro har, gizarte-elkarbizitzarako printzipio demokratikoak transmititzen dituen aldetik ere.
- Elkartasuna izatea egoera bereziki ahulean dauden edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua duten familiekin.
- Familia osatzen dutenek autonomia izatea, esparru horretan erabateko garapen pertsonala lor dezaten.

Aurretiaz aipatutako funtsezko balio horietan oinarriturik, legeak ondoko printzipio inspiratzaileak ditu:

- Herri-erantzukizuna. Aurreikusita dauden neurri guztiak taxutu, arautu eta aplikatu behar dira, eta euskal herri-administrazioen erantzukizuna da, bakoitzak bere eskumenen esparruan, hori bermatzea.

- Unibertsaltasuna. Euskal herri-administrazioek familia guztiei bermatu behar diete Familiei laguntzeko 13/2008 legean edo ordenamendu juridikoaren gainerako arauetan unibertsal gisara definituriko prestazio eta zerbitzuetara iristeko bidea. Ezarritako baldintzek ez dute auzitan jarri behar printzipio inspiratzaile hori.

- Berdintasuna eta ekitatea. Euskal herri-administrazioek familia-mota guztiei errespetua sustatu behar dute, direnak direla familien osaera eta tamaina edo familia-unitate bakoitzaren oinarrian dauden bikote-harremanen eta seme-alabatasunaren izaera; eta, ekitate-printzipioa dela bide, babes handiagoa eman behar diete egoera bereziki ahulean dauden familiei.

- Sustapena. Euskal herri-administrazioek familiak betetzen duen eginkizuna aitortu, sustatu eta babestuko dute, familia belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasunerako eta balio-transmisiorako eragile nagusia den aldetik.

- Aurrea hartzea edo Prebentzioa. Euskal herri-administrazioek behar diren neurriak taxutuko dituzte egoera bereziki ahulean dauden familietan laguntzarik ezari, babesik ezari, egokitzeko ezintasunari, bazterketari, abandonuari edo babesgabetasunari aurrea hartzeko.

- Gizarte-ekimenaren parte-hartze aktiboaren sustapena. Euskal herri-administrazioek familiei babesa, arreta eta laguntza emateko planak eta programak egitearen eta aplikazioaren bitartez gizarte-ekimenaren parte-hartzea sustatuko dute.

- Bitartekotza. Euskal herri-administrazioek behar diren baliabideen taxutzea eta aplikazioa sustatuko dute familia barruko gatazkei aurrea hartzeko eta gatazka horiek murrizteko edo bideratzeko.

- Aukeratzea. Euskal herri-administrazioek behar diren baliabideak sustatuko dituzte, adingabeko seme-alabak eta beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaindu eta horiei arreta emateari dagokionez familiek aukera bat baino gehiago eskura izan dezaten.

Familiei laguntzeko 13/2008ko legeak aipatzen dituenetaz aparte, EAEn familiei laguntzeko erakunde arteko III Planak bere praxiaren erreferente bezala hurrengo printzipioak aitortzen ditu:

- Uztarketa erantzunkidea, pertsona guztiak eta gizarte osoa ahalegin honen parte direla sentiarazten dieten tresna berrien eta eraginkorren bilaketatik abiatuz.
- Familien eta bere gaitasunen ahalduntzea, bere bizitza proiektuak definitu ditzaten beharrezkoak diren baliabideekin eta autonomiarekin.
- Familia ikuspegiren zeharkakotasuna eta koordinazioa politika publiko guztien diseinuan eta garapenean.
- EAEko hiritartasuna eta eragile sozialak sentsibilizatzea eta ohartaraztea maila pertsonalean zein kolektiboan.
- Eraginkortasunarekin eta efikaziarekin aurrera egitea, datuekin lan egitea eta hobekuntzarako adierazleak ezartzea baimentzen duen ikerketa.
- Sistema publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuak malgutzea familien errealitateetara egokituz.

## 5.3 Ildo estrategikoak

**1. go ildo estrategikoa:** Familien autonomia sustatzen eta laguntzen duten zerbitzuak, neurriak eta politikak bultzatzea.

**1.go ildo estrategikoaren oinarriak:**

- Zerbitzuak, laguntza euskarriak eta hauen sarbideak bultzatzea.
- Neurri ekonomikoak eta laguntza euskarriak garatzea.
- Familien autonomiarako eta ahalduntzerako neurrien eta politiken osagarritasun ikuspegia bultzatzea.

- Mendeko pertsonak (umeak, urritasunak dituzten pertsonak, eguneroko bizitzan mugak dituzten pertsona nagusiak, e.a)  laguntzeko aukera ematen duten familia proiektuetan enfasia jartzea. Era berean lan hauek burutzen dituztenen bizitza kalitatea eta garapen profesionalerako izan litezkeenak errespetatuz (batez ere emakumeen kasuan) eta baita ere mendeko pertsonen erabakiak hartzeko ahalmena eta haien gogoak eta eskubideak errespetatzea.

- Kostu zuzenen ordaina baimentzen duten onura ekonomikoak eta fiskalak mantentzea. Kostu hauek familiek bere gain hartzen dituzte bere kideak zaintzeko eta bere bizitza eta familia proiektuak aurrera eramateko.

- Benetan erantzunkidea den bateratzearen aldeko lehen mailako apustua. Hau lagundu ezkero, zerbitzuak eta neurri pizgarriak sustatuko dira eta familiei, enplegatzaileei eta bestelako eragile publiko eta pribatuei zuzenduko zaizkie.

- Familia bizitzako antolaketan aldaketak sustatzea eta senitarteko guztiek erantzunkidetasuna bere gain hartzea. Aldaketa hauek zenbait portaeren eraldaketaren bitartez emango dira: maila pertsonalean, familian, gizartean eta maila ekonomikoan.

**1.go ildo estrategikoaren helburuak:**

- Familia proiektuen garapena sustatzeko zerbitzuak eta euskarriak sortzea, malgutzea eta dibertsifikatzea.

- Senitartekoak zaintzeagatik edota familia proiektuak aurrera eramateagatik sortzen diren kostu zuzenak zein zeharkakoak orekatzea.

- Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeko aukerak bultzatzea.

**2. Ildo estrategikoa:** Familien ahalduntzea, sentsibilizazio soziala, prebentzioa eta familiaren balore soziala bultzatzera zuzendutako ekintza politikoen eta sozialen sustapena eta hedapena.

**2. ildo estrategikoaren oinarriak:**

- Familietan garatzen diren funtzio sozialen hedapenaren, sustapenaren, ikusgarritasunaren eta familiek suposatzen duten ekarpen ekonomikoaren aldeko apustua. Aitortu beharra dago ere gizonen eta batez ere emakumeen ekarpena hau horrela izan dadin.

- Uztarketa erantzunkideak, familia bitartekotza zerbitzuak eta euskarriak, eta ekimen sozialaren bitarteko elkartegintzak, gizarteari eragiten dizkion efektuetan eta onuretan enfasia jartzea.

- Familian, gizartean eta enpresetan ematen diren jardunbide egokien hedapena.

- Familiei laguntzeko, beraien arretarako eta babeserako politikek eta neurriek sortzen duten gogobetetze eta kalitate mailan gardentasuna.

- Hurrengo aspektuetan ardaztea: gizonen eta emakumeen arteko erantzukizun partekatuan, belaunaldien arteko erantzukizun partekatuan, familien aniztasunari errespetuan, garapen soziala eta indibiduala baimentzen duen bizikidetzaren garrantzian, bizitza proiektu bat osatzen duten guztien autonomia sustatzen duen bizitza proiektu nuklearrean.

- Familien ahalduntzea zein familien babeserako eta zaintzarako gaitasunak garatzeko ekintzak lehen mailan jartzea.

**2. ildo estrategikoaren helburuak:**

- Familia politiketan prebentzioa sustatzea familien ongizaterako funtsezko elementu bezala.

- Familiei laguntzeko politiken inguruko ezagupena eta hedapena areagotzea.

- Familiei laguntzeko politikek sortzen duten itzultze soziala ikusaraztea eta hedatzea.

- Hiritar kontzientzia sustatzea hurrengoetan: erantzukizun partekatuan, familien barneko erlazio arduratsuetan, familia izateko, bizitzeko eta bizitzeko esperientzia ezberdinei errespetuan.

- Familia proiektuak garatzeko beharrezkoak diren gurasoen gaitasunak sustatzea.

**3. ildo estrategikoa:** familiei laguntzeko politiken eta parte – hartze sozialaren sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa.

**3. ildo estrategikoaren oinarriak:**

- Familiei laguntzeko politiken ikuspegi integralera hurbiltzea.

- Familien Euskal Kontseilua arautzea eta hau osatzen duten batzordeen araudiak eguneratzea ( Sail arteko Batzordea, Erakunde arteko Batzordea eta Batzorde Iraunkorra). Baita ere familien Behatokiaren garapen eraginkorra.

- Zerbitzu sozialetako euskal sistemarekin koordinatuz, ekimen soziala bultzatzea diru – laguntzen edo kolaborazio hitzarmenen bitartez.

- Familiei laguntzeko politiken eragina, kalitatea eta gogobetetze maila neurtzeko adierazle estrategikoak sortzea.

- Familiei zuzendutako euskarri eta ordain neurriak (laguntzak, zerga - kenkariak, e.a) homogeneizatzeko eta errenta estandarizatuaren erizpidea praktikan jartzeko premia.

- Politika sozialen arteko espazioak edukiez eta lanez betetzea: espazio soziosanitarioa, gizarte-hezkuntza, hezkuntza formala, ez –formala eta informala, e.a

- Sail arteko eta erakunde arteko koordinazioan legeak eskatzen duen minimoa gainditzea benetako elkarlaneko dinamikak eta foroak sortuz.

**3. ildo estrategikoaren helburuak:**

- Familia politiken, lidergo partekatuen eta erantzunkidetasunaren erakunde antolaketa indartzea.

- Familiei laguntzeko politiketan ekimen sozialaren parte – hartzea sustatzea.

- Integratutako eta partekatutako informazio sistema baten sorketa eta garapena bultzatzea.

- Familiei laguntzeko politiken erizpide ekonomikoen eta fiskalen harmonizazioaren homogeneizaziorantz hurbiltzea.

**4. ildo estrategikoa:** Paradigma eta jarduera esparru berriak familiei laguntzeko neurrietan eta politiketan.

**4. ildo estrategikoaren oinarriak:**

- Familiei laguntzeko ekimenen esparruan, ezagutzaren kudeaketa eta berrikuntza bultzatzea eta garatzea.

- Hurrengoen inguruko ezagupena lantzea: familien errealitatea, zaurgarritasun faktoreak, familiei zuzendutako politika publikoekin erlazionatutako paradigmak, EBeko herrialdeetan, familiei zuzendutako babes, laguntza eta arreta estrategia nagusiak, erkidego autonomoetako eta estatu mailako lege araudia jarraitzea eta aztertzea.

- EAEko ongizate politiketako eta sistemetako behatokiekin kolaboratzea ongizate politikek famliengan dituzten eraginak eta ondorioak neurtzeko analisi eta ikerketen bitartez. Arreta berezia jarri hurrengoetan: luzetarako analisia, populazio segmentuen araberako politiken konzentrazio maila, ezarritako helburuekin dagoen

koherentzia maila eta familietan ematen diren onuren egokitzapena eta bere ondorioak gizartean (lan merkatuan, ekonomian, pobrezia tasetan, banaketan…)

- Ekimen sozialarekin batera, EAEko administrazio publikoen apustua hurrengoak bultzatzeko: egindako jardunbide egokien inguruko ikerketak, esperientzia eraberritzaileak, sarean parte – hartzeko bultzada, eragileen arteko sinergien eraketa, familien eta eragileen arteko sinergien eraketa, unibertsitateekin eta familia ikertzen duten zentroekin loturak sortzea eta lantzea.

**4. ildo estrategikoaren helburuak:**

- Familien zaurgarritasun faktoreen eta errealitateen inguruko esparru teoriko-kontzeptualak garatzea.
- Familiei laguntzeko politiken eraginak eta ondorioak aztertzea.
- Familiei laguntzeko ekimen eta programa esperimentalak bultzatzea.

## 5.4 Helburu estrategikoak eta neurriak.

**Argibideak**

Sail arteko dimentsioari eta plan honek Gobernuko beste plan batzuetan izan dezakeen eraginari (eta alderantziz) dagokionez, dokumentuaren amaieran Gobernu planen eranskin deskribatzailean, Familiei laguntzeko erakunde arteko III planean nolabaiteko eragina izan dezaketen planak agertzen dira. Esan beharra dago plan horietatik neurri ezberdinak atera direla eta hurrengo atal honetan agertzen direla.

Hartara, batetik agerian jartzen da elkarren arteko eragin ukaezina eta bestetik, agerian jarri nahi da ez dagoela bikoiztasunik programetan edo aurrekontuetan baizkieta neurri berdinak direla, zenbait jardueren ikuspegi poliedrikoaren eta mistoaren arabera, plan batetan edo bestean txertatzen direnak.

Familiei laguntzeko erakunde arteko III planaren hedapena, nahiz eta ildo estrategikoen bigarren atalean agertzen den, plan osoari dagokion lana da. Atal honetan txertatzen da familia politiken sustapenari, hedapenari eta sentsibilizazioari dagokion atala delako.

Hurrengo atalean, ildo estrategikoen eta helburuen arabera ordenatuta dauden neurriak zehazten dira. Arduradunen eta kolaboratzaileen zutabean, lehenengo agertzen den saila edota zuzendaritza da neurri hori aurrera eramateko ardura maila handiena duena. Egikaritze banakapenaren zutabean orokorrean neurriari dagokion aurrekontuaren banakapena jarri da urteen arabera. Aurrekontuaren asignaziorik ez dagoen kasuetan (behar ez delako edota oraindik definitu gabe dagoelako bere arduradunen aldetik) neurria aurrera eramateko aurreikusten diren urteak agertzen dira.

| **1.go Ildo estrategikoa**<br>Familien autonomia sustatzen eta laguntzen duten zerbitzuak, neurriak eta politikak bultzatzea. |
|---|
| **Helburuak** |
| 1.1 Familia proiektuen garapena sustatzeko, zerbitzuak eta euskarriak sortzea, malgutzea eta dibertsifikatzea.<br><br>1.2 Senitartekoak zaintzeagatik edota familia proiektuak aurrera eramateagatik sortzen diren kostu zuzenak zein zeharkakoak orekatzea.<br><br>1.3 Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeko aukerak bultzatzea. |

| *Neurriak* | *Arduraduna eta kolaboratzaileak* | *Adierazleak* | *Aurrekontu partida* | *Zenbateko ekonomiko totala* | *Egikaritze banakapena* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | **2011** | **2012** | 2013 | **2014** | **2015** |
| 1.1 Helburua betetzera zuzentzen diren neurriak: **Zerbitzuak eta euskarriak sortzea, malgutzea eta dibertsifikatzea familia proiektuen garapena sustatzeko** | | | | | | | | | |
| 1. Osasun langileei zuzendutako protokoloen eta tresnen eraketa eta aplikazioa. Hauek baimenduko dute familiaren zaurgarritasunaren inguruko arrisku faktoreak identifikatzea eta egokiak diren babes sistemetara bideratzea. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Osasun eta kontsumoa | Formalizatuta dauden eta aplikatzen diren protokoloen kopurua<br><br>Protokoloak erabiltzeko prestatuta dagoen osasun langileen %a. | Ez du partida espezifikorik behar. | 0 € | X | X | X | X | X |
| 2. Eskatzen duten emakumeentzat, inseminazio artifizialaren eskaintza mantentzea. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Osasun eta kontsumoa | Modu positiboan burutu diren eskarien kopurua | | | | | | | |

| Neurriak | Arduraduna eta kolaboratzaileak | Adierazleak | Aurrekontu partida | Zenbateko ekonomiko totala | Egikaritze banakapena | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
| 3A. Jaioberriak zaintzeko unitateetako, amaetxeetako, erditze guneetako espazio arkitektonikoen eta protokolo klinikoen egokitzapena, lotura emozionalerako oinarrizko prozesuetan familien parte – hartzea, hazkuntza eta zaintza lagunduz.<br><br>3B. 0 eta 3 urte arteko umeen zainketa, garbiketa eta elikadura laguntzen duten edoskitze guneak zabaltzea, merkatarien, ostalarien eta irabazi asmorik gabeko elkarteen sustapenaren eta sentsibilizazioaren bitartez. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>a) Osasun eta kontsumoa<br><br>b) Enplegu eta Gizarte gaiak<br><br>*Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza* | a) Arkitektonikoki egokitutako erditze guneen, amaetxeen eta jaioberriak zaintzeko unitateen %a.<br><br>Diseinatutako eta aplikazioan dauden protokolo klinikoen kopurua.<br>b) Irekitako edoskitze gune kopurua. | Ez du behar<br><br>a) 800.000 € (Osa. Kontsum)<br><br>b) Ez du behar (Fam. Po) | | | | | | |

| *Neurriak* | *Arduraduna eta kolaboratzaileak* | *Adierazleak* | *Aurrekontu partida* | *Zenbateko ekonomiko totala* | *Egikaritze banakapena* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | *2011* | *2012* | *2013* | *2014* | *2015* |
| 4. Zeharkako arreta komunitarioaren garapena, gaixoen zainketa bermatzeko bere ohiko bizilekuan. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Osasun eta kontsumoa<br><br>*Arreta soziosanitarioaren ildoak*<br><br>**Foru Aldundiak**<br><br>**Udal administrazioa** | Zeharkako arreta komunitarioa garatzen den kasu kopurua. | Partidak daude Euskal autonomia-erkidegoko arreta soziosanitarioaren ildoak prestatzeko esparru-dokumentuan. | | | | | | |
| 5. EAErentzat Laguntza goiztiarraren ereduaren proposamenaren garapena. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Osasun eta kontsumoa<br><br>*Arreta soziosanitarioaren ildoak* | Diseinatuta eta aplikatzen den laguntza goiztiarraren eredu bat. | Partidak daude Euskal autonomia-erkidegoko arreta soziosanitarioaren ildoak prestatzeko esparru-dokumentuan. | | | | | | |

| *Neurriak* | *Arduraduna eta kolaboratzaileak* | *Adierazleak* | *Aurrekontu partida* | *Zenbateko ekonomiko totala* | *Egikaritze banakapena* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | *2011* | *2012* | *2013* | *2014* | *2015* |
| 6. Osasunaren esparruan, haur babeseko sarean dauden umeei eta nerabeei zuzendutako laguntza programen garapena (Lehen mailako arreta eta Osasun mentala) horrela laguntza bermatzeko eta jarraitzeko adinez nagusi diren arte. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Osasun eta kontsumoa<br><br>*Arreta soziosanitarioaren ildoak* | Egindako programa kopurua<br><br>Zaindutako ume%a | Partidak daude Euskal autonomia-erkidegoko arreta soziosanitarioaren ildoak prestatzeko esparru-dokumentuan. | | | | | | |
| 7. Intentsitate altuko zainketa programen garapena mendekotasun egoeran edo gaixorik dauden pertsonen ohiko bizilekuaren inguruan eta bere senitartekoei laguntza. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Osasun eta kontsumoa<br><br>*Arreta soziosanitarioaren ildoak* | Garatutako programa kopurua<br><br>Programen bitartez zaindutako familia eta pertsona%a | Partidak daude Euskal autonomia-erkidegoko arreta soziosanitarioaren ildoak prestatzeko esparru-dokumentuan. | | | | | | |

| *Neurriak* | *Arduraduna eta kolaboratzaileak* | *Adierazleak* | *Aurrekontu partida* | *Zenbateko ekonomiko totala* | *Egikaritze banakapena* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | *2011* | *2012* | *2013* | *201 4* | *2015* |
| 8. Zaurgarritasun maila altua (portaera arazo larriekin, osasun mentala, menpekotasunik gabe baina droga kontsumo maila altuarekin) duten nerabeekin eta haien familiekin prebentzioa lantzeko baliabideen garapena. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Osasun eta kontsumoa<br><br>*Droga Gaietako Zuzendaritza* | Destinatutako baliabide kopurua<br><br>Zaindutako nerabe eta familia kopurua | Partidak daude EAEko adikzioen VI Planean 2011-2015. | | | | | | |
| 9. Drogekin eta jokoarekin portaera arriskutsuak dituzten seme – alaben familiei zuzendutako informazio, orientazio eta esku – hartze psikologiko eta giza–hezigarriko baliabide pertsonalizatuen edo taldekakoen sustapena . Hauek beti udal eta foru zerbitzuekin koordinatuz. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Osasun eta kontsumoa<br><br>*Droga Gaietako Zuzendaritza* | Garatutako jarduera kopurua<br><br>Familia onuradunen kopurua<br><br>Familia onuradunen %a | Partidak daude EAEko adikzioen VI Planean 2011-2015. | | | | | | |

| Neurriak | Arduraduna eta kolaboratzaileak | Adierazleak | Aurrekontu partida | Zenbateko ekonomiko totala | Egikaritze banakapena | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
| 10. Gazteriaren emantzipazio goiztiarraren politika bat diseinatzeko, koordinatutako proposamenen bultzada. | **Eusko Jaurlaritza**<br>Kultura<br>*Gazteria eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritza*<br>Enplegu eta Gizarte gaiak<br>*Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza* | Diseinatutako proposamen kopurua<br>Martxan jarri diren eta diseinatu diren proposamen %a. | Ez du partida espezifikorik behar<br>III Gazte Plana 2020 (Etxebizitza eta Enplegu sailak) | 0 € | X | X | X | X | X |
| 11.Familia-bitartekotzako zerbitzuen kudeaketa Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. | **Eusko Jaurlaritza**<br>Enplegu eta Gizarte gaiak<br>*Gizarte Zerbitzuen zuzendaritza* | Gain hartutako kasu kopurua | Kanpo zerbitzuen kontratazioa<br>2012tik aurrera garatzen da eta horregatik oraindik ez dago partida espezifikorik | **2.891.079 €** | - | **701.079 €** | **720.000 €** | **730.000 €** | **740.000 €** |
| 12. Babes gabe eta bazterkeria egoeran dauden familiei eta bereziki legean ahulezia berezikoak bezala adierazten diren familiei zuzentzen | **Eusko Jaurlaritza**<br>Enplegu eta | Garatutako programa kopurua | Erakundeei diru laguntza | **705.000 €**<br>73. neurriaren | 150.000 € | 130.000 € | **135.000 €** | **140.000 €** | **150.000 €** |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| zaizkien programa prebentiboak garatzea, beti udal eta foru zerbitzuekin koordinatuz. | Gizarte gaiak<br>*Gizarte Zerbitzuen zuzendaritza eta*<br>*Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza*<br>**Foru Aldundiak**<br>**Udal administrazioa** | | 08 **3123** 21 45499 001 | partidetan sartutako zenbatekoa. | | | | | |
| 13. 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako gelen sorketa sustatzea, dagoen eskaria legealdiaren azken-aldera bete ahal izateko. | **Eusko Jaurlaritza**<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa<br>**Udal administrazioa** | Sortutako gela kopurua<br>Geletan 0 eta 3 urte artean dagoen populazioaren %a | | | | | | | |
| 14. Ikasketa zentroen eta zerbitzu sozialen arteko jarduera mekanismo bateratuen eraketa eskolaren esparruan. | **Eusko Jaurlaritza**<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa<br>eta<br>Enplegu eta Gizarte gaiak<br>*Gizarte Zerbitzuen* | Eratutako mekanismo kopurua eta aplikatzen diren mekanismoen kopurua<br>Jarduera | Ez du partida espezifikorik behar | 0 € | X | X | X | X | X |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *zuzendaritza*<br>*Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza*<br>**Udal administrazioa** | mekanismo bateratuak dituzten zentroen %a | | | | | | | |
| 15. Hezkuntza inklusiboaren aldeko apustuari lotutako Behar Hezigarri Bereziei zuzendutako arreta estrategien garapena. | **Eusko Jaurlaritza**<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa<br>*Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza* | Diseinatutako eta martxan dagoen estrategia kopurua<br>Estrategien bitartez onuratu den ume kopurua | Dir.lag. Hezkuntza laguntzako espezialistak Itunpeko ikastetxeak 10/11<br>0409.454.99.42210.2<br>Dir.lag. Hezkuntza laguntzako espezialistak Itunpeko ikastetxeak 11/12<br>0409.454.99.42210.3<br>H.P.B ikasleentzat Eskola garraiorako eta jantokirako diru laguntzak<br>0409.453.01.42311.1<br>Hezkuntza bereziko gastuak | 4.883.940 € | | 7.442.400 € | | | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 0409.1.238.99.42210.4<br>Goi mailako gaitasunak<br>0409.2.454.99.42210.5<br>Lurrald.zentr. Etxeko eta ospitaleko arreta | | | | | | |
| 16. Familien bateratzea hobetzeko helburuarekin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailari jakinaraztea ikasketa zentroei zuzendutako neurriak ezartzeko premia. | **Eusko Jaurlaritza**<br>Enplegu eta Gizarte gaiak<br>*Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaritza* | | | Ez du behar | | | | | |
| 17. Egokitzapen zailtasunak eta babes gabeko egoeran dauden familietako umeei zuzendutako eskola errefortzu programen garapena. | **Eusko Jaurlaritza**<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa<br>*Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza* | Diseinatutako eta aplikatzen diren estrategien kopurua<br>Bazterkeria egoeran eta egokitzapen zailtasunak dituzten | PROA Programa<br>0408.238.99.42210.2<br>0408.238.99.42210.1 | 668.000 €<br>941.600 € | | | | | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | familia %a eta errefortzu programen bitartez onura izan dutenak.<br><br>Eskola errefortzuko programetara lotutako ikasketa zentroen %a | | | | | | | |
| 18. 30 urtetik beherakoentzako lana aktibatzeko planen garapena. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Lanbide<br><br>*Lana Aktibatzeko Zuzendaritza* | Diseintutako eta garatutako planen kopurua<br><br>Planetara barneratu diren 30 urtetatik beherako pertsonak<br><br>Planetara barneratu den 30 urtetik beherako populazioaren%a | 08.3211.13.41300.002 | 66.895.100 € | 12.600.000 € | 12.978.000 € | 13.367.340 € | 13.768.360 € | 14.181.400 € |

| Neurriak | Arduraduna eta kolaboratzaileak | Adierazleak | Aurrekontu partida | Zenbateko ekonomiko totala | Egikaritze banakapena | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
| 19. Zuzkidura bizitokien bultzada eta hedapena, familia berriak eratzeko formula laguntzaile bezala. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Etxebizitza, Herri lan eta garraioak | Onura izan duten familia berrien kopurua | Etxebizitza Plan zuzentzailea 2010-2013-aren aurrekontu kostuak | | X | X | X | X | X |
| 20. Talde sozial baten parte izatea baino gehiago, etxebizitzaren behar objektiboa ezartzen dituen zozketa modelo bat ezartzea. BPE-a esleitzeko irizpide nagusienak izango dira zerrendan eman den denbora edo aintzinatasuna eta bizikide unitatea osatzen duten pertsonen kopurua. Horrela, lehentasunez erabakiko dira luzaroan haien eskariak asetu gabe dituzten eta karga familiarrak dituzten bizikide unitateen eskariak.<br><br>Haien ondorengoak bisitatzeko eskubidea daukatenen artean, haien etxebizitzaren premia kontutan | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Etxebizitza, Herri lan eta garraioak | Modeloan egindako aldaketa kopurua | Ez du aurrekontuko partidarik behar | 0 € | X | X | X | X | X |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| hartzerako orduan, posible izango da bizikidetza unitatearen kide bezala zenbatzea bisita eskubidea daukan pertsona bere ondorengoekin batera. | | | | | | | | | |
| 21. Arau bidezko aldaketak sartzea etxearen titulartasuna zatitugabeko motan izateko, horrela bikote ez izaten jarraitzekotan, umeen babespearen arabera etxebizitza erabili ahal izateko. Egoera hau eman ahal izango da bikote izaera mantentzen ez dutenen artean, banatuta edo dibortziatuta daudenen artean eta haien seme – alaben babespe konpartitua daukatenean eta etxebizitzaren erabilera etengabea seme-alabentzat ezartzen denean. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Etxebizitza, Herri lan eta garraioak | Arau bidez egindako aldaketak | Ez du aurrekontuko partidarik behar | 0 € | X | X | X | X | X |
| 22. Kupoen arautzearen berrazterketa, zaurgarritasun kasu berezietan dauden familientzat mekanismo eraginkor bat izan dadin. | **Eusko Jaurlaritza**<br><br>Etxebizitza, Herri lan eta garraioak | Kupoetan egindako aldaketa kopurua | Ez du aurrekontuko partidarik behar | 0 € | X | X | X | X | X |

| Neurriak | Arduraduna eta kolaboratzaileak | Adierazleak | Aurrekontu partida | Zenbateko ekonomiko totala | Egikaritze banakapena | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
| 23. Larrialdi kasuetarako familiei zuzendutako ostatu zerbitzuak garatzea. | **Udal administrazioa** | Egindako jarduera kopurua<br><br>Onura izan duten familia kopurua | | | | | | | |
| 24. Familia orientazio, bitartekaritza eta terapia zerbitzuen garapena nerabe erasotzaileekin esku-hartzea eta adopzioa laguntzeko programetan. | **Foru Aldundiak** | Egindako jarduera kopurua<br><br>Onura izan duten familia kopurua | | | | | | | |
| 25. Familiei laguntzeko zerbitzuen garapena (hezkuntza, kultura, astialdia, kirola … ). | **Foru Aldundiak** | Egindako jarduera eta zerbitzu kopurua<br><br>Onura izan duten familia kopurua<br><br>Onura izan | | | | | | | |

| | | | | | | | | | |
